

Zu hemen zaude. goiena

GAURIK ILUNENA

Gau Beltzeko ohiko karakterizazioa: burua izarekin estalita eta kapela buruan, beldurra eragiteko gertu.

Gau Beltza ospatuko dute gaur eskualdeko herri gehienetan; beldurra eragiteko gertu daude iluntasunaren zaleak / 4

EKAITZ FILARMENDI

Confebask-eko buru Eduardo Zubiaurrek dio ez dagoela arrazoirik "greba orokorra deitzeko" / 7

Proiektua herritarrek aukeratuta, hasi dituzte Eskoriatzako Partxis jolas eremua berritzeko lanak / 20

Duela 15 urte Elgetan hasi zen Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketa gogoan dute zaleek / 40



+

Behobia-Donostia: debagoiendarrak, historiaren parte

Nestor F. Marques arkeologoari elkarrizketa

SINADURAK

PATXI OLABARRIA IRIZAR / 8

LANDER JIMENEZ / 10

ENERITZ URRUTIA / 14

MARIA IZAGA / 17

OIHANA GARCIA INSAUSTI / 18

ANA CARPINTERO / 24

AGURNE BARRUSO / 48

Eneko Azurmendi ARRASATE

Isabel Salud, Elkarrekin Podemoseko diputatu izandakoa Espainiako Kongresuan; Lourdes Idoiaga, Oñatiko alkate eta zinegotzi izandakoa EAJrekin; Rafael Gomez, Arrasateko Udalean zinegotzi sozialista izandakoa; eta Xabier Zubizarreta *Txiron*, ezker abertzalearekin Arrasateko alkate izandakoa. Lau ahots ezberdin, Espainiako hauteskunde orokorrek eman dezaketena hizpide hartuta.

Apirilaren 28ko emaitzekin alderatuta, ez dute uste emaitzak askorik aldatuko direnik oraingoan, baina eskuinaren eta eskuin muturraren gorakadaren beldur dira. "Une hauetan egoera zaila da, eta eskuinak irabazteko arriskua hor dago, eskuin muturrarekin batera. Frankismotik datorren jendeari buruz ari gara, eta Franco hobitik ateratzean ikusi dugu nola azaleratu duten hori. Beraz, demokraziarentzako benetako arrisku baten aurrean gaude", azaldu du Saludek.

Era berean, Idoiakak ere beldur hori azaldu du. "PPren eta Voxen gorakadak eta Unidas Podemosen jaitsierak arriskua ekarriko duen beldur naiz. Apirileko emaitzen ostean egon den aukera galdu eta eskuinera okertzen den Gobernu bat egongo ote den ere beldur naiz, eskual gizartearendako guztiz okerra izango litzatekeelako", dio.

Kataluniako egoerak eskuinari mesede egingo diola uste du Gomezek: "Kataluniarekiko jarrera horrekin Kataluniakoak ez diren herritar asko irabazten ari da eskuina. Pena da, baina halaxe da".

Txiron-ek, azkenik, eskuina Gobernura ez iristea lehenetsi du. "Garrantzia ematen diot Espainiako eskuindarrak Gobernura ez iristeari, euskaldunoi kalterik eta arazorik handienak haiek sortuko lizkiguketelako".

Hego Euskal Herrian, antzera

Gomezaren arabera, Hego Euskal Herrian ere gauzak ez dira askorik aldatuko. "Gauzak oso definituta daude hemen; agian, diputatu batek egin dezake gora edo behera, baina sorpresa handia hartuko nuke EAJk edo PSOEek bost diputatu gehiago edo gutxiago lortuko balituzte".

Nafarroan Bel Pozueta diputatu izateko aukera ikusten du *Txiron*-ek. "Apirilean oso gutxiatik ez zuen lortu, eta emaku-



Isabel Salud.



Lourdes Idoiaga.



Rafael Gomez.



Xabier Zubizarreta *Txiron*.

Eskuinak gora egitearen beldur

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egingo dituzte azaroaren 10ean, baina ze emaitza utziko dituzte? Zeintzuk izango dira inbestidurara begirako akordio eta abstentzio posibleak? Hainbat iritzi batu ditu GOIENAK galdera hauei erantzuteko

me hori hautatua izatea inportantea izango litzateke euskaldunontzat". Horrez gain, Araban EH Bilduk PPri kendu zion diputatua mantentzea ere inportantea izango dela dio.

Azken horrekin bat egin du Idoiakak, eta zera gehitu du: "EAJk, guztira, diputatu bat gehiago lortuko balu, ni gustura".

Saludek ohartarazi du Espainia eta baita Euskadi ere "atzeratzen" egiten ari direla eskubide sozialei, ongizateari eta erosalmenari dagokienez. "Ezinbestekoa izango da jendea bozkatzera joatea eta parte-hartzea

APIRILEKO BOZEKIN ALDERATUTA, EMAITZA ANTZEKOAK IZANGO DIRELA USTE DUTE GUZTIEK

handitzea, ekonomia herritarren gehiengoaren zerbitzura jarri ahal izateko", azaldu du.

Akordio posibleak, zail

Inkesta gehienek esaten dutenaren arabera, PSOEek irabaziko ditu azaroaren 10eko bozak. Hori hala izanda ere, gehiengo absoluturik ez du izango, ia seguru, eta babesak beharko ditu inbestiduran. Balizko akordio horiei dagokienez, Idoiakak dio Euskal Herriarendako onena izango litzatekeela apirileko emaitzak eta Gobernua osatzeko aukera horiek errepikatzea. "PSOEek eta Unidas Podemosen akordio bat lortzea, eta kataluniarren eta euskaldun abertzaleen babesarekin aurrera egitea. Hala ere, ez naiz ausartzen Gobernu progresista izango den edo ez esatera".

Gomezek, berriz, azpimarratu du indar nazionalistek paper inportantea jokatu dutela inbestiduran. "ERCK, esaterako, nahiko aldatu du diskurtsoa eta ezkerreko Gobernu horretan kolaboratzeko aukera ikusi du. Horrez gain, Pablo Iglesiasek, azkenean, Sanchez babestuko duela uste dut, eta Iñigo Errejonek ere bai. Beraz, espero dut Sanchez presidente ikustea, nazionalisten babesarekin, eta eduki ditzaketan diferentziak joango dira konpontzen legealdian zehar".

Saludek adierazi du "oso zaila" egiten zaiola aurreikustea ze

EZ DUTE BAZTERTZEN ESKUINA GOBERNURA IRISTEKO AUKERA, ETA HORREK KEZKA SORRARAZTEN DIE

akordio egongo diren inbestidurarako. "Aurrekoan akordiorik ez bazen egon, sozialisten borondate faltagatik izan zen. Possible da panorama errepikatzea eta Sanchezek behar izatea Unidas Podemosen eta indar subiranisten babesarekin. Gobernu progresista bat osatzeko aukera ematen bada, guk norabide horretan lan egingo dugu, gure benetako nahia hori delako, gaur egungo politikak aldatzea. Baina benetan egon behar da borondate hori".

Txiron-ek, azkenik, orain artekoa errepikatzeak aukera handiak ikusten ditu. "Lehenengo antzera ibiliko direla iruditzen zait, eta askoz ere aukera gehiago ez ditut ikusten, gainera".

Indar subiranisten babesik bai?

"Zalantzarik gabe", ezkerreko indarren eta indar subiranisten beharra edukiko du Sanchezek inbestidurarako, EAJko kidearen esanetan. "Hala ere, apiriletik hona gauza asko gertatu dira Katalunian, eta segun eta zer agintzen duen, zaildu egingo zaizkio babesak. Beraz, lehen baino askoz ere zalantza gehiago dute. Panorama okerragoa ez izateagatik, agian, babestuko dute Sanchez, baina meritu asko ez ditu egin azkenaldian".

Txiron-ek dio Espainian independentismoaren kontrako posizioa "oso garbia" dela eta hauteskundeak errepikatuko badira, izan litekeela, neurri batean, indar subiranistekiko dependentzia zeukatelako. "Nik uste dut euskaldunoi bide bat zabaltzen zaigula berriro gure aukerei eusteko, baita galiziarrei eta kataluniarrei ere. Izan ere, nazio txiki hauen askatasuna ezkerreko bide batetik lortu daiteke soilik. Beraz, indar hauen babesarekin izatea PSOEren esku dago, hein handi batean".

Bozkatzera joateko deia

Kontuak kontu, azaroaren 10ean botoa ematearen garrantzia azpimarratu dute guztiek. "Herritarrok hainbeste hauteskundearekin nekatuta gauden arren, uste dut botoa eman behar dugula guztiok, eskuinak gobernua ez dezan", azaldu du Gomezek, eta Saludek ere bat egin du. "Garrantzitsua da etxean ez gertatzea, horrek eragingo duen gauza bakarra izango delako eskuinak eta eskuin muturrak gobernatzea", dio.



Donostiako Gladys Enea parkean egin dute aurkezpena asteon. LARREKO MAHAIA

Klima larrialdiari aurre egiteko, Larreko Mahaia

Gipuzkoako hainbat eragile ekologista, sozial eta sindikal elkartu egin dira, helburu garbi batekin: "Gizartea izan dadila larrialdi hau kudeatuko duena, erabakitzeke eta kontrolatzeko ahalmen osoarekin, ordezkaritza politikoaren menpe izan gabe"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Klima larrialdiaren aurka tokian toki aritzea aldarrikatzen dute, betiere, arazoa "mundu osokoa" dela ahaztu gabe. "Egun bizi dugun krisi ekologikoarekin eta planetaren zein jendartearen etorkizunarekin kezkatuta gauden Gipuzkoako hainbat eragile egoerari aterabide bat emateko asmoz gure indarrak batzea erabaki dugu. Plataforma honetan gazte erakundeek, talde ekologistek, sindikatuek, erraustegiaren aurkakoek, parte-hartzearen aldekoek, ikasleek eta beste hainbat eragilek bat egin dugu", azaldu dute.

Hauek dira plataformako kideak, gaur-gaurkoz: CCOO, LAB eta Steilas langile sindikatuak, EHNE nekazarien sindikatua, ikasleen sindikatua, Greenpeace eta Eguzki talde ekologistak, Ernai gazte erakundea eta bestelakoak, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Extinction Rebellion eta GuraSOS, baita Etxalde Nekazaritza Iraunkorra

Elkartea ere –Maite Aristegi bergararra izan da haren ordezkaria aurkezpenean–.

Helburu ugari jarri dituzte

Hauek dira plataformak jarri dituen helburuetako batzuk: herritarren lidergoa sustatu, eta ingumena eta bizitza erdigunean jarri; mundu mailan sortzen ari den sentsibilizazioa maila lokalera, Gipuzkoara, ekarri, eta erantzun lokala artikulatu; trantsizio energetikoa, hondakinen kudeaketa arrazionala eta haldak alternatibak eskaini eta sistema honek sortzen duen pobrezia, zapalkuntza, indarkeria, desberdintasun, prekaritate eta hondamendi ekologikoa amaitu.

PARTAIDE BERRIAK JASOTZEKO PREST AZALDU DIRA, NORBANAKOAK ZEIN ERAGILEAK

Era berean, planetaren tenperatura igoera 1,5 graduz azpitik mantentzeko "beregala" egin beharreko aldaketa batzuk azpimarratu dituzte. "Kontsumoa murriztu eta ekoizpen eta kontsumo harreman lokalak, justu eta gertukoagoak garatu; mugitu beharra murriztu, garraiobide kutsakorrenak mugatu, garraio publiko eta kolektiboa sustatu eta merkatu eta energia produkzioa eta erabilera aldatu, CO2 sortzen dutenak eta nuklearrak itxiaz, energia berriztagarrien enpresa publikoak sortuz eta lanpostu guztiak horra bideratuz eta alferrikako kontsumoa ezabatuz. Pobrezia energetikoa amaitu behar da".

Ate guztiak zabalik

Aristegik nabarmendu du atek zabalik dituztela plataformara batu gura duen edozein eragile edo norbanakorentzat. "Tokian toki eta bailara mailan ere plataforma garatzen joatea izango da lehentasuna aurrerantzean".



Helikopteroa, Anboton, bilaketa lanetan. SOS DEIAK

Gazte bergarar bat hil da asteon Anbotoko gailurretik gertu

Astelehen ilunkeran aurkitu zuen Ertzaintzak 26 urteko Julen Molpeceres Garciaren gorpua, Alluitz aldera

E.A. BERGARA

Gaztearen familiak domeka eguerdian eman zuen haren desagerpenaren berri, mendira joan eta itzuli ez zela jakinarazita, eta bilaketa lanak hasi zituzten domekan bertan. Hala, Larrialdi Zerbitzuetako kideak, Ertzaintzaren mendiko unitatea, txakur unitatea, DYAKoak eta Gurutze Gorrikoak aritu ziren bilaketa lanetan, baita Bergararik joandako 40 bat lagun ere; gehienak, gazteak. Izan ere, Bergarako Udalak Twitter birtartez adierazi zien bilaketa lanetan "parte hartzeko borondatea" zuten guztiei Arrazolako Amillena jatetzeko aparkalekuan ezarri zuten koordinazio gunera gerturatuzko. Horrez gain, bilaketa "modu koordinatuan eta seguruan" egin behar zela ere ohartarazi zien herritarrei.

Domeka arratsalde osoan aritu ziren bilaketa lanetan, baita

ilunetan ere, linternak eta bestelakoak erabilia. Astelehenean, goizean goiz abiarazi zuten berriro bilaketa, eta astelehen arratsaldean, 18:00 aldera, bilaketa lanak bertan behera lagatzeaz zirela, Ertzaintzaren helikopteroak aurkitu zuen bergarar gaztearen gorpua, Anbotoko gailurretik 150 bat metrora, Alluitz aldera.

Eusko Jaurlaritzako Seguratasun Sailetik adierazi dutenez, gainera, "irisgarritasun zaila" daukan gune batean aurkitu zuten gorpua, eta helikopteroz eraman zuten Anbotoren magaleraino.

Bilbora eraman zuten gorpua

Astelehenean bertan, aurkitu eta segidan, Bilboko Auzitegiko Institutu Anatomikora eroan zuten hilotza, autopsia egin ziezaioten, heriotzaren zergatia argitu ahal izateko.

Azaroaren 9an, ate irekiak Garaia Parke Teknologikoan

Jardunaldi hauen helburua da "Arrasateko eta Debagoieneko herritarrek parkeko enpresetara hurbiltzea eta hauek ezagutu ahal izatea, eta gaur egun diziplina ezberdinetan aplikatzen diren teknologia desberdinak esperimintatzea".

10:30ean irekiko da esparrua, eta 11:00etan parkeko enpresekin egindako ekitaldia izango

da. Mota guztietako jarduerak egingo dituzte: puzgarriak, marrazketa tailerrak, 3D inprimaketa, errealitate birtuala eta robot humanoide bat, eta abar.

11:15etik 12:00etara, bisita gidatua egingo da parkeko zenbait enpresatan, eta zer egiten duten eta beste bitxikeria batzuk kontatuko dizkiete bertaratutakoek.

Era berean, *Adineko liderrak gizartearentzat* hitzaldia ere egongo da BiziPoz enpresaren eskutik. Bukatzeko, zozketak eta luntxa egongo dira.



Zapatuan Arrasaten egindako Beldurrezko Etxean parte hartu zuten bi gazte, mozorrotuta. IMANOL SORIANO

Arimen Gauean, jaia eta beldurra

Domu Santu bezperan, gaurko gauean, antzina erritu eta festa ugari egiten ziren Euskal Herri osoan. Gau magikoa ospatu eta tradizioa berreskuratzeko asmoz, egitarau oparoa antolatu dute Debagoieneko herrietan; festa eta beldurra izango dira nagusi

Maialen Santos DEBAGOIENA

Urriaren 31tik azaroaren 1erako gauean, gaur, Halloween gaua ospatzen da munduko zenbait txokotan, eta Euskal Herrian ere ospakizuna bere lekua hartu joan da azken urteetan. Hala ere, jakina da antzina bazegoela bertan antzeko festa bat ospatzeko ohitura: Gau Beltza edo Arimen Gaua. Urteak pasa ahal euskaldunen jaia indarra galduz joan da; Euskaltzaleen Topaguneko Itsaso Lekuonak adierazi duenez, dagoeneko askok nekazaritza eremuetan "bizitzeari" utzi diotelako galdu da tradizioa, besteak beste: "Orain, herri eta hirietan bizi gara gehienak, eta horiek ez dira hain ilunak izaten". Era berean, lehen egiten zen jaiarekiko ezagutza ere "galdu" egin dela dio, gaur egun ez dela ezagutzen. Belau-naldien arteko transmisioak huts

egin du, beraz, topaguneko arduradunaren aburuz.

Tradizioa berreskuratu guran

Tradizioa berrindartu eta berreskuratzeko ahaleginetan aritu dira zenbait elkarte eta antolakuntza talde azken urte hauetan. Hainbat ekimen eraman dituzte aurrera herrietan, eta aurten ere ekintzaz jositako egitaraua antolatu dute Debagoieneko herrietan. Arrasaten, adibidez, aste osoa daramate egunaren baitako ekintzak egiten; dagoeneko egin dute Beldurrezko Etxea gaztetxokoan, eta

"GALDU EGIN DA LEHEN EGITEN ZEN JAIAREKIKO EZAGUTZA; HUTS EGIN DU TRANSMISIOAK"

gaur bertan Arimen Biltzarra egingo dute herriko gaztetxean. Oñatin, aldiz, gaur egingo dute Beldurrezko Etxea gaztelekuan, eta pertsonaia "beldurgarriek" istorioan parte hartuko dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Itsaso Lekuonak azaldu duenez, egunotan festa egiteak esangura berezia du: "Badaude gure aitona-amonon garaiko testigantzak, eta diote udazkeneko egun hauetan zehar ospatzen zituztela festa edo erritual batzuk". Erritualak ez zituzten zehazki urriaren 31 gauean, Domu Santu bezperan, egiten; urteko "sasoi

"GURE AITONA-AMONEN GARAIAK ERRITUALAK EGITEN ZITUZTELA DIOTE TESTIGANTZEK"

honetan zehar baizik", gutxi gorabehera. "Jaiak lotura du urtaro honekin eta ordu aldaketarekin eta, gainera, naturaren zikoetan udazkenak urtearen heriotza dakar". Hain zuzen –ordu aldaketa eginda–, iluntasunaren garaia da eta, beraz, heriotzarekin eta iluntasunarekin lotutako erritualak egitea ohitura zen duela hamarkada batzuk. "Hildakoen oroimenerako egiten ziren, besteak beste".

Bergaran, esate baterako, ekintza ugari antolatu dituzte aste osorako; tartean, 16 urtetik gorakoei zuzendutako bisita gidatu antzetzua egingo dute, *Bautista, Bergarako leprosua* izenarekin: "Bisitaren hasieran azalduko zaie parte-hartzaileei nondik datorren Gaba Beltza ospatzeko ohitura, eta ondoren, Bergarako historiaren kronika beltza kontatuko dugu", azaldu du Ugutz Basauri antolatzaileak. Horretaz gain, aurten berrikuntza modura *Escape Room*-a egingo dute kartzela zaharrean, eta espazioak jolasari "xarma berezia" eman go diola aurreratu du Basaurik.

Halloweenekin antzekotasunak Ospakizunen jatorriak zerikuzirik ez duen arren, bi jaiak

"IKONOGRAFIARI DAGOKIONEZ, OSO ANTZEKOAK DIRA BIAK: ARIMEN GAUA ETA HALLOWEEN"

badituzte elkarren artean zenbait antzekotasun; batez ere, ospatzeko moduari dagokionez. "Halloween Ameriketako Estatu Batuekin lotzen dugun arren, ohitura zelta batetik dator", argitu du Lekuonak. Bergarako Gaba Beltzaren antolatzaileak gaineratu duenez, *Debagoiena* hitzaren *Deba* ere zelta da, eta berau lehen jarraitzen zen tradizio eta erritualekin "estuki loturik" egon daiteke. Hain zuzen ere, Irlandatik hartu zuten festa estatubatuarrek, eta horregatik uste da amerikarrendik datorren ospakizuna dela; horretan "oker gaude", baina, Basauriren aburuz.

Horretaz gain, "testigantzek jasotzen dutenez, Gau Beltza ospatzen zutenek kalabazak eta arbiak lapurtzen zituzten baratzetatik". Ondoren, hustu egiten zituzten eta aurpegi forma ematen zieten. Horiek argizatatzeko, barrua kandelaz bete eta "beldurra emateko" prest egoten ziren iluntasun-zaleak.

Ikonografiari dagokionez ere oso "antzekoak" dira Halloween eta Arimen Gaua. Naturari lotutako produktuak dira protagonista bietan; urteko sasoiari lotutako protagonistak, alegia. Kalabazak, arbiak eta gaztainak dira Domu Santu bezperan toki berezia izaten dutenak.

Topagunea, gidari

Herriz herri Arimen Gauak ospatzen hasiak zirela ikusi zuten Euskaltzaleen Topaguneko arduradunek –ezaugarri komun batzuei jarraiki–. Esaterako, euskaraz egin eta ospatzen zirela ikusirik, Euskaltzaleen Topagunetik zerbait egiteko grina piztu zitzairen: "Jaien zabalpenari akuilu lana egitea zegoikigun".

2018an, Josu Ozaita eta Jaime Altuna antropologoen *Itzalitako kalabazen berpiztea* izeneko lan etnografikoa egin zuten, galduztzat ematen ziren erritual eta ohituren berri jakitea helburu. Bide batez, urriaren 31 iluntzean egiten diren ospakizun berriak ere aztertu eta jaso zituzten. Aipatutako etnografia abiapuntutat hartuta, Euskaltzaleen Topaguneko Arimen Gaua ospatzeko "jai eredu" bat sortu nahi izan du: "Jai proposamen bat egin dugu; nolako jaia egin nahi dugun eta zer zabaldu nahi dugun hartu dugu kontuan horretarako". Eredua sortu ahal izateko jendearen laguntza behar



Baliabide kutxan aurki daitezkeen materialetako batzuk. MAIALEN SANTOS

izan dute. Zenbait bilera egin dituzte azken urteetan herrietan Arimen Gauda antolatzen aritu direnekin, baita bestelako eragileekin ere; komunikatzaileekin, kulturaren adituekin eta hezitzaileekin. "Guztien artean adostutako jai eredu bat sortzea genuen helburu", azaldu du Lekuonak.

Baliabide kutxa, eskuragai

Euskaltzaleen Topaguneak eta eragileek elkarlanean aurrera eramandako jai proposamena gizartera zabaltzeko baliabide kutxa jarri dute eskuragai. "Ha-

sieran, gida bat sortzea erabaki genuen, baina gerora, konturatu ginen gida bakarra ez litzatekeela jai guztietarako baliagarria". Horregatik, baliabideen kutxaren aldeko apustua egin zuten: "Kutxa honek baliabide batzuk ematen ditu, gero nork bere herrian edota komunitatean nahi duen moduko jai antolatu dezan". Izan ere, "ez da berdina" jai herri baten edo bestean antolatu. Bakoitzak bere errealitateara egokitu behar du, baita festa egingo duen publikora ere. Elgetan, haurrak izango dira

protagonista, gazteenek antolatutako antzerki ibiltariak gozatzeko aukera izango baita bertan.

Edozelan ere, jaiak ezaugarri komun batzuk jarraituta antolatu daitezkeela uste du Euskaltzaleen Topaguneko arduradunak. Esaterako, jaiak euskaratik eta euskaraz egin dadin bultzatzeko prestatuak daude kutzako zenbait material. Herrietako talde eta eragile ezberdinei banatu dizkiete kutzak, baina "jakinmina duenak" www.gau-beltza.eus webgunean kontsultatu ditzake xehetasun guztiak.

Kutzaren bultzatzaileek ez lukete "kontsumoa bultzatu" gura. Horren ordez, eredu jasagarria jarraitu gura lukete eta, adibidez, mozorroak etxeko arropa eta izarekin egitera bultzatu festa-zaleak. Azkenik, herri osoarentzat ez ezik, komunitateari zuzendutako ospakizuna izatea nahi dute; halere, Gau Beltza umeentzat "berezikiki erakargarria" izan daitekeela uste dute, eta ekintzen antolakuntza beraien esku geratu beharko litzatekeela.

Aramaion, hain zuzen, mozorro tailerra egingo dute gaur, etxeko txikienei zuzenduta. Ipuin kontaketa ere antolatu dute, eta Eskoriatzan ere izango da ipuin kontaketa entzuteko aukera. Horretaz gain, Aretxabaletan ere prestatu zituzten mozorroak -atzo- eta gaur, horiek jantzita koplak abesteko txanda izango dute herrian festazaleek.

Amaiera eman diote Hizkuntza Gidaritzari Buruzko Ikastaldiari

Hizkuntza gutxituetako hamasei ordezkari hilabete egin dute Aretxabaletan; 180 orduko formakuntza jaso dute

M.S. ARETXABALETA

Garabide elkarteak antolatutako Hizkuntza Gidaritzari Buruzko Ikastaldia egiten aritu dira Amerikako eta Afrikako hamar hizkuntza gutxitutako ordezkariak -denak ere gidaritza profilekoak-. Hilabeteko egonaldia egin dute, Aretxabaletan, eta asteon eman diote amaiera aurten bigarren egin duten formakuntza hilabeteari.

Amaiera ekitaldian, ikastaldia egin izanaren ziurtagiria jaso zuten ordezkariak, eta haiek, era berean, euren kulturekin lotutako opariak eman zizkieten ikastaroa aurrera eramateko Garabidek bidelagun izan dituen erakunde eta elkarteetako kideei. Horretaz gain, Garabidek egindako ahaleginari eta partaideek erakutsitako jarrerari esker, bigarren edizioa "bikaina" izan dela azpimarratu nahi izan zuten elkarteko lehendakari Iñaki Martínez de Lunak, guztiak izan baitute "zerbait" ikasteko aukera: "Ez da ikastaro hutsa, kultura eta hizkuntza ezberdinen arteko topagune bat baizik". Gaineratu duenez, arazoak, ilusioak eta asmoak partekatutuz dituzten heinean, esperientzia guztiontzat izan da aberagarria.

Hain zuzen, 180 orduko formakuntza intentsiboa jaso dute, eta Euskal Herriko hainbat herritar egin dituzte bisitak; guztiak, zerbait berria ikasteko asmoz. "Harrigarria da euskara askotariko lekuetan entzutea; egon garen lekuetan euskara entzun baitugu", adierazi du maputxe komunitateko Martin Hernandezek. Gaineratu duenez, norberaren hizkuntza biziberritzeko egin beharreko lana "handia" da. Nasa komunitateko Ana Delia Tenoriok, berriz, ikasitakoa "asko" dela nabarmendu nahi izan du: "Hemendik daramat gure hizkuntza indartzen jarraitzeko pentsamendua". Bere hizkuntza "ahul" dagoela ere aitortu zuen eta, beraz, bultzada behar duela zihoen, kezkatuta.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendari Paul Ortega ere izan zen ikastaldia amaiera ekitaldian, eta Garabidek egindako lana goraiatzeko aprobetxatu zuen hitzordua. "Beste hizkuntzen, herri indigenen, hizkuntzen alde sekulako lana egin dute".

Oholtza gainean abestuz eman zioten amaiera ekitaldiari; *San simon* eta *San juda* kantuak abestu zituzten elkarrekin.

Jasotako formakuntza

Ikastaldiak iraun duen hilabetean, partaideak alderik alde ibili dira euskararen errealitatea eta berau biziberritzeko ekimenak ezagutzeko, ikasitakoa haien hizkuntzak biziberritzeko baliagarria izango zaielakoan.

HAMAR HIZKUNTZA GUTXITUTAKO HAMASEI ORDEZKARIK HARTU DUTE PARTE IKASTALDIAN



Ikastaldian parte hartu duten ordezkariak eta antolatzaileak. TXOMIN MADINA

Gau Beltzaren baitako gaurko egitaraua

Arimen Gauda ospatzeko egitarau oparua antolatu dute herrietan.

Aretxabaleta

- **18:00** Gozoki eskea dendarik denda, mozorroa jantzita eta koplak abestuta.
- **19:15** Kalejira Durana kalean. Ondoren, ekitaldi nagusia.

Arrasate

- **18:00** Arimen Biltzerra gaztetxean. Kalejira plazatik hasita, kukumarro edo baserriar jantzita.

Aramaion

- **17:00** Mozorro tailerra kultura etxean, etxeko arropa eta izarekin. Ondoren, kaleak

apainduko dituzte etxetik eramandako kalabazekin.

- **18:30** Ipuin kontaketa saioa kultura etxean, Aitor Vinagret gasteiztarraren eskutik.

Eskoriatza

- **17:15** Huheziko aparkalekutik plazarainoko gozoki-eskea.
- **18:00** 3-7 urtekoentzako ipuin kontaketa liburutegian, Ines Bengoaren eskutik.
- **18:00** 8 urtetik gorakoentzat ibilbide beldurgarria, plazatik hasita. Linterna eraman.
- **19:30** Arima harrapatzaileak. Pertsonaia beldurgarriak agertuko dira plazan.
- **20:00** Sorgin edabea banatuko zaie haurrei, plazan. Edalontzia eraman.

- **20:00** 12 urtetik gorakoentzat film laburrak eta jolas beldurgarriak gaztelekuan.

Elgeta


- **19:30** Antzerki ibiltaria, hilerriko parketik abiatuta.

Bergara

- **21:00 eta 23:00** *Bautista*, *Bergarako leprosa* bisita gidatua.
- **Azaroak 1 eta 3** Laburmetraiak eta luzemetraia.
- **Azaroak 1,2,3** *Escape Room*-a kartzela zaharrean.

Oñati

- **17:00** Beldurrezko Etxea gaztelekuan, pertsonaia beldurgarriekin.



ATE sistemaren gainean egindako sustapen-bideoaren fotograma bat. ARTEMAN

Bisitariak erregistratzeko sistema berria, martxan

Oñatiko ULMA Pick To Light eta Bilboko Batura Mobile enpresek elkarlanean sortu berri dute ATE produktua –Visitor Entry System–. Erakundeei eta enpresei zuzenduta, bisita-erregistroak optimizatzen dituen soluzio digitala da

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Oñatiko ULMA Handling Systems-ek duen Pick To Light enpresarekin batera ATE –Visitor Entry System– produktua sortu du Bilboko Batura Mobile enpresak. Plataforma digital berri honek Smartcard-ak eta aplikazio bat erabiltzen ditu enpresek eta erakundeek jasotzen dituzten bezero edo hornitzaileen bisitarien datuak erregistratzeko. ATE izeneko sistema berri hau urrian atera zuten, eta dagoeneko ZIUR Gipuzkoako Zibersegurtasun Industrialeko

Zentro Aurreratuan eta Oñatiko ULMA Handling Systems enpresan instalatu dute.

Erregistro sistema digital bat da, praktikoa, intuitiboa, eta erabiltzeko erraza dena, eta berritzailea izateaz gainera, diseinu modernoa du, eta erakunde edo enpresa bakoitzera personalizatu daiteke.

Produktu digital berritzailea

Gotzon Arzelus Bilboko Batura Mobile enpresako gerentek adierazi duenez, "Ulmaren Pick To Light enpresa logistika eta

intralogistikara dedikatzen da. Japoniako AIOI Systems enpresaren kide da; Asian liderra bere sektorean. Produktu bat zein egoeratan eta non dagoen jakiteko soluzio digitalak bilatzen dituzte enpresendako. Honetarako, txartel berezi batzuk sortzen dituzte. Guk, berriz, industria 4.0, Nekazaritzako Elikagaien, Osasun, SmartCities eta Marketin sektoreetarako aplikazioak garatzen ditugu. Hala, beraiek egiten dutenari, beste erabilpen bat emateko asmoz, elkarlanaren aldeko apustua

egin dugu. Hala, ATE *app*-arekin, enpresako bisitak erregistratzeko sistema berritzailea sortu dugu, halako sistemarik gaur egun merkatuan ez dagoena".

Pribatutasuna oinarri

Gaur egun, erregistro gehienak eskuz egiten dira enpresa askotan, ilara-itxaronaldiak luzatu egiten dira modu horretan, kudeaketa eta informazio-banatzeko prozesuak bikoiztu eta erabiltzaileen datu pertsonalak babesgabe uzten dira. Hor lege urraketa bat gertatzen dela adierazi du Arzelusek, eta pribatutasunean salto bat dela beraien ATE sistema adierazi: "Halako soluzioak, kontrolekoak direnak egin beharrekoak dira, baina enpresa bateko harreraren dagoen pertsonak datuak betetzeko eskatu, edo nortasun agiria fotokopiatzen dizunean, askotan, koadernoan zure datuak jartzean zure aurretik egon denaren datuak ikusi ditzakezu, kompetentzia izan daitekeena edo... horrek pribatutasun legea hausten du bere horretan. Guk, horren aurrean, produktu digital berri bat osatu dugu, bisiten erregistroan pribatutasun legerik hausten ez duena, eta beste zenbait onura ere badituena. Zenbait enpresari ahoa betetzen zaie 'aro digitala, industria 4.0, irudia eman behar dugu' esanez, baina pertsona batekin lehenengo kontaktua dutenean huts egin eta legea hausten dute. Hala, enpresetan dauden bisitak behar bezala kudeatzeko soluzio digitala da ATE sistema".

ATE sistemaren onurak

Erabiltzaileen erregistro prozesua digitalizatzen da, enpresakoak ez diren baina eraikin barruan dauden pertsonen pre-

sentzia momentuan jakin daiteke, datuak era ziur batean lortzen dira eta enpresak baimendutako pertsonak bakarrik ikusi ditzakete; harrerako pertsonaren lana murrizten denez, eraginkorragoak diren lanak egiteko denbora gehiago du, bisiten edota ilaren itxaronaldia murrizten da, eta jasangarritasunarekin ere bat egiten du.

Lokaletik mundura

Batura Mobile eta Pick To Light enpresen aplikazioa, Espainiako eta atzerriko enpresen artean zabaltzea da beraien asmoa, behar global bat dela argudiatuz: "Plataformaren helburua datuen babesa bermatzea da, eta bisiten erregistroa paperez kudeatzen duten enpresei zuzendua dago, baita erregistrorik burutzen ez duten enpresei ere. Hori horrela, sistema ezagutzera emateko sustapen-bideo bat egin dugu, Arteman enpresak ekoitzi duena".

Informazio gehiagorako

ATE aplikazioaren gaineko informazio gehiago nahi duenak ate@baturamobile.com helbide elektronikora idatzi dezake.

"BISITA-ERREGISTROAK OPTIMIZATZEKO SOLUZIO DIGITALA DA"

"MERKATUAN EZ DAGO ATE SISTEMA MODUKORIK"

"ATE-REN HELBURUA DATUEN BABESA BERMATZEA DA"

GOTZON ARZELUS, BATURA MOBILE

Bailarako erretiratuen oinezko martxa Antzuola ezagutzeko

Bi ibilbide egingo dituzte: luzea, 7,7 kilometrokoa eta motza, berriz, 5 kilometrokoa izango da

I.B. DEBAGOIENA

Debagoieneko erretiratuen eta pentsiodunen elkarleen martxa antolatuko du azaroaren 7rako. Eskualde mailako elkarleen arteko harremana sendotzeko, bailarako inguruak ezagutzeko eta

Debagoieneko ikuspegia indartzeko asmoa du egitasmoak.

Horretarako, *Antzuola ezagutzen, Debagoieneko jubilatuen martxa* izenpean, bi martxa egingo dituzte, Landatxoperen egoitzatik –Torresoroa eraikina– ir-

tenda. Bi ibilbide izango dira: luzea eta motza, biak 09:30ean Landatxopetik irtenda.

Ibilbide luzea

7,7 kilometrokoa bidea izango da, eta, Landatxopetik irtenda, Aristi Berri eta Iturriotzerako bidea hartuko dute. Bertan, trenbidea hartu, eta martxa motzekoekin batera Laskurain baserriraino joango dira bi martxakoak elkarrekin. Trenbidea utzi eta Akiñabeiko errota igaroko dira guztiak batera eta, bide batez, erro-

taren funtzionamendua azalduko die bere jabeak. Errotan, salda gozoa hartzeko aukera izango dute, gainera. Bakoitzak eraman dako hamarretakoa ere bertan jan ahal izango dute. Laskurain baserrira itzuliko dira gero, eta ondoren, ibilaldi luzeakoa Kaxe-tara igaroko dira trenbidetik eta amaizteko herrira itzuliko dira.

Ibilbide motza

5 kilometrokoa bidea izango da, eta hauek ere Landatxopetik irtenda, Iturriotz baserrira autoz

joango dira. Han martxa luzeakoe-kin elkartu, eta Iturriotz-Laskurain-Akiñabeiko errota-Laskurain bidea egin ostean, zuzenean herrira jaitsiko dira.

Parte hartzaileen kopurua ez mugatzeko eta antolaketa errazteko, bakoitzak bere hamarretakoa eramateko eskatu dute antolatzaileek, eta errotan eskainiko duten saldaren prestaketarako zenbatek parte hartuko duen jakiteko, landatxope@hotmail.com idatziz aditzera emateko eskatu dute.



Eduardo Zubiaurre Goiena telebistako *Harira* saioan izan zen martitzenean. IBAI ZABALA

"Ez dago arrazoirik objektiborik greba orokorra deitzeko"

EDUARDO ZUBIAURRE CONFEBASK-EKO PRESIDENTEA

Uztailean izendatu zuten Eduardo Zubiaurre (Eibar, 1962) Confedebaskeko presidentea. Elgetan bizi den enpresaburua Adegiko presidentea ere izan zen 2006tik 2012ra

Eneko Azkarate Laspiur GOIENA

Eduardo Zubiaurre Confedebaskeko presidentea Goiena telebistako *Harira* saioan izan da asteon. Berbagai izan ditu enpresen lehiakortasuna, lan gatazka, mundu mailako ziurgabetasun egoera eta Konfekoopen eskaera Lanbiden sartzeko.

Ekonomia moteltzera doala esaten dute azken datuek. Hazkunde ziklo baten amaieran egon gaitzke?

Agerikoa da ekonomiaren hazkunde moteldu egin dela. 2014tik hona ibili gara hazten %3. Eta

aurtengo aurreikuspenek diote %2ko hazkunde izango dugula, 2018an, eta datorren urtean txikiagoa. Munduko gatazken ondorioa da eta kezagarria da. Autogintza sektorean, esaterako, hasi dira sufritzen.

"GAZTEEN ERABAKI AKADEMIKOAK ETA ENPRESEN ESKARIEDO PREMIAK EZ DATOZ BAT"

Ze pisu dauka autogintza sektoreak euskal ekonomian?

Industria ekoizpen osoaren laurdena da autogintzakoa. Eta industriaren pisua gure ekonomiaren erdia da, gutxi gorabehera. Hortaz, inportantea da. **Mugikortasunaren paradigma aldatzera doala ematen du: geroago eta auto gutxiago erosiko direla, auto elektrikoa gailenduko dela. Aldaketa horretarako gertu daude hemengo enpresak?**

Gizartearen ohiturek, batetik, garapen teknologikoak eta di-

gitalizazioak, bestetik, eta inurumen kontuek, azkenik, bultzatuko dituzte aldaketa sakonak. Horretarako gertatzen ari gara. Ziurgabetasunik eza nabari da une honetan, kontuak ez daude argi eta ez dakigu ziurtasun osoz hemendik urte batzuetara zein izango den egoera. Ikusten da aldaketa datorela, baina kezka eta zalantzak dira nagusi. Esaterako, auto elektrikoa etorkizuna dela entzuten ari gara, baina hor ere zalantzak handiagoak dira ziurtasunak baino.

Brexit-a aukera ere izan daiteke euskal enpresendako.

Une honetan, epe motzera, arazo, ziurgabetasunagatik, batik bat. Erresuma Batua euskal enpresen sozio inportantea da, harreman komertzialetan hirugarren bezero inportanteena. Lehen bolada hau pasatzen dezan sor daitezke aukerak.

Zer behar du euskal enpresak gaur egun. Langile kualifikatuak falta dituzuela diozue, baina ze profiletako langileak behar dituzue?

Europa osoko arazoa da. Demografia kontuengatik geroago eta gazte gutxiago dago, gizartea zahartzen ari da. Hortaz, kopurua da lehen arazoa. Eta bestea da teknologiei esker industrian ere gertatzen ari diren aldaketak, eta aldaketa horiei aurre egiteko enpresek behar dituzten langile kualifikatu gutxi daudela. Gazteen erabaki akademikoak ez datoz bat enpresen eskariekin. Hor arazoa dugu.

Debagoiengan, ordea, lanbide heziketa eta ingeniarietza eskola inportanteak ditugu.

Hor ikasten dutenek lana izango dute ziur, baina profesional tekniko kualifikatu gehiago behar dituzte euskal enpresak. Ari gara, erakundeekin batera, hainbat ekimen bultzatzen gaiaren gaineko diagnostiko zuzena egin eta, esaterako, gazteei orientazio egokia emateko.

2008ko krisiaren aurreko lan baldintzak behin betiko joan ziren?

Enpresaren eta sektorearen araberakoa da hori. Eskualde hau eta Gipuzkoako barrualdekoak, oro har, industrialak dira eta

"KOOPERATIBEI, LEGEZ, EZ DAGOKIE LANBIDEN EGOTEA; EZ DA HAIEN MUNDUA"

sektore horretan baldintzak berreskuratzen ari dira.

Industria sektorean bereziki sindikatuen eragina agerikoagoa delako?

Ez dut gutxietsi nahi sindikatuen lana, baina enpresen eta langileen egoera ona bada, enpresak lehiakorrek direlako da. Ez dago beste arrazoirik. Eta enpresa lehiakorrek lortzeko ezinbestekoa da agente ezberdinen arteko diagnostiko partekatua, elkarriketa, hitzarmena... Proiektu partekatua komunik barik, ezinezko dira enpresa lehiakorrek. Confedebasketik ari gara bultzatzen beste modu bateko enpresen kudeaketa eta parte hartzea.

Urtarrilerako greba orokorra deituta dute sindikatu nagusiek. Ze iruditzen zaizu?

Txarto. Izan ere, gaur egun, hemen, ez dut uste dagoenik arrazoirik objektiborik horrelako neurri bat hartzeko. Inguruko langabezia tasarik txikiena, soldatarik handienak... Egia da badela jendea txarto pasatzen dagoela. Horiendako politikak edo ekimenak egin behar dira, baina greba orokorra ez da irtenbidea.

Confedebasketik ez du nahi Konfekoop Lanbiden egotea. Zergatik?

Erakunde publikoek, enplegatuen ordezkariak edo sindikatuek eta enplegatzaileen ordezkariak edo enpresaburuek egon behar dute Lanbideren administrazio kontseiluan. Hori dio legeak. Horrenbestez, kooperatiben elkarte batek ez du tokirik bertan. Kooperatibak, izaeraz, autonomoak dira. Jabe eta langile, era berean, baina arlo laboral eta sozialean, autonomoak. Eta hori ondo araututa dago legez. Ez dagokien erakundea da Lanbide; ez da haien mundua.

Eusko Jaurlaritzak une honetan ari da aurrekontu proiektua lantzen. Gustuko duzue?

Aurrekontua ezagutzeko aukera izan dugu Ogasun sailburuaren edo saileko arduradunen bidez. Eta gustuko dugu. Industria, lehiakortasuna, ikerketa eta garapena, enplegua... hala-koak jasota daude zati eta inbertsio inportanteekin. Ikuspegi ekonomiko-enpresarietetik begiratuta, aurrekontu onak izango lirateke. Orain, norekin onartu beharko dituzten? Ez gara horretan sartuko. Guretako, inportantea da egonkortasuna eta ziurtasuna.



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Errealitate birtuala

Ministerio del Interior adiera euskaratu zutenean Barne Arazoetako Ministerioa izendatu zuten. Espainolez problema jarri ez arren, arazoa jarri zuten euskaraz.

Arazotzat gauzkate, baina benetako arazoa guk daukagu beraiekin. Espainia deituriko herrien kartzelan gu baikaude preso, ez beraiek. Eta presondegia hori mantentzeko edozer egiteko prest daude, Katalunian ikusi dugun bezala.

Estatu baten izaera bere jatorriak markatzen du. Mundu mailako estatu asko iraultza herritarren bidez sortu dira, baina Espainiaren sorrera beste herri batzuen konkistan oinarrituta dago. Farola tarteko, horixe ospatu zuten Hispanitate egunean, herri indigenen konkista eta txikizioa. Amerikar herriak Espainiako kartzelatik askatu ziren sikiera, baina guk preso jarraitzen dugu.

URKULLUK EH BILDURI BEHIN ETA BERRIZ ESKATZEN DIO HILTZEA GAIZKI EGON ZELA AITOR DEZAN

Eta bitartean, Urkulluk hemen dena ondo doala esaten digu. Urteak daramatza Espainiaren benetako aurpegia makillatzen eta errealitate birtual bat elikatzen. Eta atentzioa desbideratzeko EH

Bilduri behin eta berriz eskatzen dio hiltzea gaizki egon zela aitor dezan.

Josu Jon Imazek, EAJko buruzagitzatik Petronorrera joan aurretik, honela zioen 36ko gudariez: "Eusko Gudariak kantuaren bertsoa entzuten dudana bakoitzean, zuek zaituztet buruan. Euskadiren alde prest odola, prest bizitza. Zeuen bizitza emateko. Sekula ere ez inori bizitza kentzeko. Zuek bake-jendea zineten". Intxortako frontean borrokatu zirenek ez omen zuten inor hil. Errealitate birtuala.

Urkullu jauna, ez orduko gudariek ezta ondorengoek ere ez dizute esango hiltzea ondo dagoenik. Zuek ere ez duzue inoiz esango torturatzea ondo dagoenik. Baina batzuek egindakoa onartu eta eragindako mina aitortu duten bitartean, zuek oraindik ez duzue aitortzarik egin. Eta hau ez da errealitate birtuala, Ertzaintzaren eskutik tortura sufritu zuen honek esaten dizu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Nazien garaipen luzea

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Eta naziek irabazi izan balute? Dystopia horretan oinarritzen dira hainbat liburu, film, komiki. Baina fikzioa ez da ezinbestekoa. Naziek garaipen handiak lortu zituzten, gaurdaino luzatzen direnak.

Ferraran juduak bilatzen ibili naiz. Italiako hebrearrentzat hiri berezia da: gutxienez, Erdi Arotik daude han; 1492an Espainiatik egotzitakoek ere babesa aurkitu zuten bertan; euren erlijioa mantentzeko, kargu publikoetan jarduteko eta libre bizitzeko aukera eman zieten, Aita Santuak Ferrarako Dukerria menpean hartu eta

1627an ghettoa ezarri zuen arte. XX. mendean libre eta oparo bizi izan ziren berriz ere: oasi burges, liberal, intelektual bat. [...]

Sinagoga itxita topatu dut, ghetto zaharrean ez dago egungo juduen pitarik, hilerri hebrearreko zaindaria andre katoliko bat da. "Juduak gutxitan etortzen dira", azaldu dit, "oso gutxi direlako, 80 bat edo. Eta etortzen direnean... azken bidaia izaten da, ulertzen didazu, ezta?". Gazte gutxi batzuk ere badira oraindik. Apirilean, Ferrarako eskola batean, 11 urteko hiru mutilek gelakide judu bat bultzatu, jo eta iraindu zuten: "Auschwitzeko labeak zabalduko ditugu juduak

bertara botatzeko". Umearen ama oso kezkatuta agertu zen: "Umekeriak direla esaten didate, baina non ikasi dituzte halako mehatxu zehatz eta krudelak?". Italian ultraeskuinak haizatu duen giroan, arrazismoa eta antisemitismoa burua ateratzen ari dira lotsarik gabe.

Europar 9,5 milioi judu zeuden 1933an. Orain, 1,5 milioi. Ferraran hebraismoaren museoa zabaldu dute, holokaustoaren berri emateko, bai, baina baita nazi eta faxistek garaipen luzeak lortu zituztela gogoratzeko ere.

Post gehiago 11. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereizbar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Goiena eta MU elkarrekin aritzea ezinbestekoa da"

GOIO ARANA MU-KO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO CAMPUSEKO ZUZENDARIA

Eneko Azkarate ARETXABAETA
Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak lankidetzak hitzarmena sinatu berri dute. Aretxabaletako Ikus-entzunezko Komunikazioko departamentuko zuzendariak dihardu hitzarmenaren gainean.

Lankidetzan ari dira orain dela urte batzuk MU eta Goiena. Gustura zaudete elkarlan horrek emandakoarekin?

Bai, bai. Esan genezake komunikazioaren munduan lanean diharduten Debagoieneko bi kooperatiba enpresa, ezinbestean, elkarrekin lan egitera behartuta-edo daudela. Osagarriak gara eta aspaldiko harremana sakonduz joan da urteek aurrera egin ahala. **Ze espero du MUK Goienatik?** Elkarrekin lan egitea. Esaterako, 2Deo Tabakalerako ikus-entzunezkoen laborategiaren proiektua MUK



Goio Arana, MUREn Aretxabaletako campusean. UNAI PORTILLA

eta Goienak elkarrekin egindakoa da. Eta gure ikasleek egiten dituzte proiektuak edo praktikak Goienan. Horretaz gain, Goienako profesionalen jakintza gure fakultatean

zabal daiteke; egin izan dugu hori. Gizartea, hezkuntza, digitalizazioa, kooperatibismoa... izan daitezke beste lankidetzak esparru batzuk, ikus-entzunezkoetatik harago.

Ze profiletako profesionalak eskatzen ditu ikus-entzunezko komunikazioaren merkatuak?

Guretako, inportanteena ez da menderatzea tresnak edo gaur egungo komunikazioko baliabideak; inportantea izanik ere, horiek aldatzen doaz. Guretako, inportanteena da oinarriko jakituria, konpetentziak: taldean lan egitea, kritiko izatea, sormena, berrikuntzarako edo aldaketarako prestutasuna... **Praktiketarako toki aproposa da Goiena MUKo ikasleendako?** Oso aproposa, hurbiltasun geografikotik harago. Izan ere, Goienaren izaera multimedial ahalbidetzen baitu gure ikasleek praktika osoa jasotzea. Eta ikustea gaur egungo komunikazio eta informazio enpresek edo hedabideek informazioa zabaltzeko modu ezberdinak dituztela.

Goienako profesionalak ere alor jakin batzuetan hezi daitezke MUKo Aretxabaletako campusean?

Bai. Aretxabaletako campusa da ez bakarrik gradu bat ikasteko tokia, baizik eta komunikazioarekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzen dituen gunea. Ikastaroak, hobekuntza prozesuak, aholkularitza... Halakoak egiten bagabilta.

HAU BE BADOGU!

'Brexit'-ak badu epemuga berria



2020ko urtarrilaren 31 da *brexit*-erako epemuga berria. Izan ere, Europako Batasunak baiezkoa eman dio lehen ministro Boris Johnsonekin eginiko luzapen eskariari. Mundu mailan *trending topic* izan da gaia, Erresuma Batuko hauteskundeak aurreratzeko eskaria egin dute-eta sare sozialetan: @SA_Aitor: "Erresuma Batuko hauteskundeak egingo ditu abenduan. Boris Johnson lehen ministroaren nahia zen, eta oposizioaren babesaren izan du azkenean".

Hauteskundeak, berriz ere pil-pilean

Espainiako hauteskundeak berriro gertu dauden adibide argia da gaztelerazko #10N traola *trending topic* izan dela: @EGuruzeaga: "Datozen hauteskundeen ondoren ze alderdik blokeatuko du gobernu baten eraketa berriro ere hauteskundeak errepikatzea bultzatuz? Nire botoa harentzat...".

@xa2lo: "Botoa emanda! Posta bidez bozkatu dut #10N #A10 #hauteskundeak #hauteskundeorokorrak".

Durangoko Azoka, gero eta gertuago

54. Durangoko Azokaren kartel berria aurkeztu zuten eguaztenean, eta, urtero moduan, gaia bolo-bolo ibili da sare sozialetan:

@OierZuniga: "Aurkeztu dugu 54. Durangoko Azoka. Kartela sortzeko aukera izan dut. Plazera! @Gerediaga".

@DurangokoAzoka: "#54DA Durangoko Azokan ekosistema propio eta bizidun bat sortzen da. Eta osatzen dugu. Etengabe mugitzen dena. Azken finean #OsorikDA".

ITURRI ONETIK

Gipuzkoako Zuri-gorri Eguna Oñatin, 2020an

Datorren urteko Gipuzkoako Zuri-gorri Eguna Oñatin egingo dute ekainean. Duela urte bi Elgetan egin zuten, Intxortako Lehoien 10. urteurrenean. Jose Angel Iribar, Koikili Lertxundi eta Carmelo Cedrun jokalaririk ohiak izan ziren eta Haritz Gallastegi kazetari elgetarra omendu zuten. Aurtengoa, IV. festa, hain zuzen ere, Eibarren ospatu dute. "Athleticetik Gipuzkoan dituen lagunartean kezka ondorioz sortutako ekimena da", Athleticetik adierazi dutenez.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-10-20

Kantari karaoke ikuskizuna hasi zen Oñatin

Duela 12 urteko urrian hasi zen Kantari karaoke ikuskizuna, "herriz herri". Oñatin hasi eta eskualdeko herririk nagusietan. 600 lagunek eman zuten izena lehen edizio hartan. Telebista saio ere bihurtu zen hasieratik. Debagoieneko neska-mutiko belaunaldi ezberdinen topaleku, gaur egun oraindik ere jarraitzen du eta mugak gainditu ditu, Donostian eta Gasteizen ere egiten baita. Abesti berri eta guzti.





DEBAGOIENA ERALDATZEN

LANDER JIMENEZ INGURUGIRO INGENIARIA

Debagoiena eta injustizia klimatikoa

Azkenaldian asko hitz egiten da pertsonen mugimendua murriztu nahi duten harresien gainean. Herri industrializatuen aberastasuna bermatu nahi duten harresiak dira horiek, baina betaurreko ekonomikoak alde batera utzita, ingurugiro betaurrekoak jartzeko kapaz bagara, orduan, pertsonen migrazio hauetan injustizia klimatikoaren aurpegia ikusten dugula jabetuko gara, eta aurpegi horiek begiek guretarazuzenean begiratzen dutela. 2018an, herri industrializatueta, munduko biztanleen %15 baino ez ginen. Zein da gure ardura migrazio klimatikoetan, ba? Honen erantzuna sakonki ulertzeko geure planetaren historian murgildu behar dugu. Izan ere, 4.600 milioi urteotan naturaren eta klimaren arteko harreman estua ulertzen laguntzen digute glaziazioek eta gu baino aurretik bizitako espezie ezberdinek. Dinosaurioak, adibidez, duela 65 milioi urte desagertu baziren ere, 160 milioi urtez bizi izan ziren, nahiz eta gu baino burmuin txikiagoak izan. Haiek, aldiz, denbora hartan guztian ez zuten guk azken 150 urteotan eragin dugun kaltea eragin. Ez dago konparatzerik.

Industria iraultzaren eraginak

Industria iraultzak munduan izandako eraginak –karbono isurketen handitze harrigarriagatik– larrialdi klimatiko honetara eraman gaitu. Berotegi efektuko gasak dira klima aldaketak sorrarazten dituztenak: lehorte garai luzeagoak, ekaitz eta klima larrialdiak... Klima aldaketa areagotzen dugu berotegi efektuko gasekin eta ondorioak jadanik herri txiroenetan ikusten ditugu, hainbat hildako eragiten dituzten uholde eta lur mugimenduekin. Hain



LI-AN-LIM / GMK

zuzen ere, halako adibide batzuk ekarri genituen irailaren amaieran, Gizabideak gonbidatuta, LKS KREANeko Mikel Cepedak eta biok Kulturaten egindako hitzaldira. Hain zuzen ere, herri ezberdinetan larrialdi klimatikoak eragindakoaren adibideak ekarri genituen. Besteak beste eta zoritxarrez, nola modelo klimatikoak bizitzak ipintzen dituen arriskuan. Chennaiko hirian gertatutakoa da adibide bat, 500 hildako baino gehiago eragin zituzten uholdeak sortarazi baitzituen han klima aldaketak. Eta noiz hasiko dira beste herrietako

PERTSONEN MIGRAZIOETAN, INJUSTIZIA KLIMATIKOAREN AURPEGIA AGERI DA

biztanleak geurera etortzen? Eta zergatik etorriko dira geurera? Erantzuna argia da. Izan ere, herri industrializatueta ez dugu larrialdi klimatikoa horrenbeste sufritzen eta horrek eragingo du hegoaldekoak iparraldera etortzea. Baina zergatik arduratu behar dugu guk besteen larrialdiaz? Larrialdia eragin dutenak ardura daitezela, ezta?

Debagoiengan, zer?

Naturaren errekurtsoen kontsumoa eta biztanle bakoitzeko isurketak konparatzen ditugunean

GURE BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ERAGINA ASETZEKO, IA LAU PLANETA BEHAR GENITUZKE

ezberdintasunak nabarmenak dira. Bereziki, Europak, Ipar Amerikak eta Ekialde txikiak sortzen dituztenak biztanle bakoitzeko planetak jasan dezakeena baino gorago daudelako. Halaber, datu hauek Debagoienara ekartzen baditugu, injustizia klimatikoarekin aurrez aurre egingo dugu. Bagara inizatibak argitaratutako datuen ondorioak argiak dira. Mundu osoko biztanleek Debagoieneko biztanleen bezain besteko isurketak sortuko balituzte, ez

ERRAZ ULERTZEN DA GRETA THUNBERGH-EN ETA MUNDUKO GAINONTZEKO GAZTEEN HASERREA

ginateke planeta bakar honekin moldatuko. Geure berotegi efektuko gasen eragina asetzeko ia lau planeta beharko genituzke. LKS KREANek garatutako txostenak adierazten duenak argi adierazten du Debagoienak injustizia klimatikoan duen ardura. Debagoienak historikoki aurre egin die giza injustizia desberdinei eta sentsibilitate handiz, ekinez, sortu ditu eredu berriak. Geure etorkizunak gauza bera eskatzen digu eta honi aurre egiteko betaurreko ekologikoak jartzen ikasi behar dugu. Ikuspegi berri hau hartzerakoan erraz ulertzen da Greta Thunbergh-en haserrea eta baita mundu osoan mobilizatzen ari diren gazteena ere.

GUTUNAK

Elkarbizitza**LILIANA POSADA**

DEBAGOIENA

Ni Liliana naiz, 42 urteko emakume boliviarra.

Testu hau idaztera animatu naiz –hemendik eskerrak itzultzaileari–, elkarbizitza errealago bat sortzeko esperantzarekin.

Eta, horretarako, hausnarketa egitea beharrezkoa dela iruditzen zait.

Orokortze batetik abiatuz hitz egingo dudan arren, badakit hemen, munduko beste txoko guztietan bezala, denetariko jendea dagoela.

Kontua da ez dugula elkar ezagutzen, eta honek beldurak eta gezurrak sortzen ditu.

Euskal Herrira iritsi nintzenetik, gu guztion

errealitatean bi mundu paralelo daudela sentitzen dut.

Soilik gure eskulanaren beharra dagoenean elkartzen diren bi mundu.

Guk, etorkinok, gehienetan emakume etorkinok, zuen aita-amak zaintzen ditugu, ahalik eta hobekien eta maitakorren, guk zuen etxeak eta negozioak garbitzen ditugu; eta hauek dira gure arteko topaleku bakarrenetariokak.

Askotan, prekarietatez blaituta dagoen elkartruke ekonomikoa.

Nik, ordea, bestelako harremanak igartzen ditut faltan.

Onartzen dut norbere komunitatearekin elkartzeko joera dugula.

Baina ez da batere erraza beste modu batean egitea.

Ba al dakizue zer den etxe bila aritu eta "latindarrak ez" entzutea ?

Edo kalean mespretxu aurpegiak jasotzea?

Gu ez gatoz hona gustuz, behararen beharrez baizik.

Eta, tamalez, ezin dugu hau inoiz ez burutik ez bihotzetik kendu.

Nire ilusioa da hurrengo belaunaldiek, seme-alabak hemen ditugunok, zuen haurrekin benetako laguntasun harremanak eraikitzea.

Honetarako, guztion topaleku izango diren ekimen, eskola, kale eta plazak beharrezkoak ditugu.

Elkarbizitza egongo bada, harreman emozionalak sortzea ezinbestekoa izango baita.

Bide horretan topo egingo dugulakoan...

HANDIK ETA HEMENDIK

Ospitalea**LARA IZAGIRRE**

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Duela pare bat hilabete, ospitale barruan hasi nuen nire bigarren film luzearen grabaketa. [...]

Euskal Herrian grabatzen ibili gara zazpi astetan zehar eta, nire lehenengo pelikulan gertatu zen bezala, bigarrenean ere, konturatu gabe heldu da azken klaketa.

Ospatzeko: grabaketa amaierako afaria, festa, sorpresak, dantzak, gintonicak, azken asteetan familia izandakoekin besarkadak, desafinatzeak, agurrak, dardo txapelketa, barreak, breakdance saiakerak... Goizaldeko lauretan etxera.

Iratzargailu gisa, amaren telefono deia. *Amama ospitalean da. Zer gertatu da? Dena ondo dago. Amama zaintza intentsiboko box batean dago, ordu batean joan zaitezke bisitan. [...]*

Ondo dago amama orain, etxean atsedean hartzen. Pila bat jarri omen diote bihotzaren ondoan. Azkenaldian baino azkarrago hitz egiten du. Bere ospitaleko abenturak kontatu eta gero, nire lanagatik galdetu dit, ea amaitu dudan hainbeste buruhauste sortu dizkidan pelikula. Grabaketa amaitu dudala esan diot, baina filma amaitu arte asko geratzen dela. Irribarre egin du eta pentsakor geratu da hormari begira. Zineman egiten duten bezala, atsedean dramatikoa egin du amamak eta begietara begiratu dit bere esaldia esan aurretik: *Ikustera joan beharko gara.*

Ez dut negarrik egin amama ez arduratzeko. Baina ederra izango da berarekin aretora joatea, aurreko pelikularekin egin nuen bezala, eta bere eskua heltzea filma ikusten duen bitartean. [...]

Post gehiago 8. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrezkoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Helburu on baten alde, bibotea uzteko gertu

Mondravember taldeko kideek zorrozuta dituzte artaziak azaroak iraun bitartean bibote elegantea edukitzeko. Azken urteetan legez, gizonezkoei eragiten dieten gaixotasunen aurka dirua batzen ahaleginduko dira hainbat ekintzaren bitartez

Xabi Gorostidi ARRASATE

Askori, jada, ezaguna egingo zaie Movember mugimendua, baina norbaitek ezagutzen ez badu, honela definitzen dute euren burua: "Nazioarteko ongintzako erakundea da Movember, gizonezkoen bizitza alaiagoa, osasungarriagoa eta iraunkoragoa izatea helburu duena". Mugimendua 2003an sortu zen, eta ordutik, barrabletako minbiziarekin, buruko gaitzekin eta jarduera fisiko gabeziarekin lotutako hainbat ikerketa finantzatu dituzte.

Arrasateko bibotedunak

Arrasateren kasuan, duela lau urte hasi ziren Movember mugimenduarekin bat egiten. "Lehen bi urteetan hainbat lagun aritu ginen, baina izen propiorik gabe. Lehen ekitaldi haietan, 400 euro inguru batu genituen, eta batutako guztia Movember plataformara bidali genuen. Baina diru hori ez dakizu konkretuki zertan erabiliko den, eta nahiago genuen diru hori jasoko zuen erakundea guk geuk erabakitzea. Hala, iaz, lehen aldiz, Mondravember bezala funtzionatzen hasi ginen".

Iaz, parte hartzeak eta batutako diruak gora egin zuten. 35 lagun inguruk egin zuten ekimenarekin bat, eta aurreko ur-




Iazko Mondravember egunean ateratako familia argazkia. MONDRAVEMBER

teetan baino hiru aldiz diru gehiago batzea lortu zuten.

Ekintza ugari, elkarlanean

Aurten, hazten segitzeko asmoz, ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute Mondravemberkoek; horietako asko, herriko elkarte eta dendekin elkarlanean. Gaur, adibidez, King's ile-apaindegian moztuko dituzte biboteak, eta bertako ugazabak doan egingo du lan hori. Horrez, gain, Ibai-Artarekin adostu dute komertzioen ateetan biboteak jartzea, jendeak Movember aldia martxan

dagoela jakin dezan. Bihar, zapatua, Mojategin egongo dira Mondra eta Amaikak Bat taldeen arteko neurketan, sarrerako dirua batzen, eta baita tabernan lanean ere. Hala, egunean batutakoaren %50 emango die Mondra taldeak, eta euren kabuz 3.000 errifa saltzeko asmoa ere badute. Azaroaren 16rako, egun-pasa antolatu dute Bergarako Movember taldearekin batera Elorregin, eta kirola eginez bertaratuko dira bi herrietako bibotedunak: bizikletan, oinez, takarraran eta baita patinetan ere.



Biboteak kendu ostean, CIC Biogunen diru ekarpenak egiten. MONDRAVEMBER

1.200 euro batu zituzten iaz

Iaz, azaroan, txartelak salduz 1.200 euro batu zituzten Mondravemberkoek. Hala, kopuru hori CIC Biogune kooperatibara bideratu zuten, bertako ikerlari Arkaitz Carracedok prostata minbiziaren aurka egiten ari den ikerketan erabilitzeko.

2019ko Mondravember egitaraua

Azaroak 1, barikua

Mojategin egongo dira, Mondraren partiduan. Sarrerako dirua batzen eta tabernan zerbitzatzen ariko dira, eta Mondrak batutako diruaren erdia emango die.

Azaroak 16, zapatua

Elorregin egun pasa egingo dute Bergarako Movember taldearekin batera. Kirola eginez bertaratuko dira bi herrietako bibotedunak.

Azaroak 27, eguaztena

CIC Bioguneko Arkaitz Carracedo ikerlariak eta Markel Irizar txirindulari ohiak *Minbiziaren lehena eta geroa* izeneko hitzaldia egingo dute: 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

Azaroak 30, zapatua, Mondravember eguna

- **08:30:** Kurtzetxikira mendi irteera.
- **12:00:** Herriko Plazan elkarretaratzea eta Mondravember familiaren talde-argazkia. Ostean, triki-poteoa alde zaharrean.
- **14:30:** Lagun bazkaria, Txalaparta elkartearen. Txartelak erosteko azken eguna: azaroak 15.
- **17:00:** Umeentzako puzgarriak Seber Altube plazan.
- **19:00:** Letagin eta Los Corcones musika taldeen kontzertuak, Seber Altube plazan.

Sasoibide bueltan da

Iaz ekin zioten oinezko ibilaldi osasungarriak egiteari, eta, atsedendaldi txiki baten ostean, berriz hasiko dira. Datorren ostegunean, azaroak 7, lehen hitzordua egingo dute -10:00etan Biterin- eta hortik aurrera ostegunero elkartuko dira, hankei pixka bat eragin eta elkar hobeto ezagutzeko. "Ea iaz baino jende gehiago elkartzen garen".



GOIENA

OHARRAK

1974an jaiotako bazkaria, azaroaren 30ean

Herriko Plazan egin dute hitzordua, 12:00etarako. Joateko, sartu 50 euro ES63 3035 0001 51 0010143906 kontu zenbakian.

1967an jaiotako bazkaria, azaroaren 23an

Interesa dutenek, sartu 60 euro ES12 2100 1972 0102 0013 4059 kontu zenbakian.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astlehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

Odol emateak, gaur eta martitzenean

Gaur, Laubiden; azaroaren 5ean, anbulatorioan (16:30-20:00).

Lau begirada mamitsu Arrasateko historiari

Arrasate Zientzia Elkarteak prest du, zortzigarren aldiz, 'Iragana astintzen' izeneko hitzaldi sorta, Arrasateren historian sakontzeko. Lehen hitzaldia Ana Ugaldek eskainiko du, XV. mendean bertsoariatik gertu egon zen obra baten inguruan

Xabi Gorostidi ARRASATE

AZEko lagunak prest dute *Iragana astintzen* hitzaldi zikloaren beste edizio bat eta Arrasateko historian sakontzeko nahi dutenek horretarako aukera paregabea edukiko dute azaroko eguaztenetan, Kulturaten, 19:00etan. Milia Lasturkoari buruz idatzitako eresiak bertsoariaren hastapenak izan ote ziren argitzeko hitzaldiarekin irekiko du zikloa Ana Ugaldek. "Milia Lasturkoa Arrasateko gizon batekin ezkondu zen. Baina ez zen maitasun historia eder bat izan; guztiz aurkakoa baizik. Gizonak ez zuen maite, eta besta andre batzuekin en-



Barrutiabengoa, Bengoa, Askasibar eta Garai, aurtengo kartela erakusten. M. SANTOS

gainatzen zuen. Hala, Milia atsekabez josita hil zen eta haren ahizpa zen Santxa Ozaetakoak Miliari buruzko eresi batzuk sortu zituen. Horiek bertsoariarekin izan dezaketen lotura aztertuko du Ugaldek", azaldu du AZEko kide Jose Angel Barrutiabengoa.

Bigarren hitzaldian, Arrasateko biolin-jole handi bati buruz jardungo du Jose Mari Velez de Mendizabalek: "Albina Madinabeitiak sekulako musikari ibilbidea egin zuen, nahiz eta XX. mendean emakumeek ez zuten horretarako aukera handirik izaten. Orkestra Nazionaleko lehen biolin-jole izan zen urte luzez, eta behin erretiroa hartuta, Arrasatera itzuli zen bere jakintza herriko ikasleengan zabaltzeko".

Azken bi hitzaldiei ere ez zaie mamirik faltako: hirugarrenean, Koldo Larrañagak Juan Bautista de Villareal Gamboari buruzkoak jorratuko ditu; eta azken hitzaldian, aldiz, Erdi Aroko Arrasateri buruzko doktore tesia egin zuen Jose Angel Achonek orduko argazki orokor bat ateratzeko saioa eskainiko du.

'Iragana astintzen': egitaraua

Azarok 6, eguaztena

• **Santxa Ozaetako, Milia Lasturkoren egileak, andre bertsoariak ote?**
Hizlaria: Ana Ugalde.

Azarok 13, eguaztena

• **Albina Madinabeitia: mujer, y sin embargo, artista excepcional**
Hizlaria: Jose Mari Velez de Mendizabal.

Azarok 20, eguaztena

• **El éxito de un arrasatearra en el barroco**
Hizlaria: Koldo Larrañaga.

Azarok 27, eguaztena

• **Arrasate en la Edad Media**
Hizlaria: Jose Angel Achon Insausti.

RPS: 214/15

AMAGARA

Estetika Zentroa

Azal argitsua udako eguzkiaren ostean

Shock zikloa:

azala indartzea eta birsortzea

Eskaintza berezia:

3 saio + 1 opari

Emaitza distiratsuak hilabeteren buruan

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

"Errespeta ditzagun gure bazter naturalak"

Azkenaldian ikusitako hainbat portaera gaitzesgarriren ostean, Oroimen Egunean mezu bat irakurri zuten bertan batutako hiru mendizale elkarteren izenean: "Besaiden kalte nabarmenak eragin dituzte; ingurua errespetatzea eta zaintzea dagokigu"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Mendian ibiltzen direnek behin baino gehiagotan ikusten dituzte erabilera desegokien eraginak: denena den eremuan errespeterik gabe dabilzan motordun bilgailuen arrastoak, edota zaborra edozein tokitan botatzen duten mendizaleenak.

Baina erabilera desegoki horien eragina nabaria izan da, bereziki, Besaiden. Horren adibiderik larriena, zalantzarik gabe, 2018ko otsailekoa izan zen; begietan mina eragiten duen irudi horietako bat albiste izan zen: ezezagun batzuek su eman zioten auto bati eta kiskalita utzi zuten behealdeko monumentuaren alboan. Tamalez, ez zen inguru horretan atzemandako jarrera desegoki bakarra izan, eta, horren harira, mezu bateratua irakurri zuen Besaide MEko presidente Eñaut Iturbek; Oroimen Egunean irakurri zuen, Besaiden, Arrasateko, Aramaioko eta Elorrioko mendizale elkartearen izenean:

"Mendian hildako euskal mendizaleak oroitzeko asmoarekin 1955ean eraiki zen orain gauden monumentu hau. Baina azken urteetan, motordun ibilgailuekin jolastera etorri ohi da jendea Besaideko oroimen eremu honetara, eta kalte nabarmenak eragin. Zelaian errubera markak, monumentuetan apurketak, eta abar. Kasu esanguratsu bezala, iaz, otsailean, auto bati su eman eta bertan utzi zuten. Mendian hildakoak oroitzeko gunea izanik, errespetatzea eta zaintzea dagokigu".

Hiru elkartek inguru hori duintzeko konpromisoa hartu zuten eta, konpromisoa irudikatzeke, gorosti bana landatu zuten.

Hildakoen aldeko oroigarriak

Goialdeko monumentuaren inguruan hainbat plaka daude, hildako pertsonak oroitzeko jarritakoak. Horiei buruz zera



Arrasateko, Aramaioko eta Elorrioko mendi elkarteetako kideak, Besaiden. BESAIIDE ME



Autoa erabat kiskalita, beheko monumentutik gertu. JOSEAN CARMONA

Besaideko ankerkeria larriena

2018ko otsailaren 4an, auto bat kiskalita agertu zen Besaideko monumentuetako baten alboan. Ertzaintzak ikerketa abiatu zuen, baina zailtasunak izan zituzten, autoak ez zuelako ez matrikularik, ez bastidore zenbakirik. Autoa Oñatin lapurtu zuten 2017ko urrian.

adierazi zuten: "Eremu honek hildakoak omentzeko daukan sinbolismoak bultzatuta familia askok beraien hildako senideak oroitzeko harrizko plakak zein zuhaitz landaketak egin dituzte. Oroigarri hauek erregulaziorik

izan ez dutenez, ez dute oroimen leku batek izan beharko lituzkeen oreka ezaugarriak betetzen". Azkenik, duela 25 urte bi monumentuen artean landatutako saila atontzeko asmoa ere azaldu zuten.



Ume bat, buruz behera, iazko parkean. GOIENA

Hamalau gune izango ditu 2020. urteko Txikilandia parkeak

Uarkapen egingo dute, urtarrilaren 2tik 4ra; aurreko urteetan 2.000 haur eta gazte pasa dira bertatik

X.G. ARRASATE

Txatxilipurdiko lagunek prest daukate 2020ko Txikilandiaren hezurdura, non gustu eta adin guztietarako gune espezifikokoak prestatu dituzten.

Guztira, hamalau gune edukiko ditu: igerilekua –urtarrilaren 2ko goizean egongo da erabilgarri–, bi esperimentazio txoko, tailerren gunea, ipuin txokoa, puzgarriak eta ohe elastikoak, karaokea, rokodromoa, aurpegi margotze txokoa, gazteen gunea, *photocall*-a, ikuskizuna, merienda osasungarrirako espazioa eta baita *parkour* gunea ere.

Bigarren esperimentazio gunea 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat dago pentsatua. Lehenean, aldiz, hortik gorako haur eta gazteak elkarren alboan arituko dira natur elementuekin, egurrezko jostailuekin, balantzinekin eta baita musika instrumentuekin jolasten. Errebotiloan kokatuko den gazteen gunean, adibidez, sukaldaritza hondoratu tailerra, xumba ikastaro eta mihi bero erraldoi jolasak jarriko dituzte, baita lasai egoteko gune bat kanpoaldean. Ikuskizunari dagokionez, Irrien Lagunek eskainiko dute.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Nik zuengandik, zuek nigandik

Zaila da zer izan nahi dugun, zer egin nahi dugun, edo eta gure bizitza nondik joatea nahi dugun erabakitzea. Momentua helden denean erabaki bat hartu behar dugu, salto egin eta hegan, erortzeko aukera dugula jakinda.

Nik hezkuntza mundua aukeratu nuen, guztiz ziur egon gabe, aitortzen dut. Une onak eta txarrak pasa ditut, eta pasatzen ditut, ez baita erraza gure egoera pertsonala atearen beste aldean uztea.

Eredu bilakatzen gara askorentzat eta eragin handia izan dezakegu gure ikasleen egunerokotasunean. Zortedun sentitzen naiz askotan, bai, hala da, edo horrela sentiarazten didate. Irribarre batekin dena esaten dute eta zenbat ematen diguten beraien txiki bat garela ohartzeko garenean. Erakutsitakoa beraiena egin eta azaleratzen dutenean.

Eta zure Herriko Plazatik pasatzen zarenean eta alde guztietatik zure izena entzuten duzunean? Orduan pentsatzen dut, ondo egin duzu, Eneritz, nire barruko haur hori atera eta bizirik sentitzen nahiz.

"Denboraldi hau espero baino hobeto doa"

UNAI IBARRA KORRIKALARIA

Arrasate-Oñati lasterketan txapeldunordea izan da, azkenaldian emaitza onak lortzen ari da eta, orain, hurrengo lasterketetara begira dago arrasatearra

AMAIA ARANEGI ARRASATE

Irailean hasi zuen denboraldia arrasatearrak eta pozik dago orain arte lortutako emaitzekin. **Nola joan zen Oñati-Arrasate lasterketa?**

Fuerte hasi nintzen, banekien bizkor nindoala. Aurreko astean, Donostiako 5 Kilometroak irabazi nituen eta banekien lasterketa honetan bizkor ibiliko nintzela. Hasieratik gogor irten nintzen eta gero, poliki-poliki, gasolina agortzen joan zen eta nahiko kantsatuta nengoan. Baina ondo joan zen lasterketa. **Esperotako emaitza izan zen?**

Bai; postu bila joan nintzen, denbora ona egitera baino gehiago;



Unai Ibarra, Pirinioetan. UNAI IBARRA

denbora hobe egitea espero nuen, baina egiten zuen beroaz eta lasterketa nola zihoan ikusita, postu hobe baten bila joan nintzen. **Nola preparatzen zara horrelako lasterketa baterako??**

Iker Sarabiak entrenatzen nau. Iraila ezker ari naiz entrenatzen, uda luzea hartu dut eta beranduago hasi naiz aurten. Lehengo, 5 kilometroko lasterketa dezente egin ditut, eta horretarako egon naiz entrenatzen. Kilometro alde handia dago Oñati-Arrasate lasterketarekin eta apur bat justu iritsi naiz honetara.

Zu Arrasatekoa izanda, lasterketa berezia izan zen?

Presioa asko igartzen da. Jendeak konfiantza handia jartzen du zugan eta presioa nabaria da. **Azkenaldian parte hartzen ari zaren lasterketetan marka onak ateratzen ari zara...**

Bai; irailean hasi eta Gasteizeko 5 Kilometroetako lasterketa batean bigarren geratu nintzen, Donostiako lasterketa bat irabazi nuen eta aurreko astean Donostiako 5 Kilometroetako klasikoa irabazi nuen. Fuerte hasi dut denboraldia.

Epe laburrean beste lasterketaren batean parte hartzeko asmorik badaukazu?

Hurrengo bi asteetan deskantsatu egingo dut. Ez dut Behobian parte hartuko. 10 kilometroketan pentsatzen hasi behar dut nire marka jaisteko. Aurreko urtean Behobia egin nuen, eta luze egiten da denboraldia.

Korrika egiteaz gain, beste kirolen bat egiten duzu?

Bai; entrenatzailea naiz Arrasateko Ointxe saskibalo taldean. Kadete mailako euskal ligan entrenatzaile aritzen naiz eta Ointxeko lehenengo taldean, Eba mailan, laguntzen dut. Bi kirolak partekatzen ditut.



Iazko parte hartzaileak. 'ARRASATE-GATZAGA'

Arrasatetik Gatzagara arineketan

Azaroaren 10ean, domeka, Arrasatetik Leintz Gatzagara arineketan joango dira hainbat lagun. Kirola egitea eta era berean, lagunartean ondo pasatzea helburua duen irteera antolatuta du Arrasateko kuadrilla batek. Dagoeneko bosgarrenez egingo dute ibilaldia eta interesa duen edonori zabaldu gura diote deialdia. Izena emateko: www.arrasate-gatzaga.eu.



SAN FELIPE
ELKARLAGUNTZA

Alfonso X Jakintsua 3
Arrasate 20500

24 ordu: 943 532 910
Bulegoa: 943 773 022

www.sanfelipe.eus
funeraria@sanfelipe.eus

SAN FELIPE ELKARLAGUNTZA irabazi asmorik gabeko entitate da, duela 121 urte Arrasaten sortua. Gaur egun, 12.200 bazkide baino gehiagori ematen die estaldura.

Elkartasunaren, konfiantzaren, kudeaketa-gardentasunaren eta elkarrekikotasunaren printzipioen arabera antolatuta dago.

1898TIK
DEBAGOIENeko
ELKARLAGUNTZA



ZUZENDARITZA BATZORDEA

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Ignacio Barrutiabengoa (lehendakariordea), Dunix Usandizaga (bokala), Lourdes Lage (bokala), Iñaki Aranburu (lehendakaria), Juan Cruz Igoa (bokala), Esteban Dolara (bokala) eta Izaskun Gruceta (bokala).

Behean, ezkerretik eskumara: Isabel Gallastegi (bokala), Estibaliz Mendarozketa (diruzaina) eta Eneko Urrizalki (idazkaria).

PRESTAZIOAK

Bazkide baten heriotzagatik hurrengo gastuak ordainduko ditu:

- Hildakoa hiltzen den tokitik bizi zen herrira eramatea –Espainia barne–.
- Atzerrian gertatutako heriotza-gastuak, gehienez 3.900 euroko estaldurarekin.
- Ehorzte-zerraldia.
- Eskelak jartzea.
- Hildakoen janzte lanak.
- Auzitegiaren izapideak.
- Heriotzako osasun-ziurtagiria.
- Hainbat gastutarako 750 euroko ekarpena.

BAZKIDE IZATEAREN ABANTAILAK

- Heriotzaren gastuei elkarrekin aurre egitea
- Bere osotasunean, gure bazkideentzat merkatuko errentagarriena
- Bazkide izateko 40 urtera arte doako sarrera
- Heriotze une zailetan ohituta ez gauden zenbait kudeaketa saihestea
- Konfiantzazko gertuko pertsonen babes izatea

**INFORMATU ETA
EGIN BAZKIDE**



Ane Zuazubiskar, Gipuzkoako Bertso Txapelketako final-zortzirenean, irailaren 21ean, Ordizian. GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA

Final-laurdenean izango da Ane Zuazubiskar

Azaroaren 2an, zapatua, jokatu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren bosgarren eta azken final-laurdena, Azkoitiko Baztartxo antzokian, 17:00etan. Sei bertsolari arituko dira lehian finalaurrekoetara pasatzeko; Ane Zuazubiskar horien artean

Amaia Aranegi ARRASATE

Zapatuan jokatu da azken final-laurdena eta han erabakiko da zeintzuk izango diren finalaurrekoetan kantatuko duten bertsolariak. Ane Zuazubiskar arrasatearra bertan izango da: "Nire helburua ez zen honaino iristea. Maiatzean txapelketa hasi nuenean, fase bat pasatzu gero eta final-zortzirenetan kantatuz gero, niretzat asko izango zen. Ahalik eta ondoen kantatzera noa, plaza polit baten kantatzeko aukera da, gainera. Ea urduritasunak ez didan gain hartzen".

Aurreko irailaren 21ean, Ordizian izan zen Zuazubiskar final-zortzirenetan, eta gustura geratu zen lortutako emaitzarekin. "Oso gustura sentitu nintzen. Orain dela hiru urte ez naizela hain eroso sentitzen. Jarrera aldetik oso gustura sentitu nintzen, bertsoan egindakoarekin ere bai. Pozik nago egindako lanarekin eta saio horrek ekarri duen emaitzarekin".

Gipuzkoako Bertso Txapelketa lau urtetik behin egiten da eta Zuazubiskarrek erakusleho bezala ikusten du txapelketa: "4 urtetik behin izaten denez, pixka bat gehiago saiatzeko gara, ahalegin handiagoa egiten dugu. Saiotara ahalik eta ondoen egiteko helburuarekin joaten naiz, aprobetxatzera, erakuslehoia baita". Gainera, Gipuzkoako beste bertsolari batzuk eta haiek bera ezagutzeko aukera paregabea dela gehitzen du: "4 urtean behin ikusten da, gutxi gorabehera, Gipuzkoan nortzuk ari diren bertsoan. Gainera, norbaitek lehenengo aldiz ezagutzen banau eta nire bertsoak gustatzen bazaizkio, horrekin pozik nago".

"GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA ERAKUSLEHO BEZALA IKUSTEN DUT NIK"

Finalaurrekoa Arrasaten

Final-laurdenetatik sailkatzen diren hemezortzi bertsolariak finalaurrekoetan lehiatuko dira: azaroaren 17an Arrasaten, azaroaren 24an Oiartzunen eta abenduaren 1ean Tolosan. Arrasatearrarentzat pozgarria izango litzateke herriari lehiatzea: "Ez dut nire burua finalaurrekoan ikusten. Edozein saio pasatuta, bai Arrasate, Oiartzun edo Tolosa, niretzat sorpresa handia izango litzateke. Suerteagatik Arrasaten kantatzeko aukera izango banu, oso pozik egongo nintzateke. Egia esan, ez dut askorik kantatu Arrasaten, beldurra ematen dit. Uarkape bezalako leku handi batean kantatzea ametsa izango litzateke eta uste dut horretan geratuko dela".

Gipuzkoako Bertso Txapelketako finala abenduaren 14an izango da, Donostian; zortzi bertsolariarekin emango zaio hasiera jardunari, eta puntu gehien metatzen duten bi bertsolarien arteko lehiarekin amaituko da.



Mari Errauskin haur antzerkiaren bost aktoreak oholza gainean. GLU GLU

'Mari Errauskin' ipuin klasiko birmoldatua Amaia antzokian

Glu Glu antzerki taldeak 'Mari Errauskin' ipuin antzerki musikatua eskainiko du zapatuan, 17:00etan

A.A ARRASATE

Urtero bezala, Glu Glu antzerki taldeak ipuin klasiko bat hartu eta birmoldatu egin du, eta ipuin antzerki musikala sortu: zuzeneko kantak, dantzak...

Oraingoan, ezaguna den printzesen ipuinari buelta handi bat eman nahi izan diote; honela adierazi du antzezlan honetako aktore den Ugaitz Alegriak: "Kasu honetan, umeen artean dauden iraintzen duena, irainak jasotzen dituen eta isilik dagoena. Honen aurrean, beste batzuen egoeran jartzen eta barkamena eskatzen ikasiko du protagonistak". Taula gainean bost aktore egongo dira, baina aktore bakoitzak paper ezberdinak izango ditu.

Antzerki familiarra

3 eta 9 urte arteko haurrei dago zuzenduta, baina helduentzako ere gozagarrri da: kanta ezagunak

letraren moldaketarekin, koreografiak, eszenografia, aktoreen jantziak, momentu komikoak eta helduei zuzendutako txisteak... horiek ere helduentzako erakar-garri bihurtzen dute. Urriaren 5ean eskaini zuten lehenengo aldiz emanaldia, Zornotzan, eta arrakasta handia izan zuten. Ipuin klasikoek modan jarraitzen dutela dio: "Oso pozik gaude, aretoak betetzen ditugu. Publiko fidela daukagu eta familia batzuk herriz herri antzezlan bera ikusteko asmotan etortzen dira".


Zapatuan 17:00etan Amaia antzokian eskainiko dute emanaldia. Sarrerak bost eurotan salduko dira leihatilan eta www. arrasate.eus webgunean.

Gainera, datozen hilabeteetan, beste herri batzuetan ikusteko aukera izango da: urtarrilean Oñatin izango dira eta martxoan, berriz, Bergaran eskainiko dute emanaldia.


Screaming Zoltars, lehenengoz

Screaming Zoltars taldeak lehenengo kontzertua eskainiko du azaroaren 2an, zapatua, Taupa tabarnan, 19:00etan.


Screamers&Sinners taldeak eta Doyle eta Donna Dunne abeslari irlandarrek bat egin dute proiektu honetan. Urtarrilean disko berria grabatu, eta zapatu honetan abestuko dituzte kanta berriak lehen aldiz.



IÑAKI MARABAO



Etxebizitzak, frontoia eta eskailerak joango liratekeen tokia, muntaian. RM ARKITEKTURA ESTUDIOA



Erdian, goitik behera, eskailerak, frontoia eta etheen eremua; eskuman, erreka eta gaur egungo zubi zaharra. RM

Etxebizitzak eta frontoia, Ibarako erdigunean

Alde zaharreko Birgaitze Plan Berezia lantzen ari den arkitektura estudioa amaitzen ari da bere lana. Asmoen berri eman dute herritarrekin berriki egindako bileran, eta, aipatutakoarekin batera, Osteta eta Nardeaga kaleen arteko zubiarena ere badago

Julen Iriondo ARAMAIO

Duela hamar urte inguru hasitako prozesua ari da bukaerara iristen, eta Aramaiok Ibarako alde zaharreko Birgaitze Plan Berezi berria izango du laster. Plan horrek zenbait asmo jasotzen ditu, batetik, espazio komunetarako. Nabarmenena litzateke Nardeaga eta Pedro Ignazio Barrutia kaleen arteko partzelan [Ikus irudiak] etxebizitzak eta plaza funtzioa ere egingo lukeen frontoia eraikitzearena.

Antzemandako beharrei eta prozesuaren hasieran herritarrek erakutsitako nahiei jarraiki, herriaren erdialdean topaleku izan daitekeen gune bat sortzea egoki ikusten du Plan Berezia prestatzen ari den RM Arkitektura Estudioak. Espazio hori eta goiko kalea komunikatzeko eskailerak egingo lituzkete, "gune berria gehiago erabili dadin"; arrapalarik egiteko tokirik ez dagoela zioen Raimundo Mendiburu arkitektoak bileran, herritar baten galdera erantzunez.

Horrekin batera, etxe blokeko beheko oina, Nardeaga kalera ematen duen zatian, erabilera komertzialerako izatea jasotzen du lantzen ari diren planak. Eta hau guztia doan aterako litzaike Udalari, jabe partikularra duen lurzoruan etxebizitzak eraikitze operazioan sartuko bailirateke baldintzok. Hori bai, etxebizitzok eraikitzea lurzorua jabearen erabakia da printzipioz: "Jabeen eskuetan gertatzen da. Hori bai, legeak badio jabeek ez badute ez dakit zenbat

denboran eraikitzen, udalak desjabetu egin dezakeela, baina normalean ez da egiten, batez ere herri txikietan. Baina nik uste dut jabeak prest egongo direla horrelako promozio bat egiteko, uste dut baietz", zioen Mendiburuk.

Lehengo zubia edo berria

Espazio komunetako azpiegiturerekin jarraituz, Osteta eta Nardeaga kaleen arteko zubiarena dago. Gaur egun badago zubi bat, baina ez da publikoa, eta Ura agentziak esan beharko luke, gainera, erabiltzeko baldintzak betetzen dituen edo ez. Horren arabera planteatuko litzateke hura herriarentzat bihurtzeko ekinbideak egitea. Beste aukera litzateke errekan goraxeago zubi berria egitea. Hori aztertzeotan geratu zen Udala.

Eta beste berrikuntza bat izango da Ibargoiako plazatxoa, edukiontzia eta dituen plaza publiko bilakatzea; hori jasoko du Plan Bereziaren dokumentuak.

Hori alde zaharreko espazio komunei dagokienez. Partzela partikularrei dagokienez, berriz, zenbait aldaketa izango ditu Plan Berezi berriak aurrekoarekiko. Plan Bereziaren zehazten da leku bakoitzean, eraikinak inolako babesik baduen edo ez kontuan hartuta eta, baldin badu, ze mailatakoa duen aintzat hartuz, ze eraberritze lan edo aldaketa egin daitezkeen, edo zer eta nola eraiki daitekeen partzela hutsetan: "Aldaketak izango dira lehengo planarekiko, ze duela 20-30 urtetatik hona legeak aldatu egin dira, eta legeak esaten duena bete egin behar da".

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eskatuta Udalak iaz egindako azterketa hidraulikoaren ondorioen arabera, berez eraikigarritasuna aurreikusten zitzairen bi gune ez dute azkenean halakorik izango, erreka hazita etorri eta ibilgutik aterako balitz kalteak izan ahalko liratekeelako. Udaletxe atzean eta Nardeaga eta Osteta arteko zubi inguruan daude guneok. Gaur egun baratzeak dira, eta hala jarraitu beharko dute.

2020. urte hasieran Plan Berezia jendaurrean jarri, alegazioak aztertu, Aldundiaren onespina jaso eta, iragarri zuten, urtebete inguru barru indarrean egongo da.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Aita, konta egidazu berriz

Aita, konta egidazu berriz ipuin polit hura, jendarme, faxista eta flekillokun ikasleei buruzkoa. Konta egidazu berriz ere, badirudielako lehengoek beraien tokitik dutela lepoa eta, orain, ikasleek ez ezik, denok ordaintzen dugula. Aita, konta egidazu berriz zeinen ondo pasatzen zenuen erdoildutako diktadorei beraien zahartzaroa ondatzen zenietenean. Konta egidazu berriz ere, badirudielako erdoilduta ere oraindik guk guztiok baino ahots gehiago daukatela eta haizeak ere beraien ahotsa dakarrela, badaudela oraindik miresten dituztenak. Aita, konta egidazu berriz ere Boliviako gerrillari horren istorio polit hura. Bera joan zenetik mundua oraindik zatarrago jartzen ari baita. Aita, konta egidazu berriz barrikada horien guztien ondoren, ukabilak gorantz jarri ostean eta odol guztia eta gero, oraintxe daukagun partida berberean bezala, ezin izan zenuela ezer egin. Aita, konta egidazu, badirudielako zurrumbilao biraka berriro datorrela eta ez dela ezer aldatu. Aita, konta egidazu berriz, baina utzidazu kontatzen ere.

Herriko finalak erabakita eta Olaizola txapelkun Diman

Azaroaren 9an jokatuko dira San Martin pilota txapelketako finalak, eta bikote bakarra izango da etxekoa, Julen Olaizola eta Markel Arriolabengoa, kadeteetan. Bestalde, Julen Olaizola izan da nagusi Dimako lau eta erdikoan. Arabako Txapelketako finala izango dute, berriz, Xabier Errastik eta Asier del Campok bihar Legutian.

Ibai alboko pasealekua bukatzeko lanak, hastear

Bergarako Artzamendi Construcciones enpresari esleitu dio obra Udalak, eta orain, hilabeteko epea du abiarazteko; laugarrenez egin dute deialdia eta, ondo bidean, 2020ko udaberrirako zabalik egongo da Deba ibai ertzeko bidea

Mirari Altube ARETXABALETA

Irailean laugarren deialdia egin zuen Udalak Deba ibaiaren ezkeraldeko ertzeko pasealekua lanak esleitzeko. Uste baino buruhauste handiagoa eman diote lan horiek, eta oraingoan, behin betiko esleipena izatea gurako lukete.

Bi enpresa aurkeztu ziren azken deialdira, eta Bergarako Artzamendi Construccionesi eman diote lanen ardura; aurrekontua zen 229.207 euro (BEZ barik) eta esleipena, 238.435 euro. Orain, hilabeteko epea dute Artzamendikoek behar diren tramitazioak egin eta lanak hasteko. Abenduarekin batera hasita izango dira eta, ondo bidean, lau hilabeteren bueltan bukatuko dituzte kiroldegiarekin bat egingo duen pasealeku zati hori.

62 metroko tartea

Lan horien helburua da Deba ibaiaren alboko pasealekua Ibarra kiroldegiraino iristea, eta hala, herriaren sarreratik Markole auzorainoko ibilbidea izatea oinezkoendako zein bizikletendako.

Egiteko dagoen zatiak 62 metroko luzera du. Eta pasealekua luzatzearekin batera, aireko argindar sarearen lurperatze lanak ere bukatuko dituzte. Gune horretan lurzoruak dituen baldintzak ez direla errazak adierazi zuen Unai Elkoro alkateak bere garaian. Horren arrazoia da ibai ertzean landare trinkoak egotea eta goiko partean drainatze lanak egin beharra. Arazo horiek konpontzeko, erreka aldean horma bat egitea aurreikusitua zen proiektuan, baita indusketa lanak ere mendira ematen duen aldean.

Laugarren deialdia

Obra hori bukatzeko Udalak egin duen laugarren deialdia da. Lehenengoan, Construccio-



Deba ibaiaren ertzeko pasealekua, kiroldegia atzean dela. MIRARI ALTUBE



Kiroldegi aurrean kokatutako zaspiko futbol zelai berria. M.A.

Futbol zelai berria, ia gertu

Bukatzeaz daude zaspiko futbol zelaiaren lanak. Proba guztiak egingo dituztela bukatutzat eman aurretik adierazi du Unai Elkorok, "atzerapenak eta arazoak" eman dituelako obra horrek. Hain zuzen, atzerapenagatik isuna jarri dio Sports&Landscape enpresari.

nes Legasko SL enpresari esleitu zion, baina lanean hasi eta hilabete pasatxora bertan behera utzi zuen obra, eta Udala kontratua eten beharrean izan zen. Bigarren deialdira enpresa bakarria aurkeztu zen eta, eska-

tutako baldintzak ez zituenez betetzen, hutsik utzi zuten; baita hirugarrena ere, ez zelako inor aurkeztu. Laugarren honekin lanok behin betiko bukatuko dituztelakoan daude udal arduradunak.



NIRE USTEZ

OIHANA GARCIA INSAUSTI

Lehenagoak bezain?

Gaurko gazteak ez omen dira lehenagoak bezain... konprometituek, ideologizatuak edota arduratsuak. Han-hemenka, hitzaldietan nahiz bazkalondoko elkarrizketetan entzun ohi ditut tankerako etiketak. Ingurura begiratuta, nik ikusten ditut gazte aktiboak. Euskal ekosistema horretan ere aberatsa dela esango nuke. Lapurdiko Itsasu herriko hogeitau urteko lau gazte datozkit gogora, azken kabalkada antolatzekeo ardura beren gain hartu dutenak. Arte-diziplina askotarikoak biltzen dituen ekoizpen kulturala da kabalkada. Herriak propio sortua, herriarentzat. Euskaratik eta euskaraz. Bi urtez aritu dira buru-belarri langintza horretan, belaunaldi desberdinetako ia berrehun herritar aktibatzen eta koordinatzen. Energia, denbora, sormen eta motibazio iraunkorra eskatzen duen lana da. Emaizta, hiru orduko ikuskizun paregabea ikusleentzat. Emaizta are garrantzitsuagoa, herrian kabalkadaren bueltan ehundu den komunitate-giroa, herri-nortasunaren berrindartzea, euskararen ardatza.

Ez dira gehiengoak izango, baina noiz izan dira gehiengoak gizarte-eraldaketa txiki nahiz handiak gidatu dituzten bide-urratzaileak?

'Agur, Etxebeste!' filmarekin itzuliko da zinema Arkupera

Ikusmina sortu duten pelikulak ekarriko dituzte: 'Mientras dure la guerra' eta 'Toy Story 4', esaterako

Mirari Altube ARETXABALETA

Urriko antzerki hilabetea agurtu eta azaroan zinemari egingo diote ongietorria Arkupen. Arrakasta handia lortu duen filmak hasiko du, gainera, maiatzera arte iraungo duen zine denboraldia: Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako *Agur, Etxebeste!*-k. Azaroaren 1ean, 2an eta 3an, 19:30ean emango dute; eta 4an, astelehenean, 16:00etan. Prezioari dagokionez ez dago aldaketarik; astelehenetan 2 euro izango da eta gainerako egunetan 4 euro.

Umeek, ostera, *Asto erregea* (Pakistan, 2018, 85 min.) filma izango dute zapatuan eta domekan (17:00). Eguenean, hilaren 7an, zineklubari ere emango diote hasiera *Las Herederas* filmarekin (Paraguai, 2018, 97 min.).

Azaroan, guztira, hamabi film emango dituzte eta, esandakoez gain, Alejandro Amenabarren *Mientras dure la guerra* eta Daniel Calparsororen *El silencio de la ciudad blanca* ere izango dira. Umeendako, ostera, *Angry Birds 2* eta *Toy Story 4* emango dituzte, besteak beste.

Errigorako otarreak eskatzeko epea zabalik dago

Errigorako otarreak eskatzeko sasoiari iritsi dela adierazi dute Loramendi Elkarteko kideek. Nafarroa hegoaldean azolana bidez nekazaritza eta eskara uztartzen dituen proiektuari laguntzeko dira otarreak eta hiru mota daude: beltza, berdea eta zuria. Horiek eska daitezke Loramendin edo webgunearen bitartez: *Errigora.eus*.

1969an jaiotakoak Errioxara joango dira azaroaren 23an

50 urte beteko dituzte aurten 1969an jaiotako aretxabaletarrek, eta hori ospatzeko, Errioxara joango dira egun-pasa azaroaren 23an, zapatua -irteera 09:30ean, Eroskiko geltokitik-.

Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute; horretarako, Belar Meta arropa dendara jo behar da eta 20 euro jarri; azken eguna azaroaren 9a da.

Gurasoengandik abiatu gizartea osoa inplikatzeko

UDAK eta San Juan de Dios ospitaleak orain dela bi urte hasitako proiektua handitzen eta hedatzen doa; gurasoei egindako inkesten emaitzen berri eman, eta hurrengo pausoak iragarri dituzte: begiraleak trebatu eta guraso eskola abian jarri

Mirari Altube ARETXABALETA

U@DA izenaren baitan orain dela bi urte inguru abian jarritako proiektua aurrera doa. Orduan, drogen gaineko lanke-ta egiten hasi ziren UDAko kirolariak San Juan de Dios ospitaleko kideekin batera. Orain, ostera, Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztetxo guztiak sartu dituzte lanketa horretan ikastetxeen bitartez –Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoenganaino iritsiko dira– eta Udalaren babesarekin. Proiektu horretara batzen azkena Mondragon Unibertsitatea izan da.



San Juan de Dios ospitaleko Emilio Martin azalpenak ematen gurasoei. MIRARI ALTUBE

Inkesten emaitzak

Gaztetxoak izan ziren proiektuaren lanketari hasiera eman ziotenak 2017an, eta ondoren, gurasoen txanda etorri da. Familiaren funtzionamendua ezagutzeko betetako inkesten emaitzen berri eman zuten San Juan de Dios ospitaleko ordezkariak martitzenean Aretxabaletan, eta

eguaztenean Eskoriatzan. UDAko jokalarien 141 gurasok bete zuten galdeketa –guztira, 1.000tik gora dira–, eta bi eskala baloratu zituzten; emaitza honakoa izan da: %30 familia ingururdu du profil komunikatzailea; bes-

te %30 inguru komunikatzaileak dira, baina gehiegizko babesa eskainita; eta beste %30 komunikatzaile-kontrolatzaileak dira. Zera argitu zuen arduradunetako bat den Olaia Arresek: "Bi eskalak kontuan hartuta %51k

erdibideko jarrera izango luke, eraginkorra bai baina ez erabakitekoa". Eta gaineratu zuen: "Inkesta horien helburua da datu objektiboak izatea esku artean, zein planteamendu egin aurrera begira jakiteko". Arkupeko aretoa ez zen bete baina elkartutako gurasoen artean jakin-min handia sortu zuten esandakoek.

Parte-hartze saioak gazteekin

Lehenengo bileretako batean gaztetxoekin aisialdi eskaintzaren gaineko kezka agertu zuten gurasoek. Udalak, erronka horri heldu eta parte-hartze prozesu bat jarri zuen abian nerabeekin. "Aisialdi osasuntsu bat eskaintzea helburu izanik, bi fase izan dituen prozesu bat jarri genuen abian Farapi elkartearekin", adierazi zuen Maider Etxanizek, Udaleko Gazteria teknikariak.

Iazko neguan hasitako ikerketa fasean jaso zuten nerabeek zelan bizi duten aisialdia eta zein behar eta gogo dituzten; horretan parte hartu zuten herriko ikastetxeetako nerabe guztiak. Orain, boluntario agertu direnekin, hamabi laguneko talde txiki bat osatuko dute eta eraikitze fasea deitu dioten horretan, asmoa da urte osorako plangintza bat zehaztea. Otsail ingururako bukatuta izatea hori gurako lukete udal ordezkariak.

Trebakuntza eta guraso eskola

"Gaztetxoek egin dute eskatu zaien lana eta Udala ere mugitu

da. Orain gurasoei dagokie lanean hastea", adierazi zien San Juan de Dios ospitaleko Emilio Martin psikologoak. Horretan lantzeko Mondragon Unibertsitate-ra jo dute eta bi lan ildo izango dituen proiektua jarriko dute abian elkarlanean. Batetik, guraso eskola bat sortu gura da. "Eskola atipikoa izango da eta hainbat konpromiso hartu behar dituzte, zenbait gairen gainean lanketa egiteko", adierazi zuen Martinek.

Eta bestetik, kirol elkarteko jokalariek gaztetxoekin egindako lanketa horretan parte hartu zuten gurasoekin. "UDAK eta Areskok izango dute koordinatzeko ardura, eta MUko Huhezikoak izango dira trebakuntza saioak gidatuko dituztenak", zioen Martinek, eta argi utzi gura izan zuten drogatik harantzago doala proiektua: "Lanean hasi ginenean 110 kontsumitzailearen berri jaso genuen eta 25 jarri ziren gurekin harremanetan. Baina oinarritzeko gaia ez da drogak, beste kontu asko daudelako hori bestekoak. Eta hori guztia lantzeko komunitatea inplikatu beharra dago; horrela jasoko dutelako laguntza bizitza eraikitzen ikasteko".

BI LAN-ILDO IZANGO DITUEN PROIEKTUA JARRIKO DUTE ABIAN MONDRAGON UNIBERTSITATEAREKIN

Eroskiren irekiera kontuak ez direla ondo egin dio EH Bilduk

"Dokumentazioa lehenbailehen entregatzeko", ixteko agindua jasotzen duen txostena aurkeztu dio Udalak

M.A. ARETXABALETA

Eroskik ateak zabalduta eta aste-bete geroago supermerkatua ixteko agindua eman zuela alkateak dio EH Bilduko kideek. Erabaki hori hartzeko arrazoia Hirigintza teknikariak egindako txostenean dagoela azaldu dute.

Txostena urriaren 17an, ireki zen egunean bertan, egin zela dio EH Bilduko ordezkariak eta itxiera eskatzeko arrazoiak zeintzuk diren aipatu dituzte: dokumentazio falta –bulegoa botatzearen gaineko obra bukaera, supermerkatuaren auto-

babes plana, eraikineren obraren bukaeraren dokumentazioa...–; egiturak eusteko duen gaitasunaren gaineko txosten teknikoaren entregatu ez izana –goiko apartekak gainkarga eusteko duen gaitasuna ziurtatzen duena–; eta inguruko urbanizatzeko lanak bukatu barik egotea –zebra-bideak, espaloiak...–.

EH Bildu pozik agertu da Eroski kooperatibaren proiektuarekin: "Gure herrian aurrera egin ahal izan duelako, bide batez lanpostu gehiago sortuz". Hala ere, kontuak ez direla ongi egin

diote EH Bildukoek, eta hori "ixtea inork ez badu gura ere", sortutako segurtasun falta ezin dela onartu gaineratu dute, "bai langileekiko, bai Eroskirekiko". Arduragabekeriarekin eta auskeriarekin kudeatu dela kontua uste dute: "Zelan onartu daiteke zabalteza egoera horrela zegoela jakinda? Aldez aurretik zentzu eta zuhurtasun gehiagorekin jokatzeko igarri dugu faltan".

Dokumentazioa aurkezten

Unai Elkoro alkateak argitu gura izan du dokumentazio faltaz gain egin zuela Udaleko Hirigintza-buruak ixtea proposatzen zuten txostena. "Horren helburua izan da dokumentazioa lehenbailehen aurkeztera bultzatzea", eta gaineratu du: "Eroskiko arduradunak jakinean izan

dira une oro, eta eguaztenean bertan aurkeztu da eskatutako dokumentazio gehiena; beraz, bere helburua bete du".

Era berean, zera argitu gura izan du: "Dokumentazioa ez aurkezteak ez du esan nahi karga frogak egin ez direnik; egin egin dira, eta bete ere betetzen dituzte bete beharreko kargak".

Beste "edozein jarduerari dagokion bezala" dokumentazio guztia aurkezteko denbora beharko duela Eroskik gaineratu du Elkoro: "Hein handi batean, gainera, administrazioaren geldotasuna da horren errudun nagusia". Horregatik, txostenak zabalik jarraitzen duela adierazi du: "Eta egin beharreko tramite guztiak amaitzean izango du bere behin betiko baimena".

Euskaraldiari hasiera emateko bilera azaroaren 6an

Goiena komunitatea / Euskaraldia
ARETXABALETA

Abendua gerturatzen ari da, baita Euskararen Nazioarteko Eguna ere, abenduaren 3an. Aurtengoa urte berezia da, Euskaraldiaren gogoeta urtea izango baita. Urtebete pasa da lehen ediziotik, eta urtebete gelditzen da 2020ko ediziorako. Horregatik, indarrak batu eta denon artean ekintza interesgarriak beteriko egitaraua osatzea ezinbestekotzat jotzen dugu, iazko lanketa guztia ahanzturan gelditu ez dadin.

Zuk zer diozu, animatzen zara Euskaraldiaren Aretxabaletako antolaketa taldean parte hartze-za? Azaroaren 6an dugu bilera (18:30ean) udaletxe zaharrean.



Partxis parkeko lanak astelehenean hasi zituzten. IMANOL BELOKI

Partxis parkeko jolas eremuko lanak, martxan

2019ra begirako aurrekontuetan ezarrita zegoen inbertsio nagusietako bat da Partxis parkeko eremua berritzea. Hori horrela, parte-hartze prozesu baten ostean auzotarrek aukeratuta, material jasagarriekin eta joko inklusiboekin osatutako parkea egingo da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Intxaurtxueta auzoko Partxis parkean jolas eremua berritze-ko lanak hasi zituzten astelehenean. Bertako bizilagunek egindako eskaera gauzatze aldera, bertan dauden joko-gune biak berrituko dituzte. Horrekin batera, segurtasuna bermatzeko asmoz, segurtasun lurra ere jarriko dute, eta lanek iraun bitartean itxita egongo da plaza.

Partxis parkeko eremuaren berriztapena abenduan egindako osoko bilkuran onartu zuten. Hain zuzen ere, udalbatzako kideek 2019ra begirako aurrekontuak onartu zituztenez. Hala, proiektu hau inbertsio nagusien artean zegoen lanetako bat da, eta parte-hartze prozesua garatu ondoren, proiektu egokiena aukeratu eta lizitazio-ara atera zuten uztailan.

Proposamen tekniko egokiena

Lau enpresa aurkeztu ziren eta, horietako bat kanpoan geratu ostean, azkenean, Kompan ize-


neko enpresa izan zen obra egiteko hautatua –Kuatruena auzoan jolas-parkea egin zuen bera–.

"Kompan enpresak proposamen tekniko egokiena eta prezio hobekuntza aurkeztu zuen. Izan ere, 69.212 euroko kostua izango dute lanek eta, hasiera batean, lizitazio prezioa 78.600 eurokoa zen", adierazi du Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batordeburuak.

Bi edo hiru astean amaituta

"Balorazio teknikoa egiterakoan material jasagarriak erabiltzea eta joko inklusiboak sartzea kontuan hartu zituen Kompan enpresak", adierazi du Ezkurdiak. Hala, horren aldeko apustua egitea erabaki dute.

Udal ordezkariak adierazi duten moduan, bi edo hiru aste inguru iraungo dute lanek, eta ordura arte itxita egongo da eremua.



Parte-hartze prozesuan auzotarrek aukeratutako proiektua. ESKORIATZAKO UDALA

Eskoriatza erreken egoera aztergai izango da Zaldibarren

Eskoriatza Lagunkoia taldeak antolatuta, Urak Ur Agentziako Victor Peñas izango da hitzaldia ematen

I.B. ESKORIATZA

Eguneroko bizitzan dituzten arazoak identifikatu eta horientzako irtenbideak proposatzen Eskoriatzaren alderdi positiboak zein negatiboak identifikatzen aritzen den Eskoriatza Lagunkoia taldeak hitzaldia antolatu du datorren eguaztenerako. Jasotako herriko zenbait beharretatik, erreken egoera azpimarratzeko gaia dela uste dute taldekideek, eta, horri garrantzia eman guran, Uraren Euskal Agentziako teknikari bat izango da Zaldibar antzokian, azaroaren 6an, hitzaldia ematen, 18:30ean.

La conservación del río Deba, un asunto de todos izenpean eskainiko du hitzaldia Urak-eko sentsibilizazio arduradun Victor Peñas teknikariak. Saioa gazteleraz izango da, eta herritarrek errealitatea ezagutzeko bertara daitezten eskatu dute Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideek.

Egoera hobetzeko bidean

Jose Mari Kortazar Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideak adierazi duenez, "herritarrek erreka zein egoeratan dagoen ikustea

da hitzaldiaren helburua. Honekin batera, udal ordezkariak ere bertan egotea gustatuko litzaziguke, etorkizun laburrean gure erreka ahalik eta modu onenean egon dadin, zer egin dezakegun jakiteko. Bizi dugun errealitatea ikusi behar dugu, eta *txip-a* aldatu. Hala, zenbait argibide orokor eskainiko ditu Victor Peñas hizlariak, eta gero, Deba erreken gainean arituko da, Eskoriatzako eremua ardatz izanda. Erreka zein egoeratan dagoen eta zer egin daitekeen hobetzeko adieraziko du, besteak beste".

Zerbait gehiago egiteko beharra

Erreken egoera aldatzeko helburuarekin jarraibide batzuk izatea beharrezkoa dela ikusten dute Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideek. "Errekan zenbait astakirtenek botatuko hesiak, zakarrak, plastikoak... daude, baina horiek ateratzearekin nahikoa egiten dugu ala zerbait gehiago egin beharra dago? Galdera horiei erantzuna emateko asmoa izango du hitzaldi honek eta espero dugu Victor Peñasen azalpenek asko lagundu diezagukeela bide horretan".



AITOR AGIRIANO

Erritmo bizia dantza latinoetan

Hilabete daramate, egubakoitzero, 21:30etik 23:00etara bitartean, bachata, salsa eta txa-txa-txa dantza pausoak ikasten zenbait eskoriatzarrek. Angel Oiarzabalen gidaritzapean, gustura ari dira Debagoienean ohikoa ez den dantza mota hauekin gerria mugitzen. Hala ere, bertan parte hartzeko interesdunek kultura etxera deitu dezakete, 943 71 46 88 telefono zenbakira.

Ardo mota ugari, pintxo bereziekin lagunduta

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatzen duen ardo-dastatzearen hamabigarren edizioa izango da azaroaren 9an, zapatuan. Hori horrela, ardo mota ugari eta pintxo bereziak probatzeko aukera izango da Fernando Eskoriatza plazan, 18:30ean hasita

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Atxorrotx kultura elkarteak ardo-dastatzea antolatu du aurten ere. Aurtengoa hamabigarren edizioa izango da, azaroaren 9an, zapatuan izango dena Fernando Eskoriatza plazan. 18:30etik aurrera zenbait upategitako ardoak probatzeko aukera izango da eta pintxoak ere jarriko dituzte edatekoari laguntzeko.

"Eskoriatzako Txistulari Taldeak alaiturik, giro ederra izaten da herrian errotuta dagoen festan. Ardo goxo bat pintxo berezi batekin lagunduta hartzeko aitzakiarekin kuadrilla ugari batzen dira, eta prezioei dagokienez, berriz, ardo batzuek bi uroko kostua izango dute eta beste batzuek, aldiz, euro batekoa", adierazi du Iñaki Kortazar Atxorrotx Kultura Elkarteako kideak.

Aukera ugari ardo-dastatzean

Antolatzaileek hiru ataletan sailkatu dituzte bertan izango



lax, ardo dastaketan. IMANOL SORIANO

dituzten ardoak: Euskal Herrikoak, zuriak eta kanpokoak. Bertakoei dagokienez, Biga Luberrri (Eltziego), Fya (Moreda), Belezos (Lapuebla) eta Castillo de Monjardin (Nafarroa) ardoak izango dira. Zurietan, berriz,

Montilla Murieles, Sardasol Chardonnay, Faustino Rivero Albarino, eta Vino Verde Portugal. Kanpokoak, berriz, honako hauek izango dira: Pares Balza (Penedes), Barbazul (Cadiz), Bancales Mendia (Rivera) eta Ferrai Ovg Garnacha (Cariñena).

Ardo mota horiez guztiez gain, pintxoak ere izango dira, eta bereziak, gainera. Ahate-konfita, foiea eta urtero jartzen duten sorpresazko pintxoak izango dira aukeran.

Aurretik pailazoak

Ardo dastaketa egun berean ohikoa izaten da Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizuna izatea, eta aurten ere halaxe izango da. 17:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian, *Bizi dantza* ikuskizun berria izango da, eta dantzak oinarri, berezitasun moduan, Eskoriatzako dantza taldeari gonbidapena egin, eta ikuskizunean parte hartuko du.

Euskararen Eguna azaroaren 30ean ospatuko dute

Azaroaren 30ean ospatuko dute Euskararen Herri Eguna Eskoriatzan. Zenbait bilera egin dituzte dagoeneko egunera begirako ekintzak antolatzeko; azken, atzo, eguaztena. Hala ere, oraindik zenbait bilera egingo dituzte, eta bertan parte hartu gura duenak aukera izango du horretarako.

Herritarren iritziak eta proposamenak jaso nahi ditu eguna antolatzen ari den lantaldeak. Hala, ideiak partekatzeko edo bileretan parte hartzeko interesa duen herritar orok eskoriatza@euskaraldia.eus helbide elektronikora idatzi edo 943 71 46 88 telefono zenbakira dei egin dezake.



Aitor Puyk Gatzagako liburutegian eskainitako hitzaldian batutakoak. NEREA ALTUNA

Antzinako sinismenak gaur egunera ekartzeko hitzaldia

Gurutz Garmendiak 'Mari eta sinismen zahar-berrituak' hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan, liburutegian

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako herri liburutegiak antolatuta, *Antzinako sinismenak gaur egun* hitzaldi zikloa martxan da. Izan ere, pasa den egubakoitzean izan zen lehenengoa. Aitor Puy mendizale eta antropologoak *Euskal pentsamendu indigena* hitzaldia eskaini zuen. 26 lagun batu ziren liburutegiko hitzaldian, eta Aitor Puyk esandakoak entzun ostean, eztabaidarako tartea ere hartu zuten. "Hizlari bikaina da Aitor, eta bertaratutakoaren interesa piztu zuen gaiak, gainera. Hala, eztabaidarako tartea ere hartu zuten, eta solasaldi interesgarria sortu zen. Beraz, saio arrakastatsua izan zela esan dezakegu", adierazi du adierazi du Leintz Gatzagako liburutegiko boluntario taldeko kide Nerea Altunak.

Zikloari jarraipena emateko, eta aldi berean egitasmoari

amaiera emateko, berriz, gaur, 19:00etan, Gurutz Garmendia nekazari eta mitologia-zaleak *Mari eta sinismen zahar-berrituak* saioa eskainiko du liburutegian.

Hitzaldi zikloen arrakasta

"Otsailean, Nafarroari buruzko hitzaldi zikloa izan genuen, eta bertan izandako arrakastaren ostean, elkarlanaren aldeko apustua egiten jarraitu gura dugu. Herritarrei halakoak antolatzeko eta ideiak proposatzeko dei egiten diegu. Hala, liburutegia biziberritzeko helburuarekin. Bertan ari garenek, gainera, boluntarioak gara, eta laguntzeko prest egongo gara. Oraingoan, hitzaldi-ziklo hau antolatu dugu, eta aurrera begira gustatuko litzaiguke proiektu gehiago martxan jartzea...", adierazi du Gatzagako liburutegiko boluntario taldeko kide Nerea Altunak.

Sanmilixanak azaroaren 10ean ospatuko dituzte

Azaroaren 10ean ospatuko dituzte sanmilixanak Leintz Gatzagan. Aurtengo edizioan, baina, ez da eskulangintza azokarik izango; izan ere, urriaren 13an izandako Gatzaren Egunean egin zuten, egun hori indartzeko asmoz. Hala ere, sanmilixanetan izango dira bestelako ekintzak: *Hustu ganbara* bigarren eskuko azoka, larrain dantza, gatzaina

erreak, buzkantzak eta piper erreak... Herritarrendako festa eguna izatea nahi dute antolatzailerak, eta oraindik prestakizun lanetan ari diren arren, Arrasateko kuadrilla baten bisita izango dutela jakinarazi dute.

Arrasate Gatzagara -Gatz Bidetik- arineketan joango dira hainbat lagun. Bosgarrenez egingo dute ibilaldi hori San Milixan egunez, eta interesa duen edonori zabaldu gura diote deialdia. Argibideak, Arrasate-gatzaga.eu webgunean.



ESKORIATZAKO BIBLIOTEKA

Ekintza mordoa bibliotekan

Urriaren 24an izan zen Bibliotekaren Eguna, eta horren bueltan zenbait ekintza antolatu dituzte Eskoriatzako bibliotekan. *La uruguay* liburuaren literatur solasaldia izan zen kultura etxean; eta haurrei zuzenduta, bestalde, Bibliotekako haurtxotekan *Animaliek hizketan zekiten garaian* aretoa jarri zuten, besteak beste.



laz ekimenean parte hartu zuten bergarretako batzuk, biboteen enkantea egin aurretik. JON ANDUEZA



2018ko azaroaren 30ean Irala kalean egindako enkantea. JON ANDUEZA

lazko enkantean 310 euro lortu ziren

laz Iralan egindako biboteen enkantea oso arrakastatsua izan zen. 60 bibote moztu eta *saldu* zituzten, bost euroko hasierako prezioarekin. Lehiaren bat edo beste egon ostean, 310 euro lortu ziren enkantean; azaro osoan zehar 1.600 euro batu zituzten guztira. Antolatzaileek espero dute aurtien diru gehiago batzea.

Bibotea utzi eta saltzeko gonbita

Azaroaren 7tik 30era sei ekitaldi antolatu ditu Movember Gara ekimenak; hilaren 30ean biboteen enkantea egingo dute Irala kalean, eta aurtien berritasuna nagusia da urte luzez eroan duen bergarar ezagun bati bibotea kenduko diotela gero enkantean saltzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Hirugarren urtea biziko du aurtien Movember Gara ekimenak Bergaran. Helburu nagusia da prostatak eta barrabiletako minbiziari ikusgarritasuna ematea eta, horrekin batera, gaitz horri aurre egiteko ikerketarako dirua batzea. Iaz, esaterako, 1.600 euro batu zituzten Bergaran, eta Arrasateko Mondravemberkoekin batera Cic Bioguneko Arkaitz Carracedo ikerlariaren laborategira bideratu zuten dirua -ikus 12. orria-; guztira, 3.800 euro bideratu ziren.

"Bibote mitiko bat kenduko dugu"

Azaroaren 30ean borobilduko dute egitaraua, egun osoko festa batekin. Eta, iaz moduan, ez da faltako biboteen enkante publikoa. "Irala kalean egingo dugu aurtien ere. Partaideen bibote bakoitza enkantera aterako dugu.

Bibotea duenaren senitartekoren batek, lagun batek edo gertukoren batek diru kopuru bat jartzen du bibote horregatik. Iaz, adibidez, nire amak hamar euro jarri zituen nire biboteagatik eta gero berak kendu zidan", esan du Movember Gara ekimeneko sustatzaile Joxu Aranak.

Urtez urte berrikuntzaren bat sartzen dute egitarauan eta aurtengo edizioa ez da salbuespena izango: "Dakizuenez, Movember Gara osatzen dugunok azaroan bakarrik uzten dugu bibotea. Ez dugu urte osoan zehar bibotetik eramaten. Baina aurtien,

BIBOTE "MITIKO BAT" KENDUKO DUTE AURTEN; SORPRESA IZATEA NAHI DUTE AZKEN UNERA ARTE

azken eguneko enkantean, Bergarako bibote mitiko bat kendu eta enkantean jarriko dugu. Iñigo Zaitegiren bibotea izan daiteke, edo Aitor Erañarena, edo Duni Olabarriarena... Auskalo. Erabaki dugu zein izango den, lotuta dago. Baina azken unera arte gorde nahi dugu sorpresa", gaineratu du Aranak.

laz 132 bibote izan ziren

Urtez urte handitzen doan "familia" da NovemBer Gara-rena: "Iaz 132 lagun batu ginen eta seguruenik aurtien gehiago izango garela. Azaroa pasatu eta jasotako dirua nora bideratzen dugun argitaratu ostean lozorroan egoten gara hurrengo urteko azarora arte. Iaz azaroko lehen astean jende berri asko batu zen ekimenara; espero dugu aurtien ere halako zerbait gertatzea", adierazi du Aranak.

Movember Gara 2019: egitaraua

lazko dirua Arkaitz Carracedok gidatzen duen ikerketara bideratu ostean, Carracedok hitzaldia emango du Seminarixoa aretoan. Antolatzaileek hitzaldi "oso interesgarria" izango dela aurreratu dute.

Azaroaren 7a, eguna

- **Arratsaldean zehar** Pintxo-bibotea, herriko tabernetan zehar.

Azaroaren 13a, eguaztena

- **18:30** San Joxepe elkartean, barne medikuntzako espezialista Gurutze Orberen hitzaldia: *Gizonezkoen ohiko gaixotasunak*.

Azaroaren 16a, zapatua

- **12:30** Familian gozatzeko eta musikaz girotutako festa egingo dute Elorregin.

Azaroaren 22a, egubakoitza

- **19:30** Spinning eta gimnasia saioa Agorrosinen, Azkaiter Pelox Band taldearen zuzeneko musikarekin.

Azaroaren 26a, martitzena

- **19:00** Hitzaldia Seminarixoa aretoan, CIC Bioguneko ikertzaile Arkaitz Carracedoren eskutik: *El pasado y futuro del cáncer*.

Azaroaren 30a, zapatua: Movember Gara Eguna

- **Egun osoan zehar** Mendi buelta, zuzeneko musikaz girotutako poteoa, biboteen enkantea, bazkaria eta kontzertua.

Oharra: Azaroan zehar, Pepelu eta Diego Valor ile-apaindegietan biboteak dotoretuko dira bost euroren truke, eta jasotako dirua Movember Gara ekimenara bideratuko da. Tabernetan ere dirua batzeko itsulapikoak jarriko dituzte. Azaroaren 30erako kamisetak eta txapak ere jarriko dituzte salgai. Antolakuntzak dei egiten die herriko gizonei ekimenean parte har dezaten.



MOVEMBER GARA

Miguel Altunarako bide berria, otsail hasierarako

Azaroaren 4an hasiko dituzte erdigunea eta Miguel Altuna berria lotuko dituen bidea egiteko lanak eta hiru hilabete iraungo dute; gehienez %6ko malda izango duen 203 metroko oinezko eta bizikletendako arrapala izango da. Aurrekontua 235.889 euro da

Jokin Bereziartua BERGARA

Hurrengo astelehenean, azaroak 4, hasiko dira Bergarako erdigunea eta Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentro berria lotuko dituen oinezko pasabidea egiteko lanak; obrek hiru hilabete irautea dago aurreikusita. Izan ere, Udalak Construcciones Morga enpresari adjudikatu zion proiektua, 235.889 euroko aurrekontuarekin. Lanak Miguel Altunaren eta Gabiriagañekoa baserriaren partzelen artean egingo dira, %6ko malda izango duen 203 metroko arrapala bat.

Arrapala horrek 2,5 metroko zabalera izango du eta baita 12 zentimetroko lodiera duen hormigoizko harlauza ere. "Bidexka honen helburua da beheko bidegorria eta Miguel Altuna lotzea, eta bizikletei begira. Hormigoizko zorua botako dugu eta horren gainetik aglomeratua joango da; gainera, hamar luminaria puntu jarriko dira LED argirekin. Aldapa handiena dagoen tokian egurrezko hesi bat jarriko dugu oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Bestalde, bertako paisaia errekupeatzeko ahalegina ere egingo dugu; landaketa esanguratsua egingo dugu, bertako espezieak lehenetsita. Jarleku bi egokituko ditugu, bat behealdean eta



Irazabal, Artola eta Aizpurua, obren hasiera iragartzeko agerraldian. MAIALEN REGUEIRO

bestea goiko aldean", esan du Hirigintza teknikari Joseba Aizpurua.

Gertutasuna, "oso garrantzitsua"
Gorka Artola alkateak aurreko lan baten jarraipen moduan ulertzen du proiektu hau: "Gabiriako tuneleko interbentzioarekin nahi genuena zen erdigunea eta hegoaldeko auzoak hobeto lotzea. Orain bigarren faseari ekingo diogu; mugikortasun ikuspegitik ikastetxera doan bidea erraztea eta modu txukun baten izatea garrantzi-

tsua da; oinezkoei eta bizikletei ere ahalik eta erraztasun gehien eman nahi dizkiegu Miguel Altunara joateko".

Bestalde, Miguel Altuna Lanbide Heziketako zuzendari Josune Irazabalek proiektuak eurentzat duen garrantzia azpimarratu du: "Ikastetxea erdigunetik atera dugu, baina guretzat oso garrantzitsua da herritik gertu egotea. Bidexka berri honen zuzenago helduko gara eta oinez, bizikletaz edota patinetek datozen ikasleentzat oso erabilgarria izango da".

Labegaraietako kiroldegia handitzeko lanak, astelehenean

Aldagelak, komunak, biltegia eta piraguismorako lokal berri bat egingo dute; obrek sei hilabete iraungo dute

J.B. BERGARA

Atzerapenarekin bada ere, azaroaren 4an hasiko dituzte Labegaraietako kiroldegia handitzeko lanak. Uztailearen 17an esleitu zituen lanak alkateak dekretuz, baina lanen hasiera atzeratu egin da, Gobernuaren esanetan Udalak Jaurlaritzaren lur kutsatuen baimenaren zain egon behar izan duelako. Lanak Construcciones Artzamendi SA enpresak egingo ditu eta aurrekontua 948.640 eurokoa da -BEZa barne-; sei hilabete iraungo dute. Diputazioak 2019rako eta 2020rako ia 600.000 euroko dirulaguntza bideratu zuen lan hauetarako.

Afekzio txikiaren bala

Astelehenean hasiko dituzten lanekin eraikin berri bat egitea da helburu nagusia, gaur egungoari itsatsita. Eraikin berri horretan honako gune hauek



Biltegi zaharra botatzen, uztailean. O.E.

izango dira: aldagela bikoitzen hiru talde, bi komun, biltegi bat eta piraguismorako lokal bat. Udalak kiroldegi inguruko atarrietan obren berri emateko oharrak jarriko ditu, eta ahalegin-duko da bizilagunengan ahalik eta eragin txikiena sortzen.

Zirkulazioa itxita herri barruan, Antxintxinka krosak eraginda

Zapatuan, azaroak 2, egingo da Antxintxinka krosa (Ikus 36. orria) eta, urtero moduan, eragin zuzena izango du herri barruko zirkulazioan. Zirkulazioa moztu egingo dute honako puntu hauek: Palmerako biribilgunetik Migel Altuna zaharreraino, 15:00etatik lasterketa amaitu arte -Ibargarai kaleko 7 eta 9. atarteetatik Katabiako autobus gel-

tokietan oharrak jarriko ditu Udalak-, eta Bolura joateko zirkulazioa Artekaleetik bideratuko da. Bigarrenik, Herrilagunak kalea ere itxiko dute, 15:00etatik lasterketa amaitu arte; Joan XXIII.a plazarako sarrera eta irteera Telesforo Aranzadi kaleatik egin beharko da; eta, bukatzeko, Zurradero kalea ere itxia egongo da 15:00etatik lasterketa amaitu arte -Udalak Oxirondo azokaren ondoko autobus geltokian jarriko ditu aldaketaren berri emateko oharrak-.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

HARMAILATIK

GOIENA TELEBISTA, ANTIXINTXIKA KROSA
AZAROAREN 4EAN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
XABIER URZELAIK ZUZENDUTAKO SAIOA



goiena
Zu hemen zaude.

"Balio onargarriak" ditu Deba ibaiaren kalitateak

Ibaialde programak eskaintzen duen ura analizatzeko oinarrizko kitak erabili zituzten erreka garbitzeko azken auzolanean eta, emaitzen arabera, uraren kalitatea "onargarria" da; gaztetxoek hartu zituzten laginak, Usondon, Ortuibar inguruan eta Labegarietan

Jokin Bereziartua BERGARA

Erreka garbiketarako eguna bereziki emankorra izan da aurtentzen. Batetik, urriaren 19an erreka auzolanean garbitzeko gertu agertu ziren boluntario kopurua bikoitza izan zen 2018koarekin alderatuta; 180 bat herritar elkartu ziren. Gainera, uraren maila beste urte batzuetakoa baino baxuagoa izateak ahalbidetu zuen orain arte ur azpian egon den zaborra ere batzea, eta ia ez bezala Osintxun ere aritu ziren garbitzen aurtentzen.

Ibaialderen ur analisirako kitak

Horretaz guztiaz gain, Deba ibaiak Bergaran egiten duen ibilbidean zehar uraren kalitatea neurtzeko ahalegina egin zuten, betiere umeekin batera. "Garbiketa lanez gain Ibaialde programak eskaintzen duen uraren analisirako kitak erabiltzeko denbora ere izan genuen. Kit hauek oinarrizkoak diren arren, ur-kalitatearen gutxi gorabeherako analisi kualitatiboa egiteko aukera ematen dute", adierazi du DBHko irakasle Itxaso Fernandezek. Usondo parkeko, Labegarietako eta erdiguneko umeek eta gaztetxoek egin zituzten analisiak, eta neurketek eman zituzten balioak, Fernandezek arabera, "onargarriak" dira: "Lau analisi egin



Ume talde bat ur laginak hartzen Labegarietan, urriaren 19an. OIHANA ELORZA

FLORA OSASUNTU MANTENTZEA IZANGO DA LEHENTASUNETAKO BAT, IBAIKO OXIGENO-MAILA IGOZTEKO

ziren eta denetan lortu dira antzeko emaitzak. Fosfato kontzentrazioa oso baxua da eta horrela behar du izan. Uraren uheretasun-maila eta Pha ere egokiak izan dira guztietan. Nitrato eta oxigeno disolbatuari dagokionez,

emaitzak ez dira hain onak izan balio nahiko baxuak eman dituztelako, baina balio onargarrien artean daude gehienak".

Flora zaintzea, oxigenatzeko

Emaitzak onargarriak izan arren oxigeno maila baxuan jarri dute arreta etorkizunerako. "Oxigeno faltak ondorio kaltegarriak izan ditzake erreka animaliengan. Beraz, saiatu gaitetzen denok erreka flora osasuntsu mantentzen, fotosintesiaren bidez oxigenoa uretara aska ditzaten", adierazi dute.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Entzun

Seguruenik ez naiz ni honen inguruan idazteko egokiena. Agian horregatik daukat buruan bueltaka. Baina bueltaka dagoenez... badoa. Bi belarri ditugu; ahoa, berriz, bakarra. Sarri esan izan dut esaldi hau. Hitz egiten dugun bakoitzeko bi aldiz entzun behar dugula. Baina oso ados nagoen arren, ze gutxitan egiten dugun eta egiten dudana. Inpresioa daukat azken boladan -agian beti, orain ohartzen naiz- ez diogula elkarri entzuten, soilik gure ideiak, pentsamenduak, egiteko moduak... berresten dituztenak entzuten ditugula. Baina ez naiz modu horretan entzuteaz ari, hori ez baita entzutea. Entzutea bestearren kontzientzia hartzea da, bestearren beharrez, interesez, egoeraz... Ohartzea eta benetan hori ulertzeko bidean jartzea. Hortik eraiki daiteke, baina batzuetan eraikitzeak deseraiki egin behar da, eta horretarako benetan entzutea ezinbestekoa da. Interes propioetatik harago, interes komunak erdigunera ekarrita.

Laneko kontuez pentsatzen nengoela hasi naiz idazten, baina bizitzako arlo askotan aplikatu genezake seguruenik. Belarria prest jartzeko ordua iritsi zait. Zuri?

GORA ETA BEHERA



Espaloia autoz beteta Moiu bidean

Herritar batek bidali du ondoko argazkia, Moiu bidean ateratakoa. Salatu nahi izan duenez, hainbat autok espaloi gainean aparkatzeko ohitura dute, oinezkoen bidea oztopatuz. Galdegin nahi izan du noizko egongo diren libre ibilgailuz oinezkoentzat diren lekuak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

Uraren analisisien emaitzak guneka

| PARAMETROAK | USONDO PARKEA | ZUBIETAKO ZUBIAREN INGURUA | ORTUIBAR PASEALEKUA | LABEGARIAIETA | BALIO ONARGARRIAK |
|------------------------|---------------|----------------------------|---------------------|---------------|-------------------|
| Nitratoak | 0-5 ppm* | 0 ppm | 5-20 ppm | 5 ppm | < 40 |
| Fosfatoak | 1 ppm | 0 ppm | 1-2 ppm | 3 ppm | < 4 |
| Oxigeno disolbatua | 1 mg/l** | 0-1 mg/l | 0-4 mg/l | 0 mg/l | > 4 |
| Oxigeno saturazioa (%) | %0-20 | %0-20 | %0-41 | %0 | > % 50 |
| pH | 7 | 7-8 | 7-8 | 7-8 | 6,5-8,5 |
| Temperatura | 16° | 16° | 16° | 17° | -- |
| Uheretasuna | 4 puntu | 4 puntu | 4 puntu | 4 puntu | > 1 puntu |

*PPM=MILIOIKO PARTEAK // MG/L=MILIGRAMOAK LITROKO

ITURRIA: IBAIALDE

OHARRAK

Omenaldia dantza txapelketako irabazleei

Euskal Herriko dantza txapelketa irabazi berri duten Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo omenduko ditu Udalak azaroaren 4an; osoko bilkuren aretoan izango da, 18:00etan.

EH Bilduko Iriarte eta Aizpurua Zabalotegin, etzi

Azaroaren 10eko Espainiako hauteskundeetarako ekitaldia antolatu du EH Bilduk azaroaren 3rako. Mertxe Aizpurua eta Maddalen Iriarte etorriko dira; Zabalotegin izango da, 12:30ean.

San Joxepe: Kulturaldikoa laguntzaileei mezua

Erretiratu elkarteak zuzendaritzak esker ona adierazi nahi die Kulturaldia antolatzen lagundu dioten erakundeei eta enpresei.

Jabekuntza Eskola abian: bi ikastaro, prest

Azaroa eta abendua bitartean bi ikastaro izango dira Irizar jauregian, 18:00etatik 20:00etara bitartean: batetik, 'Tuppersex' saioa azaroaren 11n, 13an eta 14an; eta, bestetik, 'Maitasun erromantikoa suntsitzea' saioa abenduaren 3an, 10ean eta 17an

Imanol Beloki BERGARA

Bergarako Udalak herriko emakumeei zuzendutako Jabekuntza Eskola antolatu du. Emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzeko helburuarekin, ahal-duntze-prozesuaren bidez gizar-te justu, plural eta osoagoa lortzeko. Emakumeak elkartzeko espazio bat izango da, esperientziak konpartitzeko eta beharrak eta bizipenak azaleratzeko erabiliko dutena. Halako praktiken bitartez emakumeen arteko sareak sortu nahi dituzte, bide batez, elkar laguntzeko asmoz.

Banakako nahiz taldekako jabekuntza bilatzea da emakumeei zuzenduta dagoen egitasmo honen asmoa, hau da: autokontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, emakume bakoitzak bere gaitasun propioak ezagutzeko eta emakumeei dagozkien espazioak berreskuratzea. Hala, Jabekuntza Eskolan, Mugimendu Feministak garatutako jakintzaz eta produkzio kolektiboaz baliatuko dira. Honek ahalbidetuko du emakumeek eta sexu joera edo sexu-genero identitate askotariko kolektiboek bizi dituzten menpekotasun-egoerak identifikatzea, auzitan jartzea eta errealitatea eraldatzea. Esperientziak partekatuz, gainera, Bergarako emakumeen arteko



Maider Urbieta Berdintasun teknikaria eta Ainhoa Lete zinegotzia kartelarekin. BERGARAKO UDALA

sareak sortu nahi dituzte, elkar ezagutzuz, lagunduz, topatuz eta gozatuz.

Berdintasun Saitetik ahalegina

2018an antolatu zen lehen aldiz Jabekuntza Eskola, eta aurten beste saiakera bat egin gura dute Bergarako berdintasun sailetik, egitasmo honi bultzada emateko asmoz. "Jabekuntza Eskola emakumeen topagune izateko espazioa da, eta edizio honetan bi ikastaro antolatu ditugu bi gai hauek oinarri izanda; *Tuppersex* feminista, batetik,

eta *Maitasun erromantikoa suntsitzea*, bestetik. Hala, udalaren helburua egitasmoa finkatzea da, eta horretarako herriko emakume guztiei egiten diegu deia ikastaroetara animatu daitezen. Aurrera begira, egutegi bat egitea, eta urtero zenbait ikastaro antolatzea litzake nahi genukeena", adierazi du Maider Urbieta berdintasun teknikariak.

'Tuppersex' feminista

Jabekuntza Eskolaren egitarauri dagokionez, azaroa eta abendua artean egingo diren ikastaro

ikastaroetako bat *Tuppersex feminista* da. Amaia Urrejola dinamizatzaileak 18:00etatik 20:00etara bitartean eskainiko du, Irizar jauregian, honako egun hauetan: azaroaren 11n, 13an, eta 14an. "Emakumeen gorputza eta sexualitatea ezagutzeko bideak jorratuko dira. Sexua balio gisa landuz eta desira eta fantasia erotikoko kontuan hartuz, bidea egin emakumeok gure gorputzen eta sexualitateen kontrolaz jabetu, askatasunez modu kontzientean eta arduratsuan bizi eta gozatzeko", adierazi du Amaia Urrejola dinamizatzaileak.

Maitasun erromantikoa hizpide

Bigarren ikastaroa, berriz, *Maitasun erromantikoa suntsitzea* izango da. Loredi Salegiren gidaritzapean, abenduaren 3an, 10ean eta 17an izango dira saioak, Irizar jauregian, 18:00etatik 20:00etara bitartean. "Erlazio onak edukitzea merezi dugulako, ikastaro honetan landuko dugu nolako erlazio motak bizi nahi ditugun, eta zein maitasun eredu eta jokabidetarako hezi gaituzten emakumeok. Aske bizi-

tzeko aukera proposatuko dugu, ondo tratatuak eta maitatuak sentitzea, ez dugu gutxiago merezi eta", adierazi du Loredi Salegi ikastaroko dinamizatzaileak.

Izena emateko bideak

Bi ikastaroak doakoak izango dira, eta horrela eskatzen bada, haurrak dituztenentzat umeak zaintzeko zerbitzua jarriko dute ikastaroak irauten duen tartearako. Hori horrela, ikastaroak Irizar jauregian izango dira, eta hizkuntza, berriz, izena emandakoen arabera zehaztuko dute. Izena eman nahi dutenek ikastaroa hasi baino bost egun lehenago arte izango dute aukera horretarako, eta bide hauek erabili ditzakete: BAZen, 943 77 91 00 telefono zenbakira deituta edo berdintasuna@bergara.eus helbidera idatzita.

EMAKUMEAK ELKARTZEKO ETA ESPERIENTZIAK PARTEKATZEKO ESPAZIOA IZANGO DA

Ziklismoan lehen urratsak

Lokatza ziklismo eskolak antolatutako bizikleta festa benetako jai izan zen pasa den zapatuan. Ehun neska-mutiko inguru batu ziren Bergaran, eta Seminarioko patioan zirkuitua egin eta 17:00etan hasita lasterketak antolatu zituzten gaztetxoendako. Lokatzatik itendako Mikel Aristi eta Julen Irizar ziklista profesionalak ere izan ziren jaietan.



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Tokia dago oraindik

1 MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa
zure zubia

AZAROKO ETA ABENDUKO ETENGABEKO FORMAKUNTZA

FABRIKAZIO MEKANIKOAN

1. EGIATZAPEN TRIDIMENTSIONALA. MCOSMOS. 30 ORDU
2. SOLID EDGE MODELATU ETA PLANOAK. 40 ORDU
3. SOLID EDGE MULTZOAK. 30 ORDU
4. SOLDADURA MAG. 40 ORDU
5. KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA.UF0878. 80 ORDU

ELEKTRIZITATEAN ETA ELEKTRONIKAN

1. BEHE-TENTSIOKO INST. ELEKT. MUNTATZEA ETA MANTENTZEA. 80 ORDU.
2. ROBOTIKA OINARRIAK. 50 ORDU

ADMINISTRAZIOAN

1. TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INF. WORD. UF0320. 30 ORDU

ORDUTEGIA : 18:00 - 21:00 ASTELEHENETIK OSTEGUNERA

100ean Diruz-Lagunduta

IZEN EMATEA :
MIGUEL ALTUNA LH
AGIRREBIDEA 2 - 20570 BERGARA
TELF. : 943 89 92 72
WWW.MALTUNA.EUS



Herritar ugari bildu ziren erakusketaren inaugurazioan, urriaren 11n. MAIALEN SANTOS

Behar bezala borobilduta geratu da omenaldia

Urriaren 11tik 27ra bitartean egon da zabalik Moises Eguren apaiz eta margolariaren koadroz osatutako erakusketa, eta antolatzaileak "oso pozik" azaldu dira ekimenak emandakoarekin: "Katalogo ederra osatu dugu eta erakusketan jende asko ibili da"

Eneko Azurmendi BERGARA

"Oso sentsazio onarekin geratu gara, herritar askok ahaztuta zuten norbait berreskuratu izanaren sentsazioarekin. Beste askorentzat sorpresa bat izan da, ezezaguna zelako. Kontuan izan 1976an hil zela, eta jende gazte askok jakin ere ez du egin Bergaran horrelako norbait egon zenik", azaldu du Xabier Agirrek, antolatzaileetako batek. "Jende gehienak apaiz bezala ezagutzen zuen Moises, eta gutxi batzuk ginen artearekiko bere pasio hori ezagutzen genuenak".

Azpimarratu du, gainera, jende asko gerturatu dela erakusketara. "Aurrera eraman dugun ekimen honi bukaera borobila eman diogu. Inaugurazio duin bat egon zen, omenaldi gisa, eta jende asko pasatu da erakusketatik bi aste hauetan. Aroztegi aretoa, gainera, erdigunean dago eta jendea ez da lotsatzen barrura sartu eta begiratu bat emateko. Horrez gain, adin guztietako jendea ibili dela ere

azaldu du. "Inaugurazioan adin batetik gorakoak izan ziren nagusiki, 60 urtetik gorako jende asko zegoen. Ni neu gaztea nintzen Moises hil zenean, eta orain 64 urte ditut. Beraz, pentsa zenbat denbora pasa den, eta normala da jende nagusia gehiago izatea. Hala ere, gerora, adin guztietako jendea sartu da erakusketara".

Zor txiki bat kitatuta

Moises Eguren zenari "justizia apur bat" egin diotela aitortu du Agirrek. "Izan ere, 1976an hil zen, trantsizioaren hasieran. Inori ez zitzaion okurritu omenaldi bat egitea, baina merezi zuen, eta egin diogu. Bergarako margolarien artean zor txiki bat

XABIER AGIRRE: "EZ DUGU OZTOPORIK IZAN; ERRAZTASUNAK JARRI DIZKIGUTE ALDE GUZTIENTATIK"

geneukan Moisesekiko, oso pertsona eragilea izan zelako eta harengandik gauza asko ikasi genituelako. Orain zor hori kitatu dugula sentitzen dugu".

Obrak, katalogoan jasota

Erakusketak izan duen erantzun onaz gain, Egurenen obra gehienak katalogatu izanarekin ere oso pozik azaldu dira. "Katalogo eder bat editatu digute udal txetik, eta hori eginda geratzen da, betirako jasota. Lan hori erakusketarekin borobildu dugu, gainera. Beraz, horretan ibili garenek pozik gaude. Ez dugu inolako oztoporik izan, eta alde guztietatik erraztasunak jarri dizkigute, bai instituzioek, eta baita koadroen ugazabek ere".

16 koadro falta zaizkie, Egurennek margotu zituela jakin arren, fisikoki ez dituztelako. "Ez dugu horiek aurkitzeko saiakerarik egingo; ekimena bukatutzat ematen dugu, baina agertzen badira, gustura sartuko ditugu katalogoan", dio Agirrek.

Herio Anderearen errituak ezagutu dituzte Angiozarren

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, bi bisita gidatu egin ditu Jon Arroita Elexamendiko ermitan

E.A. BERGARA

Azken urteetan ez dute egin bisita hau, eta aurten berreskuratu egin dute. "Angiozarko plazan elkartu, eta Elexamendira oinez joaten gara. Helburua da ezagutzea edo ulertzea nondik etorri diren orain dela gutxira arte euskaldunen artean oso normalak izan diren heriotzaren inguruko errituak. Angiozarren hainbat gauza mantendu egin dira heriotzaren kultura horren inguruan, aspaldiko jarlekuak edota katafalkoak, eta horregatik egin dugu han bisita hau.

Baserrien historiari eta Elexamendiko arkitekturari buruz berba egiteko ere baliatzen dugu, baita artelanei buruz ere. Ezin dugu ahaztu Andra Mari harribitxi bikain bat dela eta balioan ipini behar dugula hori", dio Arroita.

Azaldu du egun "oso urrun" eta baztertuta daukagula heriotza, eta belaunaldi gazteek are gehiago. "Hala ere, ulertu behar da gure arbasoentzako bizitzaren parte bat zela. Hildakoak bizirik mantentzen ziren espiritualki. Hori kulturaren parte da".



JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Kontu eta kanten artean gustura

Goiena komunitatea / Jardun Euskara Elkartea / BERGARA

Dagoeneko estreinatu dugu *Hitzen ahairea* ikastaroa, baina oraindik bi saio gelditzen zaizkigu, azaroaren 7koa eta 28koa. Izen-ematea zabalik dago, bulegoan, jardunkultura@topagunea.com helbidera mezu bat idatzita, edota telefonoz deituta: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 zenbakira.

Oraindik lekua dago sormen artistikoko ikastaroa jasotzeko

Beart elkarateak antolatzen duen ikastaro hauek urritik ekainera bitartean egingo dituzte, egubakoitzetan, 17:30etik 20:30era. Sormen artistikoko teknika berriak probatzeko eta sormen prozesuan sakontzeko "aukera ona" izango dela diote. Izena emateko, beart.elkartea@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 690 25 14 50 (Amaia).

441 HZ abesbatzaren emanaldia bihar Seminarixoa

Tolosako Nazioarteko Abesbatzen 51. Lehiaketaren baitako kontzertua izango da, 19:00etan hasita. 2006an sortu zen abesbatza hau, Gdansk Musika Akademiako ikasleek bultzatuta, eta Poloniako abesbatza ezagunenetakoa da egun. 2018an Llangollenen (Gales) jokaturako lehiaketan munduko laugarren abesbatza onena izendatu zuten.

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA

DEBAGOIENA ESKUALDE BATUA
AZARAREN 7AN
21:30 EAN ETA 23:30EAN

Debagoienaz, gure eskualdeaz, hausnartzeko parada hartu du Goiena telebistak. Debagoiena 2030 ekimenarekin elkarlanean ekoiztutako erreportajeak. Zer da Debagoiena? Badu izaera propiorik? Zer nolakoak dira herrien arteko harremanak? Eta herritarren eta eragileen artekoak?

UMORETIK
Potx eta Lotx palazoan hausnarketek emango ditte hasiera saloeri. Herritarrek ere izango dute tokia eta guztien artean herrien gaineko topikoaz arituko dira, umorez. Erreportajeak, baina, beste tonu bat hartuko du minutuek aurrera egin ahal. Elkarlanean zein indar du gaur egun eskualdean? Zein dira eskualdeak dituen emonka nagusiak? Nola egin elkarrekin horiei aurre egiteko?

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2019
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

ALBISTEAK
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
14:30/16:15/17:00/17:45

ELKARRIZKETTAP
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

HARMAILATIK
ASTELEHENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

HARIRA
ELKARRIZKETA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:30EAN
EZTABAIDA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:00ETAN

HEMEN DEBAGOIENA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00/20:00/22:00

HUHEZINEMA
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

OSOKO BILKURAK
ARRASATE, OÑATI ETA BERGARA
ZAPATUETAN: 19:00ETAN
DOMEKETAN: 12:00ETAN ETA 22:00ETAN

HALA BAZAN
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.

Neska-mutikoendako txangoa, Enaitzera

Kantsatzeke Txiki egitasmoaren barruan Arantzazu-Enaitz-Urbia-Arantzazu ibilbidea proposatzen dute Elgetako mendi taldetik azaroaren 10erako. Jendetsua izan zen udaberrian Atxorrotxera egindako txangoa. Urteko bigarren irteera ere prestatu dute

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako Kantsatzeke Mendi Taldea 2017an hasi zen familia giroan egiteko moduko irteerak proposatzen. Orduetik, eta eguraldi kontuak gorabeheran, bi txango antolatu dituzte urtero, bata udaberrian eta bestea udazkenean. Ekainean Leintz Gatzaga eta Atxorrotx arteko ibilbidea egin zuten 40 bat lagunek eta udazkenean Arantzazu-Enaitz-Urbia-Arantzazu proposatu du mendi taldeak. Azaroaren 10erako egin dute hitzordua, eta eguenera arte dago zabalik izenematea.

Adin guztietarako zabalik dagoen irteera da eta, aurrekoetan moduan, adin txikiek guraso edo nagusi baten ardurapean parte hartzea eskatzen dute. 11,5 kilometroko ibilbidea da oraingoan proposatzen dutena, eta lauzpabost orduko irteera izango dela adierazi dute. Nork bere janaria eraman beharko du.

Taldea 08:30ean elkartuko da, Mendizaleen plazan, eta autotan egingo dute Arantzazurainoko bidea. Garraioa antolatzeke komeni da jakitea nortzuk dauden autoa eramateko prest. Izen-ematea 6 euro da nagusienak eta 4 euro adin txikienak. Garraio gastuak ordainzera bideratuko da dirua.



Elgetar taldea, udaberrian, Atxorrotxera egindako txangoan. KANTSATZEKE MENDI TALDEA

HIRU URTEOTAN ANDASTON, AITZULON, XOXOTEN ETA ATXORROTXEN IZAN DIRA GAZTETXOEKIN

Hainbat leku ezagutzeko aukera
Hiru urteotan hainbat leku ezagutzeko aukera izan dute Kantsatzeke Txiki egitasmoaren baitan antolatutako irteeretan parte hartu duten umeek eta nagusiek.

Andastora egin zuten lehen irteera, 2017ko maiatzean, eta Aitzulo izan zuten helmuga urte bereko udazkenean. 2018ko maiatzean Buruntzuzinera antolatu zuten irteera, baina eguraldi kontuengatik Xoxoterako bidea hartu zuten, azkenean. Aurten, Debagoieneko paraje bi ezagutzeko aukera izango da.

Kantsatzeke Txiki egitasmoaren helburu nagusia da neska-mutikoen artean ere mendirako afizioa sortzea. Hala, irteera horietan gazteek markatzen dute erritmoa.



L.Z.L.

Kalabazak prest Arimen Gauerako

Martitzenean hainbat kalabaza hustu zituzten Elgetako neska-mutikoen. Erabiliko dira seigarren mailako ikasleek gaur, 19:30ean, egingo duten antzerki ibiltaria girotzeko. Berrikuntzekin dator ikuskizuna eta bost geraleku izango ditu aurten: San Roke osteko parkea, hilerria, Maialde hotela, San Roke kaleko arkua eta plaza.



ELGETAKO EGUNEKO ZENTROA

Eguneko Zentrokoak, Zumaiara

Goiena komunitatea / Elgetako Eguneko Zentroa / ELGETA

Udazkeneko eguraldi ederra baliatuta irteera egin dute Eguneko Zentroko erabiltzaileek. "Joan zen hilabetean Elgetatik Zumaiara joan ginen. Portua ikusteko eta hango tabernan hamaiketako hartzeko aprobetxatu genuen. Eguraldi zoragarria egin zuen eta primeran pasa genuen!".

Laster, mendi irteera eta baba-jana

Mendi taldeak ia hilero antolatzen du nagusiendako irteera. Urbasara joatekoak ziren urrian, baina eguraldi txarra zela-eta Elgeta inguruan egin zuten mendi buelta hilaren 20an. Azaroaren 17rako, hitzordu berezia dute; mendi irteera Urkora eta baba-jana Intxorta elkartean. Baba-janera joateko ez da beharrezkoa mendi irteeran parte hartzea.



Urriko irteeran Elgeta inguruan egin zuten ibilbidea. KANTSATZEKE MENDI TALDEA

OHARRAK

Gurasoen batzarra

Maala guraso elkarteak urteko batzarra deitu du azaroaren 5erako. Eskolan izango da, 19:00etan.

Literatura solasaldia

Eguenean, azaroak 7, ikasturteko lehen saioa egingo dute liburutegian. *Ipuin harrigarriak* liburuko hiru ipuin aztertuko dituzte. Argibideak, liburutegian.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

Ainhoa Zeziaga-Janire Lazkano / Maitena Mañarikua-Uxue Larrea **10-18**
Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Zigor Martin-Gorka Bolinaga **18-06**
Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Eneko Ormaetxea-Alain Valle **18-17**
Txomin de Vega-Diego Cantabrana / Beñat Arabaolaza-Jon Irazabal **16-18**

HURRENGO PARTIDUAK

Asteburua berezia izanik, zubia izango dute pilota txapelketan ere. Hurrengo partiduak azaroaren 8an jokatuko dituzte.



Kultura zinegotzi Mikel Bargiela, Olanan zine aretoa atontzen. MAIDER ARREGI

Olanan abiatuko da zine denboraldia

Bertsio originalean eta azpitoluekin izango dira filmak ikusgai azarotik apirilera bitarteko azken domeketan. Urtariletik aurrera, ordea, Torresoroan eskainiko dituzte pelikulak. Jugoslaviako gerra ardatz duen istorioak irekiko du zikloa hilaren 24an

Maidar Arregi ANTZUOLA

Azaroan hasi eta Aste Santura arte, hileko azken domeketan herrian dauden ekitaldien arabera, betiere film emanaldiez gozatzeko aukera dute antzuolarrek. Ez dira film komertzialak, baina bai askotariko gizarte gaiak azaleratzen dituztenak. "Filmazpit-en katalogotik sailkapena egin dugu. Izan ere, katalogoak 20 bat pelikula jasozten ditu. Askotariko gaiak izaten dira aukeran: drama, komedia, beldurra, animazioa... egingako aukeraketa bariatua eta sakona izaten saiatzen gara. Gure helburua jendeari zer pentsarazi eragingo dieten filmak aukeratzea izan da", azpimarratu du Kultura zinegotzi Mikel Bargielak.

Euskarazko azpitoluak

Filmazpit programaren bitartez euskarazko azpitoluak sustatu gura du Antzuolako Udalak. Edozelan ere, zenbait film gaztelarazko azpitoluekin eskain-

tzen dira euskarazkoarekin batera. "Zine Euskadik finantzatzen duen Jaurlaritzaren programa da Filmazpit, eta asmoa da euskarazko azpitolua duten filmak bultzatzea. Orokorrean, euskarazko ikus-entzunezkoak sustatu gura dira".

Filmen artean, Europakoak eta Amerikakoak daude: "Iaz, hegoamerikarrak, korearrak eta europarrak, besteak beste, izan genituen ikusgai. Aniztasuna da nagusi eta herritarrei gonbidapena egin gurako nieke", gaineratu du. Gogoan izan sarrera doakoa dela.

Mikel Bargielak azaldu du filmak ikustera ez dela herritar ugari gerturatzen; hala, herritarrei dei egin gura die. "Zi-

"HAUSNARKETARAKO BIDE ERE BADIRA FILMAK; ASKOTARIKO GIZARTE GAIK LANTZEN DIRA"

kloaren lehen filmak, *Cold November*-ek, Jugoslaviako gerra du ardatz. 90eko hamarkada hasierako giroa askok gogoratzen dugu, eta hausnarketarako bide izango da filma zenbaitendako".

Aukeren artean, filmen gaineko mahai inguruak egitea ere badutela buruan bueltaka dio Kultura zinegotziak.

Film emanaldiak

Abenduan, *Tomboy*; urtarilean, *El rey*; otsailean, *Mutafukaz*; martxoan, *The Florida project*; eta apirilean, *The sweet season*.

Urtariletik aurrera Torresoroa areto berrituan eskainiko dira film emanaldiak.

Herriko kultura jardueraren gaineko hausnarketa egingo dute

'Antzuolako Plan Estrategikoa 2018-2030' ekimenaren baitan, herriko kultura jarduera aztertuko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Parte hartze prozesuaren bitartez, Antzuolako udalak herritarrekin batera herriko kultura jardueraren inguruko hausnarketa egin gura du azaroan hasi eta urte bukaera bitartean. Izan ere, 2018an abiatutako *Antzuolako Plan Estrategikoa 2018-30* ekimenaren baitan, herritarrek azaleratutako kezka eta lehen-tasunen artean herriko kultura jarduera zegoen.

Hiru saio aurreikusi ditu Antzuolako udalak: lehen azaroaren 28an, eguena, egingo da; zehazki, mahai inguruak izango da. Bertan, herriko kulturaren bueltan lanean dabilzan eragile, elkarte zein profesionalen eginiko elkarrizketak hausnartuko dituzte. Abenduaren 12an eta 19an, aldiz, saio irekiak egingo dira. Guztiak Olanen etxean, 18:30ean hasita.



Larrugintzaren gaineko saioa. GOIENA

Larrua eta alardea

Aurten jada kultura oinarri, bi saio egin dituzte. Lehen saioan larrugintzaren ondareaz jardun zuten herritarrek; bigarren saio irekian, berriz, Mairuaren Alardearen 10. urteurrena dela-eta balorazioa egin zuten.

Irteera gastronomiko-kulturala egingo dute erretiratuek

Azaroaren 14rako, eguena, Lizarra eta Metautera irteera antolatu du Landatxope erretiratu elkarteak. Txango gastronomikoa eta kulturala izango dela aurreratu dute.

Asmoa da, lehenik, trufa museora bisita egitea. Trufa-txakuraren trebatze erakustaldia ere ikusiko dute eta eskualdeko jaki dastaketa egingo dute. Ondoren,

bazkaltzera joango dira. Eta arratsaldean, erretiratuek Lizarra bisitatuko dute tren turistikoan. Hala, honen sorrera, historia eta monumentu esanguratsuenak ezagutzeko aukera edukiko dute. 18:30ak aldera izango da itzulera ordua.

Izena emateko egunak azaroaren 4an eta 5ean 16:00etatik 18:00etara bitartean Landatxo-peko bulegoan bertan. Aipatu behar da egun horietan Gabonetako loteria erosteko aukera izango dela.

OHARRAK

Ipuin kontalaria

Azaroaren 3an, Nere Ariznabarreta ipuin kontalariaren emanaldia izango da Olanan, 18:00etan. 3 eta 10 urte arteko haurrendako ipuin kontaketa saioa da.

Derbia Ibarra zelaian

Antzuolak UDAREN aurka jokatu du Ibarra zelaian, Aretxabaletan. Partida gaur, eguena, jokatu dute, 20:00etan. Antzuola 12. postuan dago eta UDA, aldiz, 14.ean.

Hika emakumeengana zuzentzeko saioak

Gaur da hika ikastaroetan izena emateko azken eguna. Interesa dutenek, deitu 943 76 60 65 telefonora.



Ulmako Lander Diaz de Gereñu, Izaro Elorza alkatea eta Bidebarriko Jon Igartua hitzarmena sinatzen. JULEN IRIONDO

Zailtasunak dituztenak laneratzeko konpromisoa

Gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten herritarrak lan merkatuan sartzeko konpromisoa berretsi dute Oñatiko Udalak, Bidebarrik eta Ulma Fundazioak. Egitasmo hau erkidegoko administrazioetan eredu izatea gura du Gizatek

Oihana Elortza OÑATI

Gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituztenak gizarteratzeko azken fasean, lan merkatuan sartzen, laguntzeko konpromisoa hartu zuten joan den urtean Oñatiko Udalak, Ulma Fundazioak eta Bidebarrik, eta konpromiso hori berretsi egin dute astean hiru aldeek.

Bakoitzaren konpromisoa

Martitzen arratsaldean sinatu zituzten hiru aldeek konpromiso hori jasotzen duen akordioa. Alde bakoitzak bere konpromiso propioa hartzen du proiektu hau gauzatzeko. Udalarena, esaterako, dirulaguntza ematea da. Joan den urteko diru kopuru bera izango du aurten ere egitasmoak: 20.000 euro, Udalak eta Ulma Fundazioak erdibana jarritakoak. "Diru hori 50 langile baino gutxiago duten langietan laneratu ahal izateko izango da", zehaztu du akordioa sinatzeko ekitaldian Izaro Elorza alkateak.

Eta hain zuzen ere, Udalak egiten duen laguntza hori beste toki batzuetan ere eredu izatea gura du Gizatek, Euskadiko Gizarteratze eta Laneratzeko enpresak, Bidebarriko arduraduna den Jon Igartuak adierazi duen moduan: "Gizatek gura du ekintza hau eredu izatea erkidegoko beste administrazio publikoetan, gure kolektiboa lan merkatuan sartzeko laguntza ekonomiko batekin".

Igartuak azaldu zuen moduan, Bidebarrik bi mailatako konpromisoa hartzen du Laneratzeko egitasmo honetan: "Ulma taldean batez ere profil industrialaren duten pertsonak laneratzeko gura dute, eta bestelako profila dutenak, herriko beste lantegi

HERRIKO 50 LANGILETIK BEHERAKO ENPRESEK JASO AHAL IZANGO DUTE DIRULAGUNTZA

ezberdinetan. Azken batean, gure nahia da herritar hauek amaiera txukuna izatea lan munduan sartzeko prozesu honetan. Bestalde, gehienez hiru urte egiten dituzte Bidebarri bertara iristen diren pertsonak, baina motzagoa izatea gurako gure, gurekin, gutxienez, urtebete egonda, hori bai. Euren gabezia sozio-pertsonalak eta formakuntza hobetzen saiatzen gara urtebete horretan".

Ulma Fundazioko presidente Lander Diaz de Gereñuk uste du joan den urtean hasitako bidea jarraitu beharra dagoela: "Batetik, Bidebarri eta Udalarekin batera dirulaguntzen bidez bultzatuko dugu laneratzeko prozesuaren bukaera, eta bestetik, Ulma taldeko enpresetan gure kabuz lan prozesu hori erraztea, horretan jendea murgilduz".

Aurtengo uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era egiten dituzten kontratuengatik jaso ahal izango dute enpresek dirulaguntza.

352 ohe asteburuan kanpotik etorriko diren bisitariendako

Bisita eta ekintza bereziak egongo dira herrian bertan, Arantzazun eta Arrikruz kobetan, esaterako

O.E. OÑATI

Oñatik dituen eskaintza guztiak batu eta egokitu ditu Udaleko Turismo Sailak asteburu honi begira.

Herri barruan, esaterako, ohiko bisitak egingo dituzte Txokolatexara, unibertsitatera eta parrokiara. Baina baita Oñatiko kondeen kripta ezagutzeko bisita gidatu berezia ere. Arrikruztzeko kobetan, 53. galeria ikusteko eta lehoiaren historia ezagutzeko ibilaldia egingo dute eta Arantzazun ere egongo da zer ikusia: Xavier Alvarez de Eulate pintura lehiaketako lanak edo parketxea, esaterako. Inaziotar Lurralde oinez egiten duen ibilaldia ere egunotan pasako da handik. Gomiztegi artzain eskola ere bisitatu ahal izango dute, eta, noski, baita Urbia alderako mendi ibilaldiak egin edo eskalatu ere.



Oñatiko kondeen kripta. GOIENA

Atsedeen tokiak

Turistek zer egin eta zer ikusi ez ezik, non atsedean hartu ere izango dute Oñatin. Izan ere, 352 ohe prest egongo dira datozen egunetan bisitariendako, izaera eta kategoria ezberdinetako ostatuetan, gainera.

Gazteendako sormen dirulaguntzarako bigarren deialdia

Udalak gazteendako ematen dituen sormen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Urteko bigarren deialdia da hau eta interesa dutenek azaroaren 10a aurretik egin behar dute eskaera gaztelekuan.

Oñatiko irabazi asmorik gabeko gazte taldeek 2019. urtean garatuko dituzten jarduerak eta egitarauendako dirulaguntzak

eskatzeko deialdia onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak otsailan. Gazte elkarten sustapenerako eta musika taldeen CD grabazioetarako dirulaguntzak, hain zuzen ere. Aurrekontuan dirua geratu denez, 8.194,50 euro, bigarren deialdia zabalik dago eskaerak egiteko. Haur eta Gazte saileko teknikariak aditzera eman duen moduan, herriko gazte elkarteek eta musika taldeek egin dezakete eskaera. Azaroaren 10a da epea eta gaztelekuan egin behar dira.

Kanposanturaino helduko da autobusa azaroaren 1ean

Domu Santu egunean, bihar, azaroak 1, hilerriraino helduko da Arantzazurako autobus zerbitzua. Egun horretan, beraz, autobusez egin ahal izango da kanposanturako joan-etorria. Autobusaren ordutegia neguko izango da, hau da: 07:30etik 17:30era. Neguko ordutegi hori martxora bitartean izango du autobus linea horrek.

Mobilizazioak "indartuko" dituzte pentsiodunek

Datorren asteko mobilizazioak "indartzea eta zabaltea" erabaki dute herriko pentsiodunek, "hego Euskal Herriko pentsiodunen plataformek iragarri dituzten mobilizazioak bultzatze aldera". Astelehenean egindako kale agerraldian hartu zuten erabakia. Hurrengo astelehenean ere kalera aterako dira, ohienez, 12:00etan, Foruen plazan.



MUko Enpresagintza Fakultateko beheko solairuan dago Maker Gunea. KEPA ARANBURU

Teknologia berriei beldurra kentzeko gunea

3D inprimagailuak, eskaner bat eta ebakitzaila bat jarri dituzte MUko Enpresagintza Fakultatean egokitutako 'Maker Gunean', herritarrek erabiltzeko. Kolaborazio eta talde lana egiteko gunea ere izatea gura dute bultzatzaileek, proiektuak gauzatzeko

Oihana Elortza OÑATI

"Fakultate barruan dagoen gunea da *Maker Gunea*, baina herritarrendako ere irekia da. Gura duguna da jendea etortzea eta ikustea gailu hauekin zer egin daitekeen eta teknologia berri hauek aprobetxatzea euren proiektuak garatzeko", dio *Maker Gune*ko arduradunetako batek, Asier Aranburuk.

Adibide praktikoak

Oñati rocking lab du izena, hain zuzen ere, gune horrek, teknologia berriekin batera musikak ere baduelako tokia txoko horretan. Bi gelatan daude banatuta erabilgarri dauden aparailuak: gela txikienean dago ebakitzaila eta luzeenean 3Dn inprimatzen duten hiru gailu eta eskaner bat. "Eskaner hau berezia da, 3D eskaner bat da. Berez, X Box jokoak duen gailu bat da, lehen jokatzeko erabiltzen zen eta orain 3D eskanerra egiteko. Pertsona edo objektu baten irudi ezberdinak hartu eta pro-

grama konkretu baten bitartez ikusten dituen irudi horiek inprimatzera botatzen ditu eskanerak", dio Iker Egizabalek, gunearen bigarren arduradunak. Adibide bat jartzeko eskatuta, hankako protesi bat hartu du eskuan: "Horrelakoak egin daitezke, beharra duenarendako propio balio duten piezak hartu, testatu eta horiek inprimatzera bota". Horrelako pieza ortopedikoak egiten ditu, esaterako, Antton Epelde zarautzarrak 3D inprimagailuak erabilia. "Material ezberdinak erabili daitezke, gainera, gogorragoak edo malguagoak, adibidez. Ideia izanez gero, landu eta egin egin daitezke inprimagailu horiek erabilia".

GAILUAK HERRITARREK ERE ERABIL DITZAKETE EUREN PROIEKTUAK EGITEKO

Makinaz gain, marrazketarako esku ona eta ordenagailuen gaineko jakinduria behar dela gaineratu du Epeldek. Bat egiten du horrekin Egizabalek: "3D eskanerra erabiltzeko marrazten ondo jakiteak ez du inprimagailuak erabiltzeko beste garrantzirik, baina bai programa edo software batzuen erabilpena jakiteak. Behin jarrita, baina, ordu gutxitan, erraz trebatu daiteke pertsona bat horrelako gailuak erabiltzera".

Leinn barruan

Mondragon Team Academy izeneko zatiaren barruan dago gune hau, Leinn gradua dagoen tokian. Ekintzaileak eta proiektu diferenteak daude hor. Zortzi enpresa daude eta bakoitzeko ordezkariak daude sartuta gune honetan. "Taldea bat gara, langileak eta ikasleak lankidetzan. Etorri, hau zenbat eta gehiago ezagutu gero eta entretenituagoa eta interesgarriagoa da-eta", esan du Aranburuk.



Zintak jarri dituzte lanak egiten ari diren tokian. M.R.

Hasi dira Olakua auzoko kirol pista eraberritzeko lanak egiten

Argiteria berrituko dute lehenengo eta kirol espazioari egokitutako lanak egingo dituzte horiek bukatu ostean

O.E. OÑATI

Partaidetzazko aurrekontuetan herritarrengandik jasotako proposamenen artean Olakuako kirol pista berritzearena izan zen aukeratuetakoa bat. Hainbat lan egingo dira kirolgune horretan eta lanak hasita daude dagoeneko.

Argiteria berritzeko lanekin hasi dituzte obrak. Jarriko diren fokuetakoa batek, gainera, pista ez ezik, Olakuako dorrea ere argizatuko du. Lan horiek egingadakoan hasiko dira kirol guneari dagozkionak egiten: kirol praktikatuko erretxina zoladu-

raren aplikazioa; areto futbol zein saskibaloi jolas espazioen margotzea; areto futbolero ateen margotzea; egurrezko hesia jartzeta, eta lau saski berri jartzeta. Kanasta zaharrak aurreko astean kendu zituzten.

Lan hauen aurrekontua 47.000 eurokoa da eta iraupena, berriz, hilabete batekoa. Eguraldiak, baina, eragin zuzena izango du obraren iraupenean. Izan ere, eguraldi ona behar da, adibidez, lurreko tratamendurako. Udalak adierazi du ondo bidean, eguraldi onarekin, aurreikusitako epean bukatuko dituztela lanak.

GORA ETA BEHERA



A.A.

Ispilu barik ezin behar bezala ikusi



Euskadi etorbidearen eta Maria Irizar kalearen kantoiko ispilua falta da eta herritar batek faltan igarri du, "Kurtzebidetik etorbidean sartzeko lagungarria" zitzaielako oso.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Capilla Gregorianista Donosti Ereski korua. DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

Azaroko domeketan, Santa Ana musikaz blai

'Musikegunak' egitasmoaren 41. edizioa domekan hasiko da Capilla Gregorianista Donosti Ereski koruaren emanaldiarekin. Azaroko domeketan izango dira gainontzeko hiru emanaldiak –lau izango dira–, Santa Ana antzokian 19:00etan hasita

Maialen Regueiro OÑATI

Oñatiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean antolatutako *Musikegunak* egitasmoaren 41. edizioa asteburu honetan hasiko da. Guztira, lau emanaldi izango dira eta, beste urte batzuetan bezala, guztiak Santa Ana Antzokian izango dira eta 19:00etan emango zaie hasiera. Lehen emanaldia domekan izango da, azaroaren 3an, Capilla Gregorianista Donosti Ereski koruaren eskutik. Gauzak horrela, 41. edizio honetan, bi abesbatzak eta beste bi musika taldek hartuko dute parte, txandakatuz.

Koru bikoitza

Capilla Gregorianista Donosti Ereski koruak, gaur egun Jokin Otamendik zuzentzen duenak, berrogei urte baino gehiago daramatza musika gregorianoa eskaintzen. Horrez gain, azaroaren 17ko emanaldia ere abesbatza batek eskainiko du: Suhar gizon-koruak, hain zuzen. Kasu honetan, 26 abeslarik osatzen

Emanaldien egitaraua

Kontzertua guztiak Santa Ana Antzokian izango dira, domekan, 19:00etatik aurrera.

Azaroak 3

- Capilla Gregorianista Donosti Ereski.
- Zuzendaria: Jokin Otamendi.

Azaroak 10

- Musbika Ensemble.

Azaroak 17

- Suhar, Gizon-korua.
- Zuzendaria: Esteban Urcelay.

Azaroak 24

- Entreatre laukotea.

duten abesbatza hau 2018an sortu zen eta, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzenduta, alemaniar eta austriar musikagile erromantikoaren musika eskaintzen dute.

Musika taldeak

Bi abesbatzez gain, beste bi musika taldek hartuko dute parte edizio honetan. Musbika Ensemble izango da lehen taldea, azaroaren 10ean emanaldia eskainiko duena eta XVIII. mendeko euskal eta europar musikagileen musika lantzen duena. Aurten go azken emanaldia, berriz, Entreatre taldearen eskutik izango da, azaroaren 24an. Talde hau lau gitarristak osatzen dute eta Espainiako eta Latinoamerikako musikagile handien lanak interpretatzen dituzte.

Sarrerren salmenta

Emanaldietarako sarrerak aurrez erosteko aukera dago, sei eurotan, gazteleku ondoko leihatila digitalean edota www.oñati.eus atarian.

Azaroaren 9ko X. Film Labur Rallyko izen-ematea zabalik da

Gehenez hogeitasei taldek hartu dezakete parte azaroaren 9an eta dagoeneko hamalau taldek eman dute izena

M.R. OÑATI

Asteon zabaldu da –urriaren 28an, astelehena– azaroaren 9an egingo den X. Film Laburren Rallyan parte hartzeko izen-ematea. Antolakuntzatik adierazi dute dagoeneko 14 taldek eman dutela izena eta rallyan gehenez 20 taldek hartuko dutela parte, eta, horrekin batera, sare sozialen bitartez, herritarrei parte hartzeko dei egin diete.

Izena ematerakoan obr.antolakuntza@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali behar da eta hainbat datu adierazi:

taldearen izena, taldekide kopurua –gehienez, zortzi kide–, herria eta taldeko arduradun baten izena, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Gauzak horrela, azaroaren 9an, rallyko antolakuntzako ki-deek 08:00etan egingo dute aurtengo gai banaketa, gaztelekuan. Modu horretan, parte hartzaileek 11 ordu izango dituzte ikus-entzunezkoa egiteko. Hala, 21:30ean Santa Anan egingo da sari banaketa. Aurten, hamargarren edizioa streaming bidez jarraitzeko aukera ere egongo da.

Sailkapeneko lehen postuei eusteko aukera Aloña Mendik

Azken jardunaldian Azkoagain futbol zelaian jokaturako partiduan Billabona mendean hartu ostean, 1-0, Endika Ruizen mutilek ez dute asteburu honetan atsedenik hartuko eta bihar, egubakoitza, jaieguna bada ere, sailkapenean bosgarren postuan dagoen Zumaiakoren aurka jokaturako dute, Aita Mari futbol zelaian, 17:00etan hasita.

Modu horretan, oñatiarrek sailkapeneko bigarren postuari eusteko aukera izango dute, bigarrenetik hirugarren sailkapenera pasa edota lidergoa eskuratu. Izan ere, lehen eta hirugarren sailkatuek –Beasain eta Lagun Onak, hurrenez hurren– elkarren aurka jokaturako dute asteburuaren eta horrek aldaketak eragin ditzake sailkapenean. Gauzak horrela, oñatiarrek orain arte jokaturako zazpi partiduetatik bost irabazi dituzte, bat berdindu eta bat galdu.



ARANTZAZU EZKIBEL

Zuri-gorriak 'Gure kasa' saioan

Ritxi Mendiguren eta Oñatiko Zuri-gorria taldeetan daude banatuta herriko Athletic Club-eko jarraitzaileak. Urtero, Gipuzkoako Zuri-gorrien Eguna ospatzen da eta 2020koa Oñatin izango da.

Bi taldeetako kideak hori guztia ETB1eko *Gure kasa* saioan azaltzeko elkartu dira, Lazarragako lorategian.

ASTE HONETAN

EDURNE KOCH

MAITE MAIORA

LEIRE ORBE



Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

DOAN

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Beñat Alberdi BERGARA

Aurten ere, enegarrenez, esku-ratu du Aitor Zabaletak (Bergara, 1963) lehenengo postua Euskadiko Mendi Igoera Txapelketan. 39 urte daramatza jada lehiatzen, eta uzteko asmorik ere ez dauka oraindik, baina esperientziak balio dio txapelketaren iragana eta oraina alderatzeko.

Bederatzi lasterketak osatzen dute Euskadiko Mendi Igoera Txapelketa. Bederatzietan parte hartu duzu. Askotan gogoak irabazten dio beharri?

Bederatzi karrera dira eta seirekin puntuatu dezakezu. Bat kendu behar duzu bai ala bai. Nik, bi kenduta, beste guztiak neuzkan irabazita. Urrakiko azken lasterketa aurretik 11 puntu lortzearekin nahikoa genuen txapela lortzeko. Ez nintzen Urrakira joan irabazteko asmoarekin, bukatzeko asmoarekin baizik; arriskurik hartu barik, autoa ez apurtzeko. Karrera bat kendu behar nuen eta Urrakik izan behar zuen. Baina antolatzailleak deika jardun zuen, joateko mesedez, eta zela etxe ondoan dagoen... Ez neukan ezer erakutsi beharrik, baina beti daukazu gogo hori.

Makina bat urtetan jarraian lortu duzu txapela. Errutina bihurtu da?

Ez digute erraz uzten. Gazte jendea fuerte dator. Oraingo auto modernoek ez daukate zerikusirik nire autoarekin. Ez dute egoera berberetarako balio. Nireak 655 kilo dauzka eta berriek, berriz, 400 eta gutxi. Zaldiak ere gutxiago dauzkate. Baina euritan ibiltzeko eta labanak diren errepideetan, Udanan, adibidez, hobeak dira. Nik, horrelako kasuetan, ezin ditut autoaren zaldiak erabili. Bustian eurek daukate irabazteko erraztasuna.

Eguraldia al da emaitza baldintzatzen duen faktorea?

Bai. Sikuan, daukazun dena atara dezakezu, zuk eta autoak. Euritan, askotan, suertea da. Trafiko askoko bideak dira, normalean, eta zulo mordoak izaten dituzte, adibidez, pinuak botatzen dituztelako. Inork ez ditu kontuzten. Guk, ordea, ahalik eta azkarren joan behar dugu.

Lasterketetan aritzen zaretenok ezagutzen al dituzue errepideak inork baino hobeto?

Udanari, Goriari eta beste askori falta zaie asfalto kapa bat, hobeto heltzeko. Askotan, saltoka goaz. Ahuntzak ematen dugu.



Aitor Zabaleta karreretako autoan –Lola BMW– eserita, Bergarako San Juan auzoan duen tailerlean. BEÑAT ALBERDI

"Saiatuko naiz lasterketatik beranduenen erretiratzen"

AITOR ZABALETA AUTO PILOTUA

Mendiko auto igoeretan lehiatzen segitzeko asmoa azaldu du Aitor Zabaletak, denboraldia amaitu berrian. Aurten ere, Euskadiko txapelketa da

Gazteak fuerte datozela aipatu duzu. Urteetako esperientziak garrantzia al du, orduan?

Esperientziak laguntzen du, baina oraingo autoek aldea markatzen dute. Urrakin auto berri baten aurka lehiatu ginen. 500 zaldi edo horrelakoren bat ditu, eta pisua beste horrenbeste. Orduan, auto eta pilotu horiei irabaztea nekeza da. Horrelako automobilak geroz eta gehiago daude. Gainera, oso garestiak dira. Guk gurea daukagu, eta ni ahaleginduko naiz segitzen. Badakit, bihar ez bada etzi, irabaziko digutela ez batek, denek. Saiatuko naiz eurei ere nekez ipintzen; ez, behintzat, atea zabal zabalik.

Auto berrien aurka lehiatzea ez da erronka berria?

57 urte dauzkate, ez dauka zerikusirik. Halere, 60 urte eduki eta buruz eta gorputzez fresko bazeude, ez dago arazorik lehiatzeke. Arrisku gehiegi hartzen ditugu, eta gure langintza ez dago ondo ordainduta. Horrez gain, ez daukagu, beste kirol askotan bezala, laguntza handirik. Izan badugu, ezin naiz kezatu, baina gehiago beharko lirateke puntako autoa edukitzeko.

18 urte zenituenetik jardun duzu auto lasterketetan lehiatzen. Erretiroak ba al dauka datarik?

Jende asko ari zait adarra jotzen erretiratzeke: ez dakit zer, badakit zer, semeari lagatzeko autoa... Baina ahaleginduko naiz ahalik eta beranduen uzten.

39 urte txapelketetan eta ia beti auto berarekin. Familiakoa bihurtu da?

Nirekin 31 urte doa, baina nirekin. Aurretik beste 10-12 urte bazeuzkan. Orduan, zarata arraro batzuk entzunez gero badakit non diren. Baina orain, gazte bati, adibidez, nire semeari, auto hori lagatzea atzerapauso bat ematea izango litzateke. Min hartzeko arriskua dauka. Zaldiak ditu motorrak, auto azkarra da, baina gidatzeko baldar samarra da. Ez dauzka auto modernoek dituzten laguntzak: frenoak, segurtasuna, eta abar. Nekezagoa da gidatzeko oraingo autoak baino. Semea badakit desiratzen dagoela, baina ez da auto honekin izango, beste batekin izan beharko du.

Lasterketak asko aldatu al dira hasi zinenetik gaur egunera?

Lehen, berdintasun handiagoa zegoen lehiakideen artean. Dozena erdi izango ginen eta do-

zena erdiak baldintza beretan lehiatzen ginen. Orain, dirua daukanak auto bikaina ekartzen du, eta jarraitu iezaiozu posible baduzu. Guk beti segi dugu linea berean, automobil berarekin. Ez da horren nekeza auto berarekin lehiatzea, baina orain diru kontua da. Gehien daukanak autorik onena du.

Orduan, lehiaketa bera aldatu da?

Dena. Lehen, etxean zeneukan autoarekin jarduten zenuen lasterketetan, ahalik eta ondoen lehiatzen. Horrela egiten genuen lehen. Beti zegoen norbait automobil hoberekin, baina ez gaur egun bezala. Orain, hiru edo lau pertsona daude bitarteko hobeekin, eta birrindu egiten dute. Ezin baldin badute irabazi, auto berria erosten dute.

Errepideen egoerak hobera egin du urteen joanean?

Gorla 1993an asfaltatu genuen, Udalarekin eta Diputazioarekin. Harrezkero, inork ez du xentimorik erabili errepidean. Gainera, txapelketako errepide askok, Udanak, Gatzagak, Sollubek izugarritzko joan-etorria izaten dute egunero. Denek asfaltua gastatuta daukate. Oso

labainkorak dira. Mantentzeko ez da ezer egiten, edo oso gutxi. **Garatu al da Euskadiko Mendi Igoera Txapelketa? Lasterketa kopuruak izan du gorabeherarik?**

12 edo 14 karrera izan zituen urteekin akordatzen naiz, baita bost izan zituenekin ere. Orain, zazpi eta hamar artean gabiltza azkeneko 20 urteetan. Behera ez doa. Jendeak gogoa dauka; gazteek, gehienbat. Normala den bezala. Bitarteko handirik ez dago. Diru bultzakadaxo bat falta zaio gidariek auto hobeak ekartzeko, edo auto normala-

"ERREPIDEAK ASFALTO KAPA BEHAR DUTE; SALTOKA GOAZ ASKOTAN, AHUNTZAK BEZALA"

"BADAKIT, BIHAR EZ BADA ETZI, IRABAZIKO DIGUTELA EZ BATEK, DENEK; SAIATUKO NAIZ NEKEZ IPINTZEN"

goekin ibiltzeko. Lehen, konformatzen ginen auto eskas batekin. Oraingo gazte jendeak nahi du onena hasieratik: 6 zilindro baino 8 badauka hobeto, edo 1.000 kilo beharrean 500 badauka. Baina ezin zara motorra gidatzen ikasteko Harley Davidson batekin hasi. Mobylette bat hartu behar duzu, eta horrekin ibili, poliki, goraino heldu arte. Gaurko gazte jendeak gura du zuzenean onenari heldu. Nekeza eta arriskutsua da hori.

Belaunaldien arteko erreleboa emanda al dago autoen munduan?

Bai, baina ibilbidea falta zaie. Auto txiki batekin hasten bazara, zuk apurtzen duzu eta konpondu. Gaurko helburua da auto on bat ekartzea. Ez hutsetik hasi, bostetik hasi eta bost urte aurreztu. Hutsegite bat da. Txikitik ikasten duzu ea nondik apurtu daitekeen, tentuz gidatzen duzu. Potentzia daukan auto batekin baino gehiago frogatu behar duzu. Bestela, azeleragailua sakatu eta kito. Ikasteko hobeto da auto eskas batekin, eta gauza asko ikasten dira.

Ez da merkea izango auto berri bat erosi ahal izatea...

Diru mordoia balio dute. Gainera, ez daukagu laguntza askorik; ez, behintzat, beste kirol askotan beste. Daukagunaz ezin naiz ke-xatu. Dena den, gehiago beharko litzateke puntako auto bat izateko eta zuk ere zure burua lasai izateko. Aste guztia mekanikaria izaten naiz eta aste bukaeretan mekanikaria eta gidaria.

Mekanikaria izatea beharrezkoa al da auto lasterketetan aritzeko?

Beharrezkoa, ez. Gidari mordo bat daude badakitenak eta beste mordo bat ez dakitenak. Niretzako, futboleko zapatila gabe

"LEHEN, AUTO ESKAS BATEKIN HASTEN GINEN; ORAINGO GAZTEAK ONENA NAHI DU HASIERATIK"

"LEHEN, EDOZEIN LASTERKETATAN JENDE PILOA ZEGOEN; GORLA MAREA HUTSA ZEN, SEKULAKOA"

futbolean jokatzera joatea bezala da. Komeni da denean esperientzia izatea.

Zela ikusten duzu lasterketen etorkizuna?

Azkenengo urte mordoak gabiltza berdina esaten: hor gaude eta hor segitzen dugu. Aurrekoan, 100 ekipo egon ziren Urbanen lehiatzen. Gu ez ginen joan, ze ez da Euskadiko txapelketa eta autoa ez zegoen bere onenean. Baina imajina zenbat jende: 100 ekipo eta 3-4 pertsona ekipoko; berdina Gorlan eta Solluben, esaterako. Jendea bada. Jendeak badauka lehiatzeko gogoa. **Ikusleak falta al dira?**

Lehenengo garaiekin konparatuta, ikusle gutxiago egoten dira. Lehen, edozein lasterketatan jende piloa zegoen. Gorla marea hutsa zen. Sekulakoa zen. Orain, marea horren laurdena falta da. Jendea joaten da, baina osagai guztiak batu behar dira: giro ona egotea eta zubia ez den aste bukaera bat izatea. Kirol guztiak ari dira gero eta makalago, ez dakit zergatik. Ez bakarrik gurean, beste 30 kiroletan ere bai. Zerbait gaizki egiten dugu. Zer? Ez dakit.

Beste batzuk ere aurre-aurrean

Eskualdeko beste hainbat gidarik parte hartu dute Euskadiko auto txapelketetan. Eta beste hiruren kasua da nabarmena, hiru horiek ere sariak eskuratu dituztelako: Aitor Fernandez de Arroiabe eskoriatzarra lehenengo gelditu da mendiko Igoera txapelketan formula librean; lehen postua eskuratu du Alaitz Urkiola antzuolarrak rallyan eta rallysprintean kopilotu; eta bigarren Maider Usandizaga oñatiarra rallysprintean kopilotu.

la ausaz bukatu zuen Fernandez de Arroiabek auto lasterketetan parte hartzen. 26 urteko eskoriatzarrak, berez, ez zeukan asmorik 2016an auto bat hartu eta aldapan gora abiatzeko.

Pareko autoa suertatu zitzaion aukeran, ordea. "Apur bat ibiltzeko erosi nuen. Karreraren bat edo egin eta gero saltzeko", azaldu du pilotuak. Gaur arte iraun dio autoak.

Aurrez ere, lagunak ibiltzen ziren lasterketetan parte hartzen eta hala pasa ditu azken lau urteak, parte hartzen, baina lehiatu gabe. Aurten, hala ere, txapelketa guztia egitea erabaki zuen, eta lehen postua izan da emaitza. Alde galanta igarri du, dena den, lehiatzeko aritzearen eta gozatzeko aritzearen artean. "Irabazi nahi

baduzu, lan gehiago hartu behar dituzu: autoa beti prest eta egoera onenean izan, bideak ikasi... Presioa ere beste bat da".

Hurrengo urtean ez dago ziur lehiatuko ote den. Ez du bazterten, dena den, parte hartuko duenik. "Seguru, Gatzagako igoera egingo dut. Gero, ikusiko dut ea berotzen naizen lehiatzeko".

Hurrengo pausoari begira

Alaitz Urkiolak ere makina bat urte darama autoarekin bueltaka. Egun, 25 urte ditu, baina 16rekin hasi zen kopilotu lanetan. Helburua garbi zeukaten aurtengo kurtsoari begira Aingeru Castro pilotuak eta berak: rallya eta rallysprinta irabaztea. Azken hiru esprint txapelketak jarraian eskuratuak zituzten, baina biak batera inoiz ez. Aurten ezarri dute marka berria.

"Guk uste baino hobeto joan da denboraldia", nabarmendu du antzuolarrak. "Lehenengo lasterketak irabazten hasi ginen. Ez genuen espero"

Oraindik ez dira bi modalitateetako karrerak bukatu. Igande honetan jokatuko

BESTE HAINBAT AUTO PILOTU IBILI DIRA KARRERETAN ETA HORIETATIK HIRU NABARMENDU DIRA AURTEN



Maider Usandizaga eta Enrique Barrenetxea-Arando. GOIENA

da rallysprinteko azken lasterketa, Ugaon, Bizkaian, eta azaroan rallyarena. Urkiolak, jada, esku artean du kopilotuen txapela, ikusteko dago oraindik Castrok lortuko ote duen.

Hala ere, etorkizunari begira jarrita daude jada, edo, hobeto esanda, kanpora begira jarrita daude jada. Euskadiko txapelketan maila batera iritsi direla iruditzen zaie, eta ezin dutela hobetu. "Kanpoan beste batzuen aurka lehiatu nahi dugu eta zein mailatan gauden ikusi", argitu du antzuolarrak. Aurrekontuak lortuz gero Espainiako txapelketan parte hartuko dute.

Ikastea bera helburu

Bigarren postua lortu du Maider Usandizagak rallysprintean kopilotu. Baina ez bigarren, ez lehenengo gelditzea ez ziren urteko helburu. Izan ere, pilotu batekin baino gehiagoren jardun du 22 urteko oñatiarrak. "Lasterketa bakoitzean ikasten duzu zer edo zer, kilometroak egiteak eta jende ezberdinarekin aritzeak eskaintzen dizu hori". 2015ean hasi zen kopilotu lanetan, baina beti pilotu berarekin. Hurrengo urterako, rallyan baina lurreko pistetan ibiliko den pilotu bat aurkitu nahi du, aukeran nahiago luke-eta asfaltoan baino.

lazko txapeldun guztiak izango dira Sorraluzen

ATLETISMOA Zapatuan egingo dute Antxintxika krosaren 15. edizioa, Mikel Crespo memoriale. Antolatzaileek irteera puntuan 400 korrikalari espero dituzte, eta aurtengoak ere hainbat nobedade izango ditu, bereziki kirol egokituari dagokionez

Xabier Urzelai ARRASATE

Antxintxika krosaren 15. edizioan borroka polita izango da ostera ere aurrealdeko postuetan. Joan den astean, Oñati-Arrasateko irabazle Aitor Mimentzak aurreikusituen David Gartzia durangarra irteera puntuan baldin badago oraingo zapatuan gehiago kostako zaiola lasterketa irabaztea: "Biok hortxe-hortxe ibiltzen garelako borrokan". Hain zuzen, Antxintxika krosa zazpi ediziotan irabazi duen David Garciarendako lasterketa berezia da Sorraluze eta Bergara artekoa, baina egia da, baita ere, azken urteotan Mimentzak aurrerapauso handia egin duela, eta Garciari lasterketako agintea kendu diola.

Hala, gizonetakoetan lazko irabazle guztiak egongo diren moduan, emakumeetakoetan ere iaz protagonistak izan zirenak irteera puntuan egongo dira, Araitz Villatik hasita.

Aldaketa txikiak ibilbidean

Lasterketa 16:30ean hasiko dute gurgil aulkian lehiatuko direnek, eta 16:45ean abiatuko dira patinatzaileak. Korrikalariak, berriz, 17:00etan hasiko dute Antxintxika krosa: "Eta hor nobedadea da zortzi-bederatzi aulki berezi ekarriko dituztela urritasun



Patxi Torres eta Iban Da Silba, aurkezpenean. GOIENA

15:00ETAN HASITA, BERGARAN, GAZTETXOENDAKO LASTERKETAK ANTOLATUKO DITUZTE

funtzionala duten haurrekin korrika egin ahal izateko". Hain zuzen, *Zure irrifarra, nire indarra* ekimenak kolorea emango dio lasterketari, eta horiek korrikalarietara batera hasiko dute lasterketa.

Ibilbideari dagokionez, aurten aldaketa txikiak izango dira: "Sorraluzetik Bergara arteko zati osoa bidegorritik egingo dugu aurten, eta ez dugu beste urte batzuetan sartutako Arranoko zatitxo hori sartuko -Kruz gallastegi kalekoa-. Hor galtzen ditugun metroak Mekolalden irabaziko ditugu".

Bestalde, antolatzaileen eskarera dortsalak denboraz hartzea, azken orduan jendea ez pilatzeko: "Zapatu goizean Bergarako plazan hartu ahal izango dira, eta 14:30ean hasita Sorraluzen".



Mikel Gonzalez, baloiarekin, kontrarioa lurrean utzita. GOIENA

Jardunaldia egubakoitzera aurreratuko dute gehienek

FUTBOLA Bergarak lider dagoen Anaitasuna izango du aurrean; Mondrak Debako taldearen bisita izango du

Xabier Urzelai ARRASATE

Asteburuko zubia tarteko, Oho-rezko Erregionaleko ligako zortzigarren jardunaldia egubakoitzean jokatuko dute talde gehienek. Hala, ibarrekoen artean Mondra eta Bergara dira etxean jokatuko duten bi taldeak.

Jorge Davilaren mutilak puntu beharrezko daude, eta laugarren postuan dagoen Amaiak Bat taldearen bisita izango dute bihar, egubakoitza, (16.30, Mojategi). Debakoek bi norgehiagoka baino ez dituzte galdu, eta aurreko jardunaldian jaso zuten bi porrot horietako bat, Añorgaren kontra, etxean. Mondrak, berriz, ez zuen nahi moduko etekina lortu atzaldeko postuetan kontrario zuzena den Oiarzunen zelaian (1-1).

Bergarak liderra hartuko du

Mahoneroek ere ez dute kontrario erraza izango (egubakoitza,

15:45, Agorrosin), lehenengo postuan dagoen Anaitasunaren bisita izango dute eta Javier Barkeroren mutilek. Joan den astean, puntu ona batu zuten bergararrek Aretxabaletaren kontrako derbian, baina Barkerok berak aitortu du talde mahoneroak etxean hobetu behar duela, kanpoan txukun dihardutelako. Anaitasunak, baina, jokatu dituen zazpi partiduetatik sei irabazi ditu.


Aretxabaletak ere egubakoitzean jokatuko du (17:30), Hernanin. Mikel Larbururen taldea saillkapenaren erdian dago, eroso, eta Hernanik puntu bat gehiago baino ez du.

Derbia erregional preferentean

Kategoria bat beherago Aretxabaletak Antzuola hartuko du gaur, eguena (20:00etan, Ibarra). Mondrak eta Aloña Mendik kanpoan jokatuko dute bihar.

lazko podiuma errepikatzeko moduan

David Garcia da Antxintxika lasterketako korrikalari kuttuna, durangarrak zazpi aldiz irabazi du lasterketa. Elorrioko Aitor Mimentzak, berriz, azken bi urteotan nagusitasuna erakutsi du. Iaz Elorriokoak 31.48an geratu zuen erlojua. Emakumeetakoetan, Araitz Villak 37.05eko denbora egin zuen, Mainer Urbe izan zen bigarren eta Miren Apraiz hirugarren.



Iazko podiumean Rua, Mimentza eta Garcia, hirurak bizkaitarrak. GOIENA

Muskiz eta Deustu bisitan

ESKUBALOIA Euskadiko Txapelketan, Fagor Industrial Aloña mendik eta Ford Mugarri Arrasatek etxean jokatuko dute asteburuan.

Zubiak ez die talde nagusiei eragingo -gainontzeko kategoriek atsedena dute-. Hala, oñatiarrek Deustuko unibertsitatekoak hartuko dituzte zapatuan (17:45) eta Arrasatekoek Muskizen kontra jokatuko dute egun berean (17:00).



"Lehenengo kanporaketa gainditzea zen helburua"

AITOR MADINABEITIA GOÑI KARATEKA

KARATEA Saioa Arrasate klubeko ordezkaria sei urterekin hasi zen borroka arteak praktikatzen. 19 urterekin Europako txapelkunorde izan berri da, Porton

Xabier Urzelai ARRASATE

Karateka arrasatearrak (19 urte) Europako kiokunshin txapelketan zilarrezko domina jantzi berri du, Porton. Finalean Kazakhstango karateka batek hartu zuen mendean, berez legez kanpoko den kolpe bati esker: "Beste kirol batzuetan bezala, karatean ere epaileek ez dute beti asmatzen. Baina oso gustura nago egindako lanarekin".

Espero zenuen Europako txapelketan finaleraino sailkatzerik?

Egia esateko, ez. Beste torneo batzuetan lehenengo borrokaldian kanpora joan izan naiz, eta Porton helburu nagusia zen lehen kanporaketa gainditzea.

Eta guztira, hiru borrokaldi egin zenituen.

Hori da. Nire kategorian -21 urtez azpikoak, 70 kilotik behera- 12 borrokalari ginen, guztira. Lehenengo kanporaketan zortea izan nuen eta borrokarik egin barik egin nuen aurrera. Hala, nire borrokaldia baino lehenago Poloniako eta Kazakhstango bi karateken arteko borroka ikusi nuen. Kazakhstangoak egin zuen aurrera, eta hura izan behar zen nire lehenengo kontrarioa. Entrenatzaileak eta biok ikusi genuen karateka horreku asko erabiltzen zirela, kolpe indartsuak ematen zituela, eta gure borrokaldian [bi minutuko konbateak izaten dira] saiatu ginen distantzia asko mantentzen, eta azken 30 segundoetan bere jokoan sartzen. Erabaki ona izan zen.

Lehenengo borrokaldian garrantzitsua izango zen urduritasunari eustea...

Hori da. Lehen kanporaketa zuzenean gainditzea abantaila da, baina nire lehenengo borrokaldian ni urduri nengoen, eta lehenengo kanporaketan esku hartu duenak dagoeneko uxatu ditu urduritasun horiek. Urduri nengoen, bereziki, ondo dabilako Kazakhstango karate-



Aitor Madinabeitia Goñi, Porton eskuratutako garaikurrekin. GOIENA

"KONTRARIOAK EZAGUTZEA OSO BALIAGARRIA IZAN ZEN TORNEOAN AURRERA EGITEKO"

kek ze maila ona duten. Baina, lehenengoz borrokatzen nintzen lurralde horretako karateka baten kontra. Entrenatzaileak -Jon Rodriguez- esan zidan lasai egoteko, beste borrokalaria ere pertsona normala zela, eta nik egin beharreko lana egiten banuen aukerak izango nituela aurrera egiteko. Gainera, txapelketako helburu nagusia lehenengo kanporaketa gainditzea zen.

Eta hori, zergatik?

Beste txapelketa batzuetan lehenengo kanporaketan joan izan naizelako kalera, eta hiru hilabetez torneo prestatzeko ibili eta gero ez dakizu horrek ze amorruek ematen duen.

Zer-nolakoa izan zen bigarren borrokaldia?

Erabat ezberdina. Israelgo karateka baten kontra neurtu nituen indarrak, eta hark eskuak

ez zituen horrenbeste erabiltzen, hankekin zen trebea. Hala, garbi geneukan distantzia motzean jardunez gero, ostikoak saihestuz gero aukerak izango genituela. Gibelean eman nion kolpe batekin min hartu zuen, eta, neurri handian, hor irabazi nuen kanporaketa.

Finalean, berriz, Kazakhstango beste karateka bat izan zenuen zain.

Bai, eta eskuetan lehenengo borrokaldian kanpoan utzi nuen herrikideak baino indar handiagoa zuen honek, kolpe gogorak ematen zituen. Hor ere distantzia mantentzen saiatu ginen, hankekin min egiten saiatu ginen, baina borrokaldiko momentu batean barrabiletan eman zidan kolpea, eta erabakigarria izan zen hori. Epaileak erabaki zuen kolpea sabelean izan zela, baina ez, beherago eman zidan. Hala, hemen ere epaileek ez dute beti asmatzen. **Urteko txapelketa garrantzitsuena izan da?**

Bai. Hilabete barru Bartzelonan izango dut nazioarteko beste txapelketa bat, baina zilarrezko domina irabazi izanak asko poztu nau.



Mikel Atxa, joan den domekako garaipenean. IZABALA

MUK lan bikoitza du zubian, eta, gainera, ligako oilarren kontra

SASKIBALOA Asteburuan bi partidu jokatuko dituzte etxekoek, eta biak partidurik galdu ez dutenen kontra

X.U. ARRASATE

MU asteburuan parekatuko da ligan norgehiagoka bat gehiago jokatuko duten kontrarioekin; horretarako, zuri-moreek bi partidu jokatuko beharko dituzte jarraian, eta, gainera, kontrario gogorren kontra.

Orain arte, Solares, Pas Pielagos eta Easo Loquillo taldeak dira jokatuko dituzten lau partiduak irabazi dituztenak -Arrasatekoek hiru jokatuko eta hirurak irabazi dituzte-. Hala, bihar, egubakoitza, Solaresen kontra jokatuko dute Kantabrian, eta domekan Easoren bisita izango dute Iturripen (18:30): "Partidu zailak izango dira biak. Hasteko, domekako partiduan pentsatzen hasi aurretik, lehenengo, Solaresen kantxara joan behar dugu garaipen bila, eta liderrak dira; horrenbestez, ez da erraza izango", adierazi dio GOIENARI aste barruan Iñaki Ogarak. Eta on-

doren, ia atsedeen barik, gipuzkoarren arteko derbia izango da Iturripen.

Kostatako garaipena

Aipatu moduan, zuri-moreek ondo hasi dute liga, partidu guztiak irabazi dituzte eta. Azkena 91-69, Filipenses taldearen kontra: "Baina markagailuko aldeak ez du erakusten kantxan gertatutakoa. Izan ere, partiduko lehenengo hiru laurdenetan zailtasun handiak izan genituen talde horren kontra. Defentsan planteamendu zehatz batekin kantxaratu ginen, euren mugimendu finkoak apurtzea zelako helburua, baina horrek kantxan jokoa asko zabaltzea ekarri zuen, eta min egin ziguten. Lehen bi laurdenetan nahi eta ezin ibili ginen, hainbat aldaketa egin eta garaipenaren bidea aurkitu genuen arte. Lan handia egin behar izan genuen irabazteko".

ARETO FUTBOLA UDAK domekan jokatuko du liderraren kontra

Maila nazionalean Eskoriatzak atsedena du asteburuan, baina Euskadiko Txapelketan diharduten Mondratek eta Aretxabaleta UDAk normaltasunez jokatuko dute jardunaldia.

Hain zuzen, aretxabaletarrek domekan jokatuko dute etxean (11:30, Ibarra), eta ligako bigarren garaipenaren bila kantxaratuko dira. Baina aurrean ez dute no-

lanahiko taldea izango: Jarri-lleros Peñota Dental taldea lehenengo postuan dago, jokatutako bost partiduetatik lau irabazi eta bestea berdinduta (13 puntu). Aretxabaletarrek, berriz, 13. postuan daude sailkapenean, Soloarteren eta Goierriren aurretik.

Mondratek, bestalde, Lezon jokatuko du zapatuan (18:00), Jaixkiren kontra. Arrasatekoak hirugarren dira (9 puntu) eta Jaixkikoak laugarren; kontrario zuzena, horrenbestez.



Izaskun Murgia elkarte lirikoko abeslariak entseaten. TERE GONZALEZ

Lehenengoan besteko ilusioz dator zarzuela hogeigarren ekitaldian

Izaskun Murgia elkarte lirikoak 'El dúo de la Africana' zarzuela eskainiko du azaroaren 23an, 24an, 29an eta 30ean, Amaia antzokian. Umorez betetako obra aukeratu dute 20. urtemuga ospatzeko. Sarrerak dagoeneko salgai daude

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE 20 urte beteko ditu Izaskun Murgia elkarte lirikoko zarzuelak egiten eta eskaintzen. 20 urte luze, "di-da" baten pasa zaizkienak. Urtemuga berezia ospatzeko, *El dúo de la Africana* zarzuela aukeratu du Izaskun Murgia elkarte lirikoko zuzendari Tere Gonzalezek: "Aukeratu dut jendeak barre asko egingo duelako. Oso obra dibertigarria da". Opera konpainia merke bateko istorioak jasotzen ditu zarzuelak: "Agertokian opera bat nola gauzaten den azalduko da; agertoki bat egongo da agertokiaren barruan".

Zarzuela adierazgarria

Manuel Fernandez Caballerok sortu zuen zarzuelako musika, 1893an, eta Miguel Etxegaraik liburua idatzi. Izaskun Murgia elkarteak orain dela 12 urte es-

kaini zuen lehenengoz *El dúo de la Africana*: "Esan behar da pertsonaia guztiak berriak izango direla". Hortaz, "lehenengoz egitea moduan" dela gaineratu du Gonzalezek. Susana Vazquezek *Antonelli*-ren papera egingo du, sopranoa izango dena; Mikel Irizar *Querubini* izango da, konpainiako nagusia; eta Lander Ojanguren *Giuseppini* izango da, tenorea.

"Entseguak ondo doaz, baina beti nahi dugu hobeto egin. Nik diot beti hobetu behar dela zer baitetan. *El dúo de la Africana* da zarzuela bat oso adierazgarria; baina oso entregatuta egon behar da. Nahikoa da agertokian dudenetako bat jestu serioarekin egotea dena zapuzteko. Nahi dudana da jendea parte-hartzaileago izatea", esan du Gonzalezek.

GONZALEZEK JENDEA ANIMATU NAHI DU ZARZUELA IKUSTERA, "OSO DUINA" DELA GAINERATU DU

jendea oso entregatuta egon behar da. Nahikoa da agertokian dudenetako bat jestu serioarekin egotea dena zapuzteko. Nahi dudana da jendea parte-hartzaileago izatea", esan du Gonzalezek.

Abesbatzaren garrantzia

Martxoan hasi ziren *El dúo de la Africana* zarzuela entseaten; hala ere, Gonzalezek dio hurrengo urteko zarzuela zein izango den erabakita duela dagoeneko.

Izaskun Murgia elkartearen berezitasunak kontuan hartzen dituela dio: "Badaude zarzuela batzuk oso politak, egin ditzakegunak, *La del manojo de rosas*, *La dolorosa*... baina horiek ez dute abesbatzarik. Nik ez ditut horiek egin nahi. Abesbatza bat izatea eta mantentzea asko kostatzen da. Nik erabakitzen badut aurten abesbatza barik egitea, nork ziurtatzen dit hurrengo urterako abesbatza izango dudala? Beharbada bai eta beharbada ez. Horretaz gain, abesbatza batek asko janzten du".

Ikusleak mantentzea gura dute

Zarzuela ikustera joaten den jendearen batez besteko adina handia dela dio, eta, horregatik, azkeneko urteetan ikusle izan diren asko galdu dituztela dio Gonzalezek: "Nik animatu nahi dut jendea zarzuela ikustera etortzera. Jendeak uste du zarzuela baldarra dela, eta ez da horrela. Asko zaintzen ditugu detaileak". Herri baten horrelako zerbait egitea "jendeak miresten" duela gaineratu du, kontuan hartuta, gainera, ez dela konpainia profesional bat. "Oso duina da", dio Gonzalezek.

Lantalde handia

Zarzuelaren atzean lantalde handia dago: Jabi Burgosek dekoratuen taldea gidatzen du; Kati Andresek jostunena; horrez gain daude ile-apaintzaileak, makillatzaileak, soinua... Elkarte lirikokoan 50 bat kide dira eta, horiez gain, orkestrako musikariak daude.



J.B.

"Proiektzioak erabiliko ditugu"

JAVI BURGOS

DEKORATUEN ARDURADUNA

Zarzuelako dekoratuak egiten ditu Javi Burgosek. Aurten proiektzioak erabiliko dituztela dio. **Erabiliko dituzue orain dela 12 urteko dekoratuak?**

Ez, baina egingo dugu ordukoaren berdina. Orain daukagun lokalean ezin dugu altura handikorik egin; horregatik egokia da zarzuela hau, dekoratu minimalistak dituelako.

Proiektzioak ere erabiliko dituzue.

Gero eta gehiago erabiltzen ditugu; orainoan, 3. ekitaldian erabiliko ditugu.

Zenbat panel sortu dituzue?

Aurten, gutxiago. Hiru ekitaldi ditu zarzuelak: lehenengoan, agertoki huts bat irudikatuko dugu; bigarrenean, agertokiaren atzeko alde; eta, hirugarrenean, antzerki bat, proiektzio bitartez.

Goiena Klubean sarrerak doan

El dúo de la Africana zarzuelarako sarrerak zozketatuko ditu Goiena Klubak. Azaroaren 15ean parte hartu beharko da azaroaren 23ko eta 24ko sarrerak lortzeko; saridunak azaroaren 22an argitaratuko dira. Azaroaren 22an parte hartu beharko da azaroaren 29ko eta 30eko sarrerak lortzeko; saridunen izenak azaroaren 29an

argitaratuko dira. Whatsappez -688 69 00 07- edo Goienara deituta -943 25 05 05- parte hartu ahal izango da, *zarzuela* hitza erabili.

Arrasateko dendarien elkarteak, Ibai-Artek, sarrera bikoitzak zozketatuko ditu urriaren 30etik aurrera erosketak herrian egiten dituzten bezeroen artean. Herrian erosketak egitera

bultzatzeko ekimena izango da; eta, modu horretan, sarrerak doan eskuratzeko aukera egongo da.

Bestalde, zarzuelarako sarrerak dagoeneko salgai daude Ticket.kutxabank.es atarian, 19 euroen truke. Amaia antzokiko leihatilan ere eros daitezke, antzokia zabalik dagoen orduetan. Azaroaren 23ko, 24ko eta 30eko emanaldiak 19:30ean izango dira eta 29koa, 20:00etan.

'La Trinchera infinita' filma zinema aretoetan

Gaur, eguena, estreinatuko dute Moriarti eta Irusoin ekoiztetxeek Andaluziako La Claqueta-rekin elkarlanean egin duten filma areto komertzialetan; Debagoiengan ere eskainiko dute: Oñatin gaur hasita, eta datozen asteetan Bergaran eta Arrasaten

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Luze egindako lanaren helmuga heltzen ari direla diote Moriarti-koek; hortaz, duten sentsazioa "nekea, urduritasunarekin eta espektatibekin batuta" dela. Gaur, eguena, estreinatuko zine aretoetan, Debagoiengan, Oñatikoan.

Aurre-estrenaldietan, pozik

Pozik daude "orain arte egindako bidea ondo eta indartsu egin dutelako", eta aurre-estrenaldietan "ondo hartua" izan dela dio Xabier Berzosa ekoizleak: "Zinemaldian, Bilbon, Iruñean Madrilen, Bartzelonan eta, bereziki, Andaluzian egindako aurkezpenetan ikuslearen bihotza ukitzen duela ikusi dugu".

Debagoieneko hiru zinetan

Oñatin gaurtik astelehena bitartean eskainiko dute. Sarrerak bost eurotan dira, eta aurrez ere eros daitezke: *Oñati.eus* atarian eta leihatila digitalean -0,50 euroko gaitzua du-.

Seminarixoa hurrengo asteburuan izango da ikusgai. Bost eurotan dira sarrerak eta aurrez *Tickets.kutxabank.es*-en eta eguenean Seminarixoko txarteldegian eros daitezke.

Arrasaten, bi aste barru eskainiko dute, Amaia antzokian.



Aitor Arregi -eskuinetik bigarrena- aktoreekin eta lantaldearekin. MORIARTI

Debagoieneko emanaldiak

OÑATI

- **Urriak 31:** 22:30ean, Kultura Etxeko zine aretoan. Aitor Arregi zuzendariak aurkeztuko du eta Udalak aitortza egingo dio ekitaldian.
- **Azaroak 1:** 19:30ean eta 22:30ean, Kultura Etxeko zine aretoan.
- **Azaroak 2:** 19:30ean eta 22:30ean, Kultura Etxean.
- **Azaroak 3:** 19:30ean eta 22:30ean, Kultura Etxean.
- **Azaroak 4:** 19:30ean eta 22:30ean, Kultura Etxean.

BERGARA

- **Azaroak 8:** 22:00etan, Seminarixoa.
- **Azaroak 10:** 19:30ean, Seminarixoa. Solasaldia egingo dute filmeko zuzendariekin.
- **Azaroak 11:** 20:30ean, Seminarixoa.

ARRASATE

- **Azaroak 16:** 19:30ean eta 22:00etan, Amaia antzokian.
- **Azaroak 17:** 19:30ean, Amaia antzokian.

Euskal musikariak protagonista azaroko Kooltur Ostegunetan

Joseba Irazoki eta lagunak, Arrotzak, Sega Sound Killers eta Occhi Di Farfalla taldeak izango dira, hurrenez hurren

A. Aranburuzabala ARRASATE

Eguena den arren, jai bezpera izanik ez da Kooltur Ostegunak emanaldirik izango gaur.

Azaroko eskaintza Joseba Irazokik eta haren taldeak zabalduko dute. "Euskal Herriko gi-

tarra jole onenetakoa da. Psikodelia, rocka eta folka batzen ditu", dio Iker Barandiaranek.

Proiektu berri eta "ezberdinak"

Donostia aldeko Arrotzak taldeak hartuko du lekukoa azaroaren

14an. "Taldea oso undergrounda da, eta Ameriketako punk iluna aldarrikatzen dute".

Jousilouli, Nairoxa eta Anai Arrebak taldeetako Iñaki Altolagirre *Matxet*-ek abiatu duen Sega Sound Killers izango da azaroaren 21ean: "Nahiko talde basatia da; elektronikatik, industriatik eta hardcoretik du. Kontzertu gutxi eman dituzte".

Datorren hileko egitaraua borobiltzeko, rock eta pop iluna egiten duen Zarauzko Occhi Di Farfalla taldea gonbidatu dute.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!

Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago: 943 25 05 05 | Egutegia: www.farmaciaandena.org | Zuzendariak: kluba@goiena.eus | Facebook: [klubagoiena](https://www.facebook.com/klubagoiena) | Instagram: [klubagoiena](https://www.instagram.com/klubagoiena) | Twitter: [klubagoiena](https://twitter.com/klubagoiena) | LinkedIn: [klubagoiena](https://www.linkedin.com/company/klubagoiena) | YouTube: [klubagoiena](https://www.youtube.com/channel/UC...)

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Mundukide Fundazioari esker

'Aba Taano' kontzerturako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroaren 8an | 20:00etan

Eskoriatzako Udalari esker

Piribix, Porroix eta Marimotots 'Bizidantza'

ikuskitzen berriko sarrerak ditugu.

Eskoriatza | Manuel Muñoz kiroldegian | Azaroaren 9an | 17:30ean

Arrasateko Udalari esker

'Claudia' antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroaren 10ean | 19:30ean

PARTE HARTZEKO: AZAROAREN 7RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Aba / Bixi / Claudia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago: 943 25 05 05 | Egutegia: www.farmaciaandena.org | Zuzendariak: kluba@goiena.eus | Facebook: [klubagoiena](https://www.facebook.com/klubagoiena) | Instagram: [klubagoiena](https://www.instagram.com/klubagoiena) | Twitter: [klubagoiena](https://twitter.com/klubagoiena) | LinkedIn: [klubagoiena](https://www.linkedin.com/company/klubagoiena) | YouTube: [klubagoiena](https://www.youtube.com/channel/UC...)



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaituz 2019ko azarotik aurrera: 15€

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Aby Kem bergararrak izan ziren bigarren edizioaren irabazleak. GOIENA



Mery May arrasatearra bakarleri aritu zen 2008ko Danbakan. GOIENA

15 urte lehen Danbakatik

Lau edizio eta ia 80 talde edo bakarleri, musikaren inguruan giro aparta eta hedabideendako material bikaina; hori da Danbakaren musika lehiaketaren balantze nagusia. Askok berreskuratu nahiko luketen formatua

Jokin Etxeberria ARRASATE

Urte batzuk pasa dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian gitarren burrunbak eta baterien danbatekoak itzali zirela. Ordura arte, lau ediziotan, 2004, 2006, 2008 eta 2010, Goiena Komunikazio Taldeak eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak elkarlanean –Goibeko euskara elkartearen, Shot! grabazio estudioen eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen laguntzarekin– sortutako Danbaka lehiaketarekin bailarako eta Euskal Herriko ia 80 talde edo bakar-

"TALDEEN ARTEAN MUGIMENDUA SOR DADIN, HORRELAKOAK BEHAR DIRA"

IÑAKI BENGOA, EPAIMAHAIKO KIDEA

larik euren musika doinuak jendarteratu zituzten.

Urriaren 22an bete ziren 15 urte Danbakako lehen kontzertua egin zela eta, honenbestez, lehiaketa hasi zela. Askorentzat, iraganean gelditu den zerbait izango da; beste askok sekula ahaztuko ez duten esperientzia moduan gogoratuko dute; bada lehiaketa berreskuratzea ezinbestekotzat ematen duenik ere.

2004ko uztailean egin zen taldeentzako lehen deialdia. "Beldur puntu bat bageneukan, ez baikenekien zenbat jendek emango zuen izena. 40 taldetik gora apuntatu ziren, epaimahai bat sortu genuen, RIPEko Jul Bolinagarekin, Shot! estudioko Iñaki Bengoarekin eta Bergarako lagun batzuekin, sekulako ilusioarekin, hasi ginen taldeen musika entzuten", dio Iker Barandiaranek, Danbakaren koor-

dinatzaile nagusia izan zenak. Gutxienez taldekideetako bat Debagoienean erroldatuta egotea, kontratu diskografikorik indarrean ez izatea eta hiru kanta original aurkeztea izan ziren ezarritako baldintzak. Danbaka martxan zen. Fasez fase, hiru edo lau talderekin emanaldiak izan ostean iritsi ziren lehen finalera Muted, Potemkin eta Sharon Stoner taldeak eta ikuskizun gogoangarri baten ostean azken honek lortu zuen lehen txapela janztea. Gerora, Aby-Kem, The Wet Band eta Xarma suertatuko ziren irabazle.

"EZ ZEGOEN BESTE HALAKORIK; FORMATUAGATIK, BAKARRA ZEN"

IKER BARANDIARAN, KOORDINATZAILEA

Formatu berezia

Behar batetik eta laguntzeko gogo batetik sortu zen Danbaka. Iban Arantzabalek, gaur egun Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia denak, gertutik bizi izan zuen hasiera hura, antolaketa lanetan –Goienako eta Goibekoko kide zen–: "Ideia sortzeko orduan bi gauza lotu ziren: batetik, hedabide batek gazte jendearekiko daukan beharra, eta musika helburu hori lortzeko modu on bat izan zitekeela ikusi zen; bestetik, orduan sortu berri zen Espaloia Kafe Antzokia, bailarako aurrena, eta Euskal Herriaren bigarrena, eta hark lehen ez zeuden aukera batzuk eskaintzen zituen".

Egon badaude beste musika lehiaketa batzuk, baina Danbaka berezia zen, bakarra. "Ez zegoen horrelako bestelakorik, non aurretik, prentsan, taldea horren zabal aurkezten zuenik, kontzertuak osorik telebistan ematen zituenik, Interneten taldeak ezagutzera ematen zituztenik, euren kanta, sailkatu edo ez, entzungai jartzen zirenik...", dio Barandiaranek. Iban Arantzabal harago doa, lehiaketa *show* bihurtzen jakin izan zutela uste du: "Asteleheneko Goienkaria-n kontzertuetako kronikak egin ziren; telebistak taldeen bideoak eta kontzertu guztiak grabatu eta emititzen zituen, kontzertuetan pantailak jaitsi eta taldeei buruzko informazioa ematen zen,

elkarrizketak egin ziren zuzenean...".

Lehiaketak izugarriko sona lortu zuen eta Elgetako Espaloiko kontzertu bakoitzean 400 bat pertsona bildu ziren: lagunak animatzen, batzuk; eskualdean zegoen musika eskaintzaz gozatzeko, besteak.

Lau ediziotan epailan egin zituen Iñaki Bengoak: "Barietate handia eta maila oso altua zegoen. Eta, batez ere, giro bikaina sortzen zen. Taldeen artean mugimendua sor dadin, horrelako ekintzak beharrezkoak dira, eta asmatu zelakoan nago. Baliagarri izan zen talde askok aurrera egin zezaten, eta bertatik talde asko irten dira gerora, Euskal Herri mailan ibilbidea egin dutenak".

Aksotariko musika estiloak

Guztiek baloratzen duten zerbait da musika estilo ezberdin piloa ikusi ahal izan zirela: musika elektronikoa, punka, heavya, bluesa... Eta taldeek ez ezik bakarlariek ere euren lekua topatu ahal izan zuten lehiaketan. Mery May arrasatearrak honela gogoratzen du: "Bakarlarientzat, ordura arte Euskadi Gaztearen Maketa Lehiaketa eta

"DANBAKARI ESKER, HAINBAT MUSIKARI ANIMATU ZEN BAKARLARI IZATERA"

MERY MAY, MUSIKARIA



Amonal talde oñatiarrak lehen Danbakan parte hartu zuen, 2004an. GOIENA



The Wet Band mutrikuarrek irabazi zuten Danbakaren hirugarren edizioan. GOIENA



The 5 Twisters taldea, Arrasatetik. Hirugarren edizioan aritu zen. GOIENA

"Ezagutarazteko behar genuen bultzada izan zen Danbaka"

SHARON STONER DANBAKAKO LEHEN IRABAZLEA

Sharon Stoner talde oñatiarra izan zen Danbakaren lehen irabazlea, 2004ko edizioan. Taldearen oroitzen beti geldituko den bizipena izan zela diote. Lehiaketa irabazita atera zuten lehen diskoa. Orain, azaroaren 8an, laugarrena aterako dute.

Zer izan zen Danbaka Sharon Stonerrentzat?

Talde moduan urte batzuk generamatzen jotzen, gure izaera hartzen hasiak ginen, baina Danbaka izan zen benetan talde moduan ezagutarazteko behar genuen azken bultzada.

Danbaka benetan ezberdina zen?

Fasez fase joan beharra zeneukan, zuzeneko emanaldia... Finalera iritsi eta Potemkinekin tokatu, gainera. Gure aldameneko lokalean jotzen zuen beste talde oñatiar, maiz elkartzen ginen haiekin, gainera, gure arteko pike sano batekin. Oso polita izan zen, gure oroitzen beti geldituko den zerbait.



SHARON STONER

Bailarako eta bailaraz kanpoko taldeentzat pizgarria zen?

Talde askorentzat eta bakarlarientzat ere bai. Azken finean, taldeak ezagutarazteko beti dauka erraztasun handiagoa, baina lokalean edo etxean jo eta konposatzen duen jende askori, kontzertu bat antolatzeke aukerarik ez duena, normalean, Danbakan izena emateko aukerak ate asko zabaldu zizkion.

Lehen diskoa Danbaka irabazita atera zenuten. Laugarrena labean daukazue.

Azaroaren 8an aterako dugu. Aurreko diskoa 2012an ateratu genuen. Ez gara musikatik aldendu, bakoitzak bere bidea egin izan du, baina orain bi urte elkartu ginen berriz ere Sharon Stoner gisa kontzertu batzuk jotzeko eta horrek eraman gintuen berriz ere talde errutinan lanean jartzera. Lanaren fruitua kantuak izaten dira, normalean, eta kantuek diskoa dakarte.

beste ezer gutxi zegoen, eta Danbaka bakarra izan zen talde eta bakarlariak banatzen jakin izan zuena. Nik uste dut jende gehiago animatu zuela horrek bakarlari ere izatera".

